

# ttipi-ttapa

## SUAREN KONTRA BABESGABE

Etxalarko Oiarburu baserria 2007an erre zen, Leitzako

Musun 2010ean eta Arantzako Simonenborda joan

den urtean. Hiru baserrietako jabeak elkarrizketatu ditu

TTIPI-TTAPAK eta orduko bizipenez aritu dira. / 10



## Xorroxin Irratiak 40 urte bete ditu

Lau hamarkada pasatu dira Erratzuko eskolatik lehenbiziko emankizuna egin zutenetik. / 8



**Haurtzaroaren garapenerako jardunaldiak maiatzaren 15ean** / 18



**Alazne Aizpuru narbartearra fin frontenis txapelketetan** / 32




**Anparo Arangoaren tortura kasuak hizpide Juan anaiarekin** / 40

### SINADURAK

 HARITZ BEREAU MUTUBERRIA / 3

 AINHOA ANSA ZUGARRAMURDI / 4

 XABAT ILLARREGI MARZOL / 4



**ZOKKETA** / 64

## BERA LESACA

### Agenda 2021

**MAIATZA**

[www.berakoagenda.eus](http://www.berakoagenda.eus)  
[www.lesaka.eus](http://www.lesaka.eus)

LESAKAKO  
UDALA

7

ORTZIRALEA

**EKITALDIA**  
"EZAGUTU  
DEZAGUN  
LESAKA"

Lehiaketaren sari banaketa  
17:00 Txokobikoa  
**Antolatzaileak** Beti Gazte elkarte

**LESACA**

7

ORTZIRALEA

**LIBURU AURKEZPENA**  
OSASUNA 1936.  
GOLPISTAS,  
REPRASALIADOS Y  
FRANQUISMO

(Victor Moreno & Fernando Mikelarena)  
19:00 Kultur etxean  
**Antolatzaileak** Berako Kultur Batzordea,  
Berako Udala eta Berako Liburutegia

**BERA**

14

ORTZIRALEA

**BERTSO ANTZERKIA**  
ERIK ETA WIN  
(BUHAMEAK)

18:30 Kultur etxean  
Sarrera 5 € (sarrerak aitzinetik Agara  
prentsan salgai)  
**Argibide gehiago:** [www.buhameak.eus](http://www.buhameak.eus)  
**Antolatzaileak** Berako Kultur  
Batzordea eta Berako Udala

**BERA**

14

ORTZIRALEA

**LIBURU AURKEZPENA**  
"LA PUERTA  
PINTADA"

18:30 Harriondoa  
Idazlea Carlos  
Aurensanz  
**Antolatzaileak**  
Beti Gazte elkarte  
**Laguntzaileak**  
Lesakako Udala

**LESACA**

15

LARUNBATA

**GARAPEN**  
**JARDUNALDIAK**  
HAURREN ELIKADURA  
ETA NUTRIZIOAREN  
ARLOKO ERRONKAK

**Ordutegia** 9:30 -12:30  
**Lekua** Lesakako kultur etxea  
**Antolatzaileak** Lesakako Udala, Lesakako  
Osasun Etxea, La Caixa eta Guztioi elkarte

**LESACA**

15

LARUNBATA

**DANTZA**  
BORTZIRIETAKO  
MUXIKUEN  
TOPAKETA

18:00 Plazan  
**Antolatzaileak** Beti Gazteko Muxiku Taldea

**LESACA**

16

LARUNBATA

**DOKUMENTALA**  
"EZ, ESKERRIK  
ASKO"

Gladysen Leihoa  
19:00 Harriondoa Kultur Etxean

**LESACA**

20

ORTZEGUNA

**SOLASALDIA**  
**BERA**  
ZIGARDIBERETIK  
IKUSIA: 300 URTE

(Jose Mari Zelaieta Errandonea)  
19:00 Kultur etxean  
**Antolatzaileak** Berako Kultur Batzordea  
eta Berako Udala

**BERA**

# Parte hartzetik parte izatera.

Centro  
Sagrazón  
Jesúsen  
Bihotza  
Ikastetxea

info@jesusensbihotza.com

948 63 00 09

adi!!!

LAISTER AURRE-IZENEMATEKO EPEA IREKITA



NIRE TXANDA

HARITZ BERAU MUTUBERRIA

## Kapitalismoaren pandemia

Aste eskas pasatu da maiatzaren lehenetik, Baztan-Bidasoko herritarrok Elizondoko karrikak hartu genituenetik.

Karrikak hartu genituen, badirelako inolako lan kontraturik gabe lanean ari diren langileak, badirelako kontratu prekario edota praktiketako kontratu lotsagarriak dituzten langileak, badirelako praktikan kobratu gabe aritzen diren eta ordu gehigarriak egiten dituzten langileak.

Badira egungo krisi anizkoitzaren ondorioz kaleratuak izan diren langileak, baita langabezia dauden jende andana ere, eta badira egungo egoera baliatuz beraien sakelak diruz betetzen ari direnak ere. Badira, eta baditugu. Bai, eskualdean ere baditugu batzuen miseria errentak handiagotuz doazenak.

Gazteok ez dugula lanik egin nahi eta egungo gazteak alfer hutsak garela aditu beharko dugu behin eta berriz, baina noiz hartuko dugu egoeraz hausnartzeko tarte? Noiz ohartuko gara arazoa estrukturala dela? Kolektibizatu ditzagun arazo indibidualtzat hartzen ditugun arazo kolektiboak. Egunero da maiatzaren lehena!

«NOIZ OHARTUKO GARA ARAZOA ESTRUKTURALA DELA?»



ANA GALAR ARIZTEGI

## NABARMENTZEKOAK



JON KARRIKABURU  
ELBETE



GAIZKA SARASOLA  
LESACA

Real Sociedad taldeko hirugarren eta bigarren taldean ari da Jon Karrikaburu eta ligan Messik baino gol gehiago egin ditu. Estatu espainiarreko liga guztietako golegile nagusia da.

Euskal antzerkiari eskainitako Ganbila liburu bildumaren barne, Gaizka Sarasolaren *Zerrakuretan* antzerki liburua argitaratu dute. Bere bi obra bildu dituzte: *Txoriak eta zauriak* eta *Iluntzen*.

## ATZERA BEGIRA



2011-04-28 · TTPI-TTAPA · 541 zk.

## Eguraldiaz solasean Xalbador Iriarterekin

30 urtez Nafarroako Gobernuari prezipitazio eta tenperaturaren datuak emateagatik, duela hamar urte omendu zuten Arizkungo Landaberro baserriko Xalbador Iriarte Sansiñena. TTPI-TTAPAREKIN ere mintzatu zen eta «egunero baserriko behi bakarra jetzi eta etxetik metro guti batzuetara zuen estazio meteorologikora» joaten zela kontatu zuen. Hala, plubiometroan zenbat euri eta termometroetan tenperatura maximoak eta minimoak «eskuan apuntatzen» zituen, gobernutik deitzen ziotenean horien berri emateko. Horrekin batera, 30 urtez «gehien kanbiatu dena elurra» zela adierazi zuen, «orai gutiago egiten du. Mendietan bai, baina hemen beheiti ez. Gu gazteak ginenean, bospasei zentimetro sorik egiten zituen eta urte batean 80 zentimetro ere bai».

ttipi-ttapa

erran.  
eus

TOKIKOM

### Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa  
Koskontako bidea, 7 - 1.  
31770 LESACA  
T. (+34) 948 63 54 58  
F. (+34) 948 63 54 57  
WhatsApp 744 48 43 61  
info@ttipi.eus

### Zuzendaria

Aitor Arotzena  
**Erredakzioa**  
Gurutze Pikabea, Nerea Bazterrika,  
Ruben Oskariz, Eneritz Iraola  
**Publizitatea**  
Amaia Odriozola  
Arantza Agirre  
Usua Vicente  
**Berriemaileak**  
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,  
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,  
Arantxa eta Iraia, Iruñe Elizagoien,

Maider Petrirena, Oihana  
Kalparsoro, Fermin Etekolonea,  
Aintzane Leiza, Pablo Irastortza,  
Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari  
Barriola, Marga Erdozain, Maitane  
Maritorena, Arantxa Iturralde,  
Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi,  
Jaione Zabala, Nerea Mortalena,  
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,  
Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier  
Maritorena, Maialen Iantzi, Jaione  
Mindegia, Olatz Mutuberrria.

### Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebea  
**Kudeatzailea**  
Joxemanuel Irigoien  
**Administrazioa**  
Amaia Goia

### Lege Gordailua

NA-1324/85  
**ISSN**  
1578-4673  
**Tirada**  
6.000 ale

### Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,  
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,  
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,  
Zugarramurdiko Akelarre elkarteak

### 2021eko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	40€
Leitza	30€
Hego Euskal Herria	48€
Ipar Euskal Herria, Europa	94€
Amerika eta Australia	140€

Gobierno de Navarra

mecna

BAZTANGO  
EUSKARA

BORTZIRIETAKO  
EUSKARA  
MANKOMUNITATEA

Malerrekako  
Mankomunitatea



## KOLABORAZIOAK

AINHOA ANSA ZUGARRAMURDI

## Atera dezagun garratzetik gozoena

Urriaren 22an Nafarroa 15 egunetarako itxi zuten. Inoiz izan diren 15 egun luzeenak. Oraindik, sei hilabete eta gero, bertatik ezin atera gabiltza eta, bizitza mugakide ditugun herrietan egitera ohituta gaudenontzat, egunerokoa asko aldatu da. Lanera bai, osasun arrazoiak tarteko mugitzen bagara, horrela ere bai, norbait zaintzeko bada ere bidea libre... baina bestela, ahaztu. Horrela daukagu ezarrita legea.

Familia, batzuetan, mugakide dugun herri horietan dugu. Beti elkarrri begira jarrita, baina ezin elkar ikusi, ezin ukitu, ezin besarkatu,... ezin begietara begiratu!

Faltan izatea horrenbeste gauza, horrenbeste pertsona... badirudi haien bizitzen zatitxoak galtzen ari garela, eta aldi berean gure bizitzaren pasarte izateko aukera galtzen ari direla/garela. Ezina, etsipena, nekea, asperdura, nazka, bakardadea,... hain dira hitz gogorak kontrapisurik egiten ez badiegu, ezta?

Ez daukat psikologian eta osasungintzan formaziorik, baina ausartuko nintzateke esatera, sentipen hauek sakonduz eta denboran luzatuz guregan irauten badute, geure buru-osasuna ez dela behar lukeen bezain osasuntsu egonen.

Eta ez daukat gauzei alde ona ikusten erakusten duen maste-rrik ere! Baina nire etxean maiz entzun izan dut, *aurreak erakusten duela atzea nola dantzatu!* Nahiz eta oraingoan

aurrean dugun dantzakideak ez duen oso dantzazalea denaren itxurarik!

Guk badakigu dantzan, ordea! Badakigu kantuan, badakigu jolasten, txistek kontatzen, badakigu istorioak kontatzen, baita irakurri

## «IKASTEA EZ DA INOIZ ALFERRIK IZATEN, EZTA ENTZUTEA ERE»

bidaia zoragarrietan murgiltzen ere! Horrenbeste gauza dakigu egiten... Horrenbeste gauza gorputza eta arima berpizten dizkigutenak eta merke-merkeak direnak! Merkeak eta egiten errazak! Kultura handikoak gara, edozeri buelta emateko jaiok!

Gure herrietako mendietatik ondokoetara begira jarri eta gure bazterrek hobekiago ezagutzeko aukera bilatu dugu. Kanpora joan beharrik gabe gure herrian dauzkagun txokoak bisitatzeari ekin diogu. Hitz egiten ikasi dugu, lehen horrenbeste hitz eskainiko ez genion harekin. Beldurrik gabe ikasten lehen arreta jarriko ez genien gauzetatik!

Ikastea ez da inoiz alferrik izaten, ezta entzutea ere. Gure adinekoak, gure aiton eta amonak etortzen zaizkit gogora hau esaterakoan. Izan ere, entzun izanen duzue zuek ere *gazteak baleki eta zaharrak baleza* esaera, ezta? Ez nago horrekin erabat ados, baina aitortzen dut baduela arrazoitik ere. Gazteak horrenbeste du ikasteko eta zaharrak horrenbeste erakusteko...

Gure aiton-amonak oraindik gai dira jakintza hori guztia guri eskaintzeko, eta belarriak eta begiak erne edukitzea tokatzen zaigu guri! Youtuben sartu eta edozer gauza egiteko hiruzpalau tutorial ikusi eta gero, etxean edo auzoan dugunak esanen digu egin nahi dugun hori egiteko modurik egokiena zein den, eta... aizue! Herri jakintzak ez du etenik behar. Hortaz, zentzumenak erne eta atera diezaiozun zukurik gozoena egoera garratz honi. Hau guk beste inork ez du-eta goxatuko!



JOANES ILLARREGI MARZOL

## Larrialdi egoeran gaude

Gazteok larrialdi egoeran gaude. Eta ez nik esaten dudalako, edo Estatu Espainiarrak alarma egoera dekretatu zuelako mundu mailako pandemia baten baitan; datuek esaten dutelako baidetik. 2021eko martxoko datuak dira hauek (batzuk Euskal Herrikoak eta beste batzuk Hego Euskal Herrikoak), eta gako interesgarriak izan daitezke gazteon prekarietate maila ulertzeko:

- Ofizialki 16.196 gazte daude langabezia, eta kopuruak gorantz doaz (HEH).
- Emantzipatzeko batez besteko adina 30 urtetan dago (HEH).
- Gurasoen etxetik kanpo bizitzea lortzen duten gazteek, soldataren %45 alokairua ordaintzeko erabili behar dute (EH).
- 263.897 etxe huts daude (EH).

Zenbaki esanguratsuak dira ikusteko gazteria dela beste behin ere sektore kolpatuenetako bat krisi garaian. Baina ez krisi ekonomikoan soilik, krisi sozialean ere gazteok lehen leerroan egon gara eta gaude gaur egun ere, kolperik handienak jasotzen (poliziak emandakoak, askotan). Gure izatea ere galtzen ari garela dirudi, geroz eta lotuago, geroz eta otzanago egin nahi gaituzte. Gizaki izateari ere utziko diogu bide honetan jarraituz gero.

Gizakia beste animaliengandik ezberdintzen dutenak, bi ezau-garri hauek dira: Aristotelesek zioen gisan, 'animalia sozialak' garela, eta Anestesia musika taldeak zioen modura, bere burua

atxilotzen duen animalia bakarrak garela. Ez nuen inoiz usteko, baina eskerrak eman beharko ditugu kartzelak beterik izateagatik... Izan ere, animalia soziala izatearena aspaldian ahaztuta daukagu zer den ere. Elkarrekin harre-

manak izatea ere debekatu digute, gure lagunekin, etxekoekin, gertukoekin... Baita ezezagunekin ere, eta hori ere behar dugu.

Depresio eta suizidio kasuek nabarmen egin dute gora azken urtean: ezin dugu harremanak izan, aisialdia mugatu digute, etxera noiz joan agintzen digute, 'mugak' itxita daude (Cortese-ra joan naiteke 171 kilometrotara, eta ezin 8,5 kilometro egin Berastegira joateko), pandemiaren kudeaketan ez da gardentasunik egon... Neke pandemikotzat izendatu denak gain hartu digu, epe ertain-luzerako aurreikuspenik ezin dugu egin, eta nekatuta gaude gizartearen ardurak indibidualki ordaintzeaz.

Eta dirudenez, maiatzaren 9an guztia aldatuko da. Maiatzaren 10a zerogarren eguna izanen da, mundu berri baten hasiera. Alarma egoera kenduko dute, motzean lotuta dugun katea pixka bat askatuko digute, baina lotuta eta larrialdi egoeran jarraituko dugu. Marmotaren eguna bezalakoa izanen da, eguna joan eta eguna etorri, ez da ezer aldatuko; asko jota Berastegira joan ahalko gara, eta 23:00 baino pixka bat beranduago itzuli. Beste guztiak, alfonbraren azpian gordetako kaka guztiak, bertan jarraituko du. Horren aurrean, aukera bakarra dugu: antolatzea, borrokatzea, erantzuleak zein diren markatzea eta nekea eraldaketa sozialerako eta burujabetzarako grina bihurtzea. Gazteon esku dago gure oraina borrokatzea, horregatik maiatzaren 7an kalera aterako gara, legeari izena aldatu arren larrialdi egoeran jarraitzen dugula salatzen.

## 11 GALDERA LABUR

OLAIA OTXOTeko IRRATI ESATARIA ETA KOMUNIKATZAILEA

## «Erran beharrekoa ongi komunikatzea hagitz garrantzitsua da»

**Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?**

Geldirik egoten ez dakien 23 urteko lesakarra.

**Zeintzuk dira zeure zaletasunak?** Ofizialki argazkilaritza, kotxeak eta musika. Estraofizialki besta.

**Zergatik sartu zinen komunikazioaren munduan?**

Oraindik ez dut galdera honen erantzuna hagitz garbi. Kasualitatea agian... Hala ere, betitik eman dit atenzioa komunikazioak (bere arlo guztietan) gure gizartean duen botereak.

**Beti Gazteko komunikazio arduraduna zara. Zein erantzukizun dakar horrek?**

1.350 bazkideren begiak idazten eta publikatzen duzunaren gainean izatea batez ere.

**Aldaketa handiak egin dituzu?**

Ez nituzke aldaketa bezala definituko, bultzada eder bat bezala baizik. Barne komunikazioa antolatzeaz gain, elkar-tea bazkideen egunerokoa "sartzen" saiatu naiz, sare sozialetan Beti Gazteren presentzia areagotuz, adibidez.

**Nolako garrantzia dauka gaur egun edozein elkartek komunikazio estrategia on bat edukitzea?**

Izugarrizkoa. Egiten dugun guzti-guztiak zerbait komunikatzen du eta gaur egun informazioa hain eskura dugun honetan, erran beharrekoak ongi komunikatu eta kudeatzea hagitz garrantzitsua da.

**Irratian ere ibili zara lanean. Non ari zara momentu honetan?**

Euskadi Irratiko Nafarroako korrespondentsalian.



**Xorroxin Irratian egotetik Euskadi Irratian lan egitera. Aldaketa handia da?**

Xorroxin eskola izan ondotik ez da aldaketa hagitz handia izan, baina egia da lan egiteko bi modu hagitz desberdinak direla.

**Zein albiste gustatuko litzaizuke ematea?**

Momentu honetan dudarik gabe, COVID-19aren desageretzea eta horrek ekarriko lukeen 2021eko sanferminak ospatu ahal izatea.

**Zein lan nahiago duzu, irrati esataria edo komunikazio arduraduna?**

Zaila da aukeratzea, irrati baten ematen didan "saltsa" ez dit komunikazio arduradun izateak ematen... Hori bai, komunikazio arduradun izatearen lana gehiago disfrutatzen dudala erranen nuke.

**Zure asmoak etorkizunerako?**

Oraingoz esku artean dudan masterra bukatu eta gustatzen zaidan horretan lanean jarraitzea.



**Bilduma berria**

**70. urteurrena**  
urteurrena dela eta, erosketa bakoitzeko opariak banatuko ditugu

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

*Albornozak*  
*Mantelak*  
*Kuxinak*  
*Edredoi nordikoak*  
*Ohe estalkiak*  
*Maindireak*  
*Toailak*  
*Edredoi-azal nordikoak*



## IRAKURLEAK MINTZO

### Giza ekintzaileak

KONTXI ALVAREZ SAGASTIBELTZA | ANFASEKO BOLUNTARIOA

Orain dela lau urte Elizondora etorri nintzen bizitzera. Erabaki ausart horrek ustekabeko bakardadea ekarri zidan. Ezberdina sentitzen nintzen, ez nintzen egokitzen eta ez nuen harremanak izateko aukerarik. Gainera, nire berezitasunarengatik denek ezagutzen nindutela zirudien. ANFASeko boluntario egitea erabaki nuenean, aldaketa izugarria sumatu nuen. Igeriketa ikastaro batean, Eneko ezagutu nuen eta neure buruaren inguruan zebiltzan laino beltzak desagertu ziren. Elizondon, nire lehenengo laguna egin nuen.

Eneko mutiko ederra da, igerilari bikaina. Igerilekura salto egiten du, nik bizitza berriari ekin nion bezala. Oihu egiten du eta Baztango basoetako txoriek txio egiten dutenean bezain ongi komunikatzen da. Berritasunaren eta aldaketaren aitzinean, gu guztiok aurtun bezala, izutu egiten da. Eneko berezia da, desberdina, zu eta ni bezalakoa eta diferentea aldi berean.

Enekok, gaur egun denok ziurgabetasunaren igerilekuan murgilduta gaudela, erakutsi dit. Denok bizi garela gure munduan, batzuetan hitzak ez direla iristen, gure gorputzak ez duela obeditzen, beste batzuetan gure emozioek gainditu egiten gaituztela, beste batzuek guztiok izatea erabaki duten helburuetara ez garela iristen.

Eneko hazi egiten da, ume izateari utziko dio, baina, bere ezintasunetik haratago, inoiz ez dio pertsona handi izateari utziko. Bere bizitzako etapatan laguntzeko izan duen beharra ez da inoiz desagertuko. Eneko nerabea, heldua eta adinekoa izanen da, eta orduan bere antza izanen dugu. Laguntza beharko dugu, eta bertzeen mende gaudela ulertuko dugu, boluntario baten eskuzabaltasunaren mende, elkarte batek eskaintzen dituen zerbitzuen mende, senide baten presentziaren

mende... Eneko ume ahula da gaur egun, Anfasek ematen dion babesa gal dezakeelako. Gaur egun, ezin gara gure gizatasunetik gehiago urrundu. Denok igerileku berean igeri egiten dugu, hainbat gaitasunetako igerilariak gara, kalitatezko etorkizuna nahi dugu. Etorrizun horretan ANFASe (adimen- edo garapen-urritasuna duten pertsonen eta haien familien aldeko Nafarroako elkarteak) hor egon behar du.

### ANET-Tradisna, eta elkartasuna N-121-A errepidean

ALKATEAK: JUANKAR UNANUA (IGANTZI), AITOR ELEX-PURU (BERA), DABID ITURRIA (ARANTZA), LADIS SARTRUSTEGI (LESAKA), MIGUEL M<sup>e</sup> IRIGOIEN (ETXALAR), ANE OTXANDORENA (ELGORRIAGA), LEIRE ORTUOSTE (DONEZTEBE), NATALIA REKARTE (DONAMARIA), ERNESTO DOMINGUEZ (ZUBIETA), FCO. JAVIER BEREAU (ITUREN), UGUTZ ZELAIETA (OIZ), ANDRES ETXENIKE (BERTIZARANA), JON TELLETXEA (BEINTZA-LABAIEN), EVARISTO MENTABERRI (ZUGARRAMURDI), IÑAKI ARIZTIA (URDAZUBI), EDURNE BARBERENA (ARAITZ-ORKIN), ISABEL BALEZTENA (LANTZ), MIGUEL A. LARRAIOZ (ANUE), ALBERTO URDANIZ (ODIETA), MARIKARMEN LIZOAIN (OLAIBAR), PEDRO LEZAUN (EZKABARTE), ALFREDO ARRUIZ (UHARTE). MIKEL URIARTE (ORNOZ-MUGAIRI, SUHILTZAILEA). CARLOS ETXEBERRIA (UHARTEKO BIDE SEGURITASUNERAKO PLATAFORMA)

Zuen apirilaren 15eko idazkitik ondorioztatzen da N-121-A errepidean biktima bakarrak zuek ordezkatzeko dituzuen garraiolariak zaretela.

«Nafarroako iparraldeko hornitzaileak eta bertako produktuak esportatzeaz arduratzen diren funtsezko langileen aurka (hitzez hitz), 11 puntutan bidea moztuta aurkituko zutelako» salatu zenuten, eta hori, mesedez, ez egiteko eskatu zeniguten.

Zuek hori erran eta ez zenuten espero izanen guk serio hartzea?

Segidan, zera zenioten: «Anet eta Tradisnakooi lur jota uzten gaitu gure lankide, autonomo eta garraio enpresa nafarrak horrelakoei aurre egiten ikusita», baina aski ez eta, honela amaitzen

duzue: «Sektorearekiko eta Nafarroako hornikuntza-katean aritzen diren pertsona guztiakiko diskriminazio hau gelditzeko eskatzen dugu».

Lehen puntua: 11 mozketak aldi berean eta 5 minutukoak ziren, sinbolikoak. Segurtasun neurri guztiak hartu ziren. Arratsaldeko zazpitan zirela kontuan hartuta, inguruko hornikuntza ez zen kaltetu.

Bigarren puntua: gure bizilagunek ez dituzte horrelako ekintzak inoren aurka egiten, are gutiago Nafarroako garraiolarien aurka.

Baina, bizilagunekin egoteaz harro zaudeten horiek, nola azaldu diezaiokezu iritzi publikoari Amsterdameko bidean Almeriatik atera den kamioi batek, 2.311,6 km egiten dituenak, ezin dituela 22 km gehiago egin? Zuek ezin baduzue guk egiten dugu: diruagatik, euro gutti batzuegatik. Utzi biktimis-moa alde batera.

Gu hasieratik zuen tokian jarri gara. Gastu horregatik ahal den neurrian konpentsatzea defendatu dugu, holako desbideratzeak aplikatzen dituzten komunitateetan egiten den bezala. Baina, ez nahastu, ez gara Nafarroako garraiolari buruz ari, guztiak buruz ari gara. Ez dugu inor diskriminatzen.

Bertzalde, trafikoa mantsotzearen argudioa hagitz 'burutsua' da, baina ez diguzue ziri hori sartuko. Kamioi batek abiadura-mugak bide osoan errespetatuz gero (biribilguneak, bidegurutzeak...), matematikoki ezinezkoa du autobiatik baino lehen ailegatzea. Baina denok dakigu lehenago ailegatzeko direla. Baietz?

Merkantziak ezin direla A-15etik desbideratu diozue, ez delako bide paralelo bat. Baina berehala gaineratzen duzue 2+2 bide batek aukera emanen lukeela trabarik egin gabe, N-121-Arekin paraleloa izan edo ez. Paraleloa izan edo ez? A-15ak ez du balio paraleloa ez delako, baina 2+2 batek balio lezake, nahiz eta paraleloa ez izan?

# Zaindu maite duzun hori...

## Nola erran?

\* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

**\*Zein distantzia dago Arantzatik Goizuetara?** edo **Zer distantzia dago Arantzatik Goizuetara?**

Neurriekin, ZER eta ZENBAT(EKO) galdetzaileak erabiltzen dira. ZEIN galdetzailea desegokia da halakoetan.

-\*Zein distantzia dago Arantzatik Goizuetara? > Zer distantzia dago Arantzatik Goizuetara? / Zer/Zenbat bide dago Arantzatik Goizuetara?

-\*Zein pisu du zaku bakoitzak? > Zer pisu du zaku bakoitzak?

-\*Zein adin du haurrak? > Zer adin du haurrak?

Hona hemen egokiak diren bertze adibide batzuk:

-Zenbat da karratu horren azalera? / Zenbateko azalera du karratu horrek?

-Zenbat da zabal(ean) eraikina? / Zenbateko zabalera du eraikina?

-Zer alde / Zenbaten aldea atera dio bigarrenari?

## Bitxikeriak

Nola osatuko zenituzke bikoteak?

Atixa

Bibiro

Maingu

Ulitxa

Karrerape

Etxilar

Ilar biribil

Doministiku

Arkupe

Biki

Herren

Eltxo

**OHARRA 780.** TTIPI-TTAPAn osatu beharreko esaldia hauxe zen:  
**Herri hau sortzen segi dezagun euskaratik eta euskaraz.**

# Zein da zuzena?

## Betiko edo betirako?

Euskaltzaindiaren arabera, usadioa kontuan hartuta **betiko** da **forma egokia**. Hau da *aditzondo*a + *ko* forma hobetsi behar da:

-Betiko joan da.

*Betirako*ren adibide guztiak berriak direla dio Euskaltzaindiak eta beraz, *gaurko*, *biharko*, *atzoko*, *etziko*, *sekulako*, *luzaroko* eta *betiko* bezalako formak dira hobesten direnak.

## Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

## «Irrati ttipia izanagatik eragin handia du herritarren egunerokoan»

### XORROXIN IRRATIKO LANGILEAK

'Euskalduna hitza, bertakoa bihotza' lelopean, 40 urte daramatza Xorroxin Irratiak eskualdeko entzuleen belarriak goxatzen

#### R. OSKARIZ | ELIZONDO

Erratzuko gazte kuadrilla batek Jugoslaviara egindako bidaia batetik sortu zen Xorroxin Irratia egiteko ideia eta 1981ko martxoaren 19an hasi ziren lehenbiziko emankizuna uhinera Erratzuko eskolatik. Gazte talde hark irrati euskaldun eta herritarra gauzatzeko ilusioa eta ametsa egia bilakatu zuen eta gaur egun, 40 urte geroago, urratsez urrats eta oztopoak oztopo bizirik dirau tokiko hedabide honek.

#### Anitz aldatu da geroztik?

Lau hamarraldi igaro dira eta Xorroxin Irratiak aldaketa aunitz izan dituen arren, funtsean euskara eta herritarrak giltzari dira ibilbidean zehar. Herriarenak dira uhinak eta herritarrei esker bizirik dago Xorroxin Irratia. Erratzutik hasi eta teknika arloan egindako aurrerapausoak tarteko, uhinak ingurura zabaltzen joan ziren. Horrela, gaur egun, Baztan eta Bortziritan dauden errepikagailuei esker, Baztan,

Malerreka, Bertizarana, Bortziriak, Urdazubi eta Zugarramurdiraino ailegaten dira irrati uhinak. Pausoz-pauso egin du aitzinera irratiak: hasieran, aldikako musika saioez osatuak zeuden irrati emankizunak. 1985ean Elizondon kokatu zen irratia eta bi estudio izan zituen, Fortenea ostatuan eta Saskaitz plazan eta langile bati zerbait ordaintzen zitzaion eguerdiko saioa bideratzeko. Jende aunitz hurbiltzen zen irrati gogoko

musika paratzera eta jendearen harrera izugarria zen. Pixkanaka, Irurritako etxe partikular batean kokatu ondotik, urte batzuen buruan, berriz ere Elizondon kokatu ziren irrati estudioak (lehenik gaur egun Elizondoko Eskolako gela batean eta ondotik, gaur egun gauden lekuan, Maria Azpilkueta karrikan) eta lantaldea finkatuz eta tresneria hobetzearekin batera, programazioa aberasten joan zen.

#### Eta orain?

Egunero eta 24 orduz irrati uhinak zabaltzen ditugu gaur egun. Egunero zazpi orduko programazioa ematen dugu, goiz eta arratsalde, *Xorrotx eta Fin* eta *Karakola Segi Hola* saioez osatuta. Irrati saioa ez den orduetan, hainbat estiloko musika tarreak eskaintzen ditugu. Hortaz gainera, asteazken eta ortzegunero, *Bertsoinka*, *Klak* eta *Bidegurutzean* irrati saioak ere uhineratzen ditugu. Larunbat goizetan berriz, asteko errepasoa eginez, *Bide eginez* saioa entzungai izaten da. Helburuak inguru-



Xorroxin Irrati lantaldea. Ezkerretik eskuinera: Fernando Anbustegi, Marian Iñarrea, Mari Karmen Irungarai, Josetxo Apezetxea, Julen Zelaieta eta Nerea Alzuri. ONDIKOL



ko informazioa helaraztea, herritarrei zerbitzua ematea (merkatu ttipia, hileta elizkizunak...) eta entretenimendurako tarreak eskaintzea dira. Entzuleen parte-hartzea handia da, irratia ematen dituen zerbitzuez baliatzen dira eta irratsaioan zehar egiten diren lehiaketetan ere anitzek parte hartzen dute.

### Zenbat lagun ari zarete lanean Xorroxin Irratian?

Gaur egun, lantaldean sei langile gaude, hiru lanaldi osoan eta bertze hiru lanaldi murriztuarekin. Hala ere, herrietako berriemaileen, kolaboratzaileen eta noski, entzuleen laguntza ezinbertzekoa da.

### Nolako garrantzia daukate zuen kolaboratzaileek?

Herrietako berriemaileak eta hainbat arlotan parte hartzen duten kolaboratzaileak ezinbertzeko zutabe dira irratiko egunerokoan. Beraiek gabe, ezin izanen genuke gaur egun burutzen dugun programazioa osatu. Eskualdeko ia 40 herritan berriemaileak ditugu eta astean behin edo bitan berriak ematen dituzte. Bertzetik, gizarte zerbitzua, kultura, kirola, nekazaritza, abeltzaintza, osasuna, politika eta hainbat arlotan ere kolaboratzaile andana ditugu, astero, bi astetik behin edota hilero beraien kolaborazio lanak emateko. Berriemaile eta kolaboratzaileen lana eskergarria eta txalotzekoa da, borondatez, musutruk egiten baitute beraien ekarpena. Txalogarria eta estimatzekoa.

### Entzuleen aldetik nolako harrera izan duzue?

Eskertzekoa da entzuleen babesa, irratia berriz aldean daudela sentitzea. Eguneroko jasotzen ditugun dei eta mezuek, modu batean edo bertzean, hori sentiarazten digute. Datuei erreparatu, Eusko Jaurlaritzak egindako azken neurketaren arabera, Xorroxin Irratiak hartzen duen 22.500 biztanleko eremuan 6.680 entzule ditu, Euskal Herrian entzule potentzial eta errealean



Xorroxin Irratiko langileak estudioan. ONDIKOL

arteko portzentaje handiena duen euskarazko irratia da.

### GAZTE ETA HELDUEN ARTEAN INTERES BERDINA PIZTEN DUZUE?

Eskaintzen dugun programazioari dagokionez, beti bada zer hobetu. Gure gaitasun eta baliabideen arabera, gauzak ongi egiten saiatzen gara. Baina, bertzalde, badugu burutan dugun eta egiteke dugun egin-beharra ere: gure programazioaren bitartez, noengana, zein entzule profiletara ailegatzaren gaitasuna... Oraindik ez dugu azterketa zehatzik egin honen inguruan, baina, agian, gazteengana gehiago hurbiltzeko ahalegina egin behar dugula uste dugu.

### DIGITALIZAZIO ERAN SARTUTA GAUDE BETE-BETEAN. NOLA MOLDATU BEHAR IZAN DUZUE IRRATIA?

Analogikoak oraindik indarra badu ere, azken urteetan, TTIPI-TTAPAKkudeatzen duen ERRAN.

«**HERRITARREI  
ESKER BIZIRIK  
DAGO XORROXIN  
IRRATIA**»

EUSEN IRRATIA NONAHI ETA NOIZNAHI ENTZUN DAITEKE Internet bitartez eta era berean, web gunea irratiko lanekin elikatzen dugu, irratiko programazioan zehar uhineraturiko elkarrizketen eta irratsaioen podcastak zintzilikatuz.

### HAINBERTZETA EGOITZA ALDATU ONDOTIK, ESTUDIO HAUEK BEHIN BETIKO IZANEN DIRA?

Urteetan, etxe partikularretan eta Baztango Udalak utzitako egoitzetan izan ditugu irratiko estudioak. Aldaketek teknikoki eta fisikoki suposatzen zuten gastu eta nekeak ekiditeko, duela 14 urte, egoitza propioa izateko hautua egin genuen. Gaur egun Elizondon, Maria Azpilkueta karrikan dago Xorroxin Irratiko estudioa. Bertzetik, 2001 urtetik, Lesakako Udalak Alondigan utzitako gelan dugu bertze estudioa.

«**GAZTEENGANA  
HURBILTZEKO  
AHALEGINA EGIN  
BEHAR DUGU**»

### Egoera dela eta, nolabait ospatuko duzue urteurrena?

Gauzak dauden bezala momentuan ez dugu deus ere pentsatu. Hala ere, argi dugu ospakizun hoberena egunerokoan entzuleekiko harremana elikatzea dela eta horretan segituko dugu.

### ETORKIZUN ONA IKUSTEN DUZUE IRRATIAREN DAKO?

Irratiaren egunerokoan lagun anitzen borondatezko lanak luzaroan segitzea espero dugu. Era berean, eskualdeko udal eta mankomunitate nola gobernuaren dirulaguntzak ere beharrezkoak dira irratia biziraupenerako. Duela 40 urteko ilusio eta ametsek bere horretan segitzen dute, eta segi dezatela urte anitzez. Xorroxinen leloak halaxe dio: *Euskalduna hitza bertakoa bihotza.*

### AKITZEKO, ZERBAIT GEHITU NAHI AL DUZUE?

Eskerrak eman nahi dizkiegu bihotzez irratia hau egiten duten berriemaile, kolaboratzaile, entzule, laguntzaile, bazkide eta bezero guztiei, guztion artean egiten baitugu Xorroxin Irratia.



Agustina Goienetxe eta Sonia Gainza ama-alaba etxalartarrei 2007an sortetxea erre zitzaien.

## Suaren indarra eta eragindako mina

Etxalarko Oiarburu baserria 2007an erre zen, Leitzako Musun 2010ean eta Arantzako Simonenborda joan den urtean. Hiru kasuetan jabeak barrenean lotan zirela hartu zuten su etxeek. Orduan sentituko minaz eta ondoko hilabete «luze eta gogorrez» solastatu dira TTIPI-TTAPAREKIN

### G. PIKABEA

Istant batean bizia goitik behe-ti alda daitekeela ikasi dute. Arriskua bertatik bertara ezagutu dute eta suak etxea eta urteetan etxean gorde eta sortutakoa nola kendu dien begi aitzinean ikusi dute. Gertatutakoa ez dute atzendua eta gogorra egiten zaie solastatzea, baina TTIPI-TTAPAREN gonbitari baiezkoa eman diote Agustina Goienetxe Danboriena eta Sonia Gainza Goienetxe Etxalarko ama-alabek, Migel Sagastibeltza Villabona leitzarrak eta Xalbador Madariaga Elizondo

arantzarrak. Hiru kasuetan etxe barrenean lotan zirela hartu zien su baserriak eta kalte materialak handiak izan baziren ere, zorionez, eurek onik atera ziren.

### Etxalarko Oiarburu baserria

Ekaitz handiko egun batean erre zen Etxalarko Oiarburu baserria, 2007ko abenduaren 10ean, Sonia Gainza alabaren hitzetan, «trumoika fuerte» ari zuen egun batean: «02:40 aldera etxean bonba gisako bat lehertu zela sentitu genuen. Izutua ernatu nintzen. Gure

solairuan, argindarraren kaxa xehatua lurrean ikusi nuen eta gurasoen gelara joan nintzen». Amak heilara jo zuen lehenbizi eta «argirik gabe, dena ilun» zegoela ikusi zuen. «Goiti» joan zen gero, eta «beroa sumatu nuen. Goian genuen landetxea arratsalde hartan utzia zuten

### «HALAKO ZERBAIT IRENSTEA EZ DA ERRAZA»

GAINZA-GOINETXE FAMILIA, ETXALAR

turistek eta berogailua piztua utzia izanen zutela pentsatu nuen». Hori baino makurragoarekin egin zuen topo: «Ganbaran kristoren sua ikusi nuen».

«Beheko mangera» hartzen saiatu eta zerbaitekin nahi izan zuen Goienetxek, «baina ezin zen deus egin. «Ganbaratik segidan gure bizitzara jaitzi zen sua, baita heilara ere», kontatu du alabak. Eta amak «heia, gure bizitza, ganbara, landetxea eta landetxe gainean genuen ganbara koxkorra... Dena erre zela» gaineratu du: «sega-makina, motozerrak, etxeko eskriturak, arropa, josteko makina, argazkiak...». Gainzak «erre ez zena bustita hondatu zela» dio eta hala, «deus gabe gelditu ginen, arrats hartan etxetik ateraginen bezalaxe».

### Tximistaren arrastoak nonahi

Tximistaren zartako batekin hasi zen dena. Goienetxek «instalazioa berri-berria» zutela gogoratu du, baina suak ez zuen barkatu. Alabak argitu

duenez, «ez ziguten inoiz garbi erran tximista nondik sartu zen. Nonahi arrastoak utzi zituen. Etxearengaineko aldean bi arbola lehertu zituen, lurrean arrastoa utzi zuen, herrira joan zen telefonoaren kabletik...».

Ama-alabekin batera, aita eta amatxi bizi ziren baserrian eta «denak atera eta euria ari zuenez terraza azpian egon ginen». Begi-bistan ikusi zuten baserria kiskaltzen, eta «ezin izan genuen deus egin gure bizitza guztia erretzen ari zela ikusita. Inpotentzia handiko momentuak izan ziren».

Agudo eskatu zuten laguntza. Amak «Etxalarako guardia zibilei eta auzotarrei deitu» zien, «buruz nekizkien telefonoak markatu nituen eta segidan etorri ziren. Etxetik oinarrizkoa atera nahi izan nuen, arropa eta hain maitea nuen josteko makina, baina guardia zibilek ez zidaten utzi».

#### Ondoko hilabete «luzeak»

Suak «lau paretetan» utzi zien sortetxea eta dena hutsetik hasi behar izan zuten. Ondoko hilabeteak ez omen ziren samurrak izan. «Egunero» egiten zuten baserrira bisita eta ama-arentzat tentsio handiko asteak izan ziren: «fabrikatik aterata baserrira joaten nintzen, handik herrira lotara, goizean ernatu eta martxa fabrikara». Horrela «denbora luzez» ibili zela dio, urtebete eta gehiago behar izan baitzuten baserria berriz zutik paratzeko. Buelatu bitarteko denbora «luzea» egin zitzaizela onartu dute, eta aukera izan zuten bezain agudo bueltatu ziren: «bizitza egin eta segidan». «Amatxi adin batean zegoenez, eta fabrikari ari nintzenez, landetxea ez genuen egin».

#### «Atzenduko ez dugun laguntza»

Lo egiteko idorrik gabe, senideek eta herritarrek utzitako etxeetara jo zuten. Hasteko, «20 egun pasatu» zituzten senitartekoen etxean, eta handik Iriondora joan ziren, «herriko familia batek etxea utzi zigun».



Suak erabat kiskali zuen Etxalarako Oiarburu baserria.



Leitzako Musun baserrian piztutako sutea itzaltzen.



2020ko ilbeltzaren 3an itxura hau hartu zuen Arantzako Simonenborda baserriak.

Ez ziren borondatea erakutsi zuten bakarrak izan, eta hori nabarmendu nahi izan dute: «hasieratik laguntza handia hartu genuen. Sua itzaltzera jende aunitz etorri zen, obra egin bitartean etxe aunitz eskaini zizkiguten eta hondakinak ateratzen aunitz lagundu ziguten. Bankuetan kontuak ireki zituzten, Toki Ona institutuan saski batzuen zozketa egin zuten eta udalak ere lagundu zigun». Elkartasun «handiaz»

mintzo da, «auzoan, herrian, udalean, ondoko herrietan...» sumatu zuten babesaz. Alabaren hitzetan, «oraindik esker-tzen dugu eta ez dugu atzen-duko».

Aurten beteko dira hamalau urte gertakari ilun hark Oiarburuko familia astindu zuenetik eta «kontakten hasita negar egiteko gogoia heldu zaigu». Gehiago ere bada. «Oraindik ere trumoika hastean beldurka ibiltzen gara». Gainera, ber-

tze ustekabeko bat ere izan zuten joan den udan, «telefono lineatik tximista sartu» zitzaizenean. «Heian dagoen telefono linearen kaxa lehertu zen eta ikara ederra hartu genuen, baina horretan gelditu zen». Beldurra «beti hor dagoela» eta «halakoak irenstea ez dela erraza» diote, baina aldi berean argi dute «biziak aitzinera segitu behar duela».

#### Leitzako Musun baserria

Migel Sagastibeltza Villabonari (Leitza, 1942) duela hamaika urte erre zitzaion sortetxea, Musun baserria. «Egun lasaia» izana zen eta halaxe zegoen lotan 2010eko otsailaren 28ko gau hartan ere, «04:00-04:30 aldera oiloen garrasiek esnatu» zuten arte. Hortik aurrerako «desastrea» ez dio inori desio.

Aurrenean, «oilok erotu» zirela pentsatu zuen, baina «argia joan zela» ohartuzenean zerbait gehiago izan zitekeela pentsatu zuen: «goratu nintzen eta sarreran azpitik dena gorri-gorri ikusi nuen». Segidan deitu zuten larrialdietara, eta «05:00-etarako foralak hemen nituen». Bere aldetik, soinean ia deus ez zuela eta, arropak atera nahi izan zituen, eta poliziarengandik «eskapatu» ere egin omen zen zerbait hartzeko, «baina kanpora atera ninduten eta soinean nituen galtzekin eta bilatu nuen alkandorarekin gelditu behar izan nuen». Polizien ondotik, suhiltzaileak ailegatu ziren, baina «kamioi handi samarrarekin etorri ziren eta pista estua zenez, kamioia ia erre kara joana gelditu zen. 400 metrotik bota zuten ura, baina ordurako sua indartua zen eta sua izan zen jabe».

Azkenean «dena erre» zela dio Sagastibeltzak: «ukuilua, bizitza eta ganbara. Perituak paretak ere deusetarako ez zirela esan zuen». Kolpe handia hartu zuen, «asko» galdu baitzuen «jaio, hazi eta bizi nintzen 300 urteko etxea» erreta. «Deusgabe» gelditu zen: «ez zen ez traktore, ez sega-makina ez deus gelditu, traste guztiak →



Miguel Sagastibeltza leitzarrak kolpe handia hartu zuen eta «norberari gertatu arte ez daki inork zer den hori».

kiskali ziren». Ez hori bakarrik: «ardiak nolabait atera nituen, baina oiloak eta txekorra bertan erre ziren. Hura miseria... Norberari gertatu arte ez daki inork zer den hori».

Lasaitasunetik gutxi izan zuen egunari osasun zentroan eman zion segida: «kea arnasteagatik obserbazioan eduki ninduten. Tentsioa eta dena altxatuak nituen, dena hankaz gora». Aukera eman zioten orduko sortetxera itzuli zen, eta «foralen galderei» erantzun behar izan zien: «norbaiten erreze-lorik banuen galdetu zidaten, eta nik ezetz erantzun nien». Azkenean «ukuiluan kable bat erre bilatu zuten» eta suaren abiapuntua huraxe izan zela ondorioztatu zuten.

#### Buruhausteak

Sagastibeltzaren arabera, sua ez zen egun bateko kontua izan, «egunetan egon zen». Eta egun haiek ez ezik, ondoko hilabeteak ere «ikaragarri luzeak eta gogorrak» egin zitzaizkion: «18 hilabete egin nituen herrian, baina egunero etortzen nintzen. Baserrira etortzen nintzenerako karabana jarri zidaten, eta negu bizian hotz ederra pasatu nuen». Hala ere, are okerragoa egin zitzaion baserriarekin zer gertatuko zen ez jakitea: «paperekin burutik gora bukatu nuen. Perituarekin eta aseguru-etxearekin astero biltzen ginen» eta dioenez, buruhauste franko izan zituen: «ez zen erraza izan aseguru-etxea nola partatuko zen eta

etxea nola egingen zen jakin gabe egotea. Esatea erraza da baina 18 hilabete horietan ez nuen ia lorik egin, eta gorriak pasatu nituen». Atsedean hartu zuen «aseguruak bere gain hartuko zuela esan zidatenean».

#### Babesa eta elkartasuna

Estualdi horretan, ordea, ez zen bakarrik sentitu, bidelagunak izan zituen. Alde batetik, «paper kontuetan koinatak emandako laguntza» nabar-

## «HURA MISERIA... GORRIAK PASATU NITUEN»

MIGEL SAGASTIBELTZA, LEITZA

mendu du: «Beharrik koinatak asko lagundu zidan, baita eta Gabriel Saralegik ere. Gainerakoan, gu bezalakoa holako kontuetan motz gelditzen da».

Bestetik, etxea ere eskaini zioten. Hasierako «hiruzpalau egunetan anaiaren etxean» hartu zuen aterpea, eta «gero auzokoez, Goiko bordakoez, herrian etxea utzi zidaten. 18 hilabete pasatu nituen han eta Asteitzaga baserrikoek, berriz, ardientzat tokia utzi zidaten».

Bihotzez eskertu nahi izan du alde batera edo bestera eman zioten laguntza, eta orduko jaialdiak ere bihotzean ditu: «dirua biltzeko herri kirol eta kantu jaialdi handiak egin zituzten Leitza eta bietan plaza bete zen». Horrez gain, «bankuan kontua ireki zuten eta herritarrek eta herritik kanpokoek ere lagundu zuten». Haietako bakoitza gogoan du Sagastibeltzak: «jendeak asko lagundu zidan, borondate handia erakutsi zuen eta lagundu ziguten guztiei eskerrak eman nahiko nizkieke, besterik ezin diet egin».

#### Arantzako Simonenborda

«Barrenean ez zen deus onik gelditu, ezta jostorraz bat ere, baina andrea dela medio, bizirik atera ginen». Halaxe kontatu du Xalbador Madariaga Elizondok (Arantza, 1930). Ez du atzendua, ezta aise atzenduko ere joan den urte hasiera. Oraindik ere begiak malkotan dituela mintzo da 2020ko ilbeltzaren 3az.

Madariaga bera eta Sekundina emaztea ohatzean harripatu zituen suak arrats hartan. «21:00etatik 22:00etarako tartean izan zen, lo geundenean». Andreak sumatu zituen lehenbiziko seinaleak eta «beharrik» dio Madariagak, «bertzela, biek hantxe erreko ginen».

«'Xalbador, zer dira soinu horiek?' erranez ematu zidan andreak, eta nik 'egizu lo, ez da deus ere' erantzun nion». Baina andreak berriz eman zion solasa: «Argiak joan zirela abisatu zidan eta 'arraioa zer



Sekundina Bergara eta Xalbador Madariaga senar-emazteak Simonenborda baserriko terrazan. Guttigatik libratu ziren 2020ko ilbeltzean baserriak su hartu zienean.

pasatu ote da?' pentsatu nuen». Mesanotxeko linterna hartuta atera zen gelatik eta atea ireki orduko kea sentitu zuen: «etxea ketan zegoen». Kanpora abiatu zen eta «sarrerako atea ireki nuenean suak indarra hartu zuen». Etxe atarian zela «goia dena sutan ikusi nuen, sua hagitz fuerte indartua zen eta ordurako dena hartua zuen».

Ganbara agudo beheiti eroriko zen beldur, «andrea ohatzetik tiran atera nuen, zegoen bezala, kamisoiarekin, ez oinetako eta ez bertze deus». Bera ere «ardi bordan edukitzen nituen bi zapatila zahar eta txaketa bat hartuta» moldatu zen. Edozein moduz, hori baino lehen, «barrenera sartu eta eskopeta zahar bat hartzeko» denbora izan zuen, eta «kanpora atera eta bortz tiro bota nituen jendea konturatzeko, eta laguntza eskaka oihuka hasi nintzen». Guttigatik libratu ziren, «andreak soinuak sumatu eta sei-zazpi minuturen buruan, goia dena erori zen».

### Ezin deus egin

Laguntza eskatu eta berehala etorri ziren bizilagunak, Tuanekeo bordakoak, «non ginen galdeka etorri ziren, ongi ginen galdeka... Biak ongi ginela eta barrenean bertze inor ez zegoela erran genienean, bordako ardiak atera zituzten, eta gu goitiraxeago eramana zintuzten. Andreari arropa eta zapatilak eman zizkieten».

Senitartekoak eta herritarrak ere agudo ailegatu omen ziren, «baina ezin izan genuen deus egin. Goiko suak ordurako indar ikaragarria hartua zuen eta dena kiskalia gelditu zen. Erre ez zen apurra hondatua gelditu zen, ez zen deus onik gelditu», dio Madariagak hunkituta. Hantxe gelditu ziren «gure oroigarri guztiak, puskak, andrearen alajak, arropak, jatekoarekin betetako hiru izozkailuak, trikitixa zaharra, Frantzian lanean ibili nintzeneko arpana zaharrak... Familia handia gara eta denen gauzak izaten ziren hemen... Dena galdu genuen».

Egun «triste» ez du atzendua, baina «ondoko egunak ere» halakoak izan ziren beretzat. Egun hartan bertan «semeak herrira eraman gintuen. Lesakatik medikuak segidan etorri ziren eta pastillak eman zizkiguten». Baina ez zioten mina arindu: «lehendabiziko bi hilabeteetan zortzi kilo galdu nituen. Pastillak ematen zizkidaten baina ez nuen lorik egiten». Oraindik ere ez zaio aldendu amesgaiztoa: «gauez ernatzen naizenean ez da oroi-tu gabeko egunik izaten».

Zazpi hilabeteren buruan bueltatu ziren Simonenborda senar-emazteak, eta «nahiko agudo» egin bazuten ere, «beretzat gogorra» izan zen. «Barrena pixka bat prestatua

izan orduko» jo zuten baserri- ra, eta «oraindik bukatu gabea» badute ere, «konforme eta kontent» dago: «Hemen gustura bizi gara». «Ez dugu deusen faltarik» eta falta dena, «poliki-poliki» egingen dutela dio: «barreneko sukaldea, ganbara, kamioiak sartzeko hondatua gelditu zen txabola, sarrerako portxea... Badugu lana, baina ez dugu apururik».

### Eskerrak

Bidean hartu duten laguntza ere ez du aipatu gabe utzi nahi izan. Batetik, «aseguru-etxea hagitz ongi portatu dela» eta bertetik, jendearen erantzuna nabarmendu du: «jende on aunitz harrapatu dugu eta ba-koitzak posible duen moduan aunitz lagundu digu, bai herritarrek baita herritik kanpo-koek ere». Ez beharra izan zenetik urte eta erdira «oraindik ere laguntza ematen digutela» gaineratu du, eta «guztiei eskerrak eman nahiko nizkieke. Ez dugu sekula aski eskertuko».

## «ANDREA DELA MEDIO BIZIRIK ATERA GINEN»

XALBADOR MADARIAGA, ARANTZA

## Aziendetik hurbil zakurrak lotzeko araudia onartu dute

Azken aldian zakurrek azienari egindako erasoak areagotu egin direla salatu du udalak eta ordenantza egin du

### TTIPI-TTAPA

Azken aldian zakurrek azienari egindako erasoak areagotu egin direla salatu du Udalak. Zakurra kontrolpean izatea jabearen ardura dela oroitarazi dute.

Pandemia dela eta, jendeak mendira joateko ohitura handiagoa duela erran du udalak bidalitako bandoan. Honenagatik, jabearen kontrolpetik kanpo dauden zakurrek azienari egindako eraso kopurua handitu dela eta hainbat abere zauritu eta hil direla salatu dute. Apirilaren 21ean egin

zuen bilkuran, udalak behin betiko onespena eman zion Beran animaliak eduki eta babesteari buruzko udal ordenantzari.

**Azienden hurbil zakurra lotua** Ordenantzaren arabera, ardi, behi, zaldi eta ahuntzak hurbil daudenean, zakurra lotu egin beharko da, azienari trabarik edo kalterik ez egiteko. Jabearen ardura da zakurra kontrolpean izatea, eta araua betetzen ez dutenen kontra, zigorren bidea hartuko duela ohartarazi du udalak.

## XXXIV. Bertso-paper lehiaketara lanak maiatzaren 14ra arte aurkez daitezke

Bortzirietako Bertso Eskolak eta Berako Kultur Batzordeak antolatuta Baztan-Bidasoko XXXIV. Bertso-paper lehiaketa egingen dute aurten. Parte hartzeko epea maiatzaren 14an bukatuko da.

Parte hartzaileek paperean (*Berako kultur etxea; Baztan-*

*-Bidasoko XXXIV. Bertso-paper Lehiaketa; Eztegarapasealekua, 11; 31780 BERA*) rean edo posta elektronikoz (*kultura@bera.eus*) helbidera bidali beharko dituzte. Artxihoak soilik PDF formatuan onartuko dira. Xehetasun gehiago TTIPI-TTAPAREN 778. zenbakian.



UTZITAKOIA

## Kultur Etxea bete zuen Rüdigerrek

Aurten atera duen diskoa aurkeztu zuen Rüdiger artistak bere biziterrian; *Before it's vanished*. Lan hau sortzeko Botibol taldeko musikariak (Thea Guerin, Vincent Bestaven, Antoine Philippe), Joseba Irazoki gitar-jole beratarrak (argazkian berekin), Marina Beheretche biolinista eta Maia Ibar izan ditu laguntzaile.



UTZITAKOIA

## Unai Garro 4. Errandonea Memorialean

Gure Txokoak antolatuta, junior mailako txirrindulariei zuzendutako Felix Errandonea Memorialaren 43. edizioa egin zuten apirilaren 25ean. 70 bat lagun aritu ziren boluntario lanetan lehenbiziko aldiz Garaitarreta auzotik pasatu zen itzulian. Unai Garro beratarrak laugarren izan zen, podiotik urrats batera.

**Jauzena**  
Denda. 948 631 217  
T. 630 136 863  
Julio Caro Baroja, 6 - BERA  
jaurenabera@gmail.com

**Elektrizitate lanak orokorrean**  
**Erreformak, etxe berriak**  
**Lantegietako mantenu lanak**

Etzetresnen salmenta, instalazioa  
eta etxez etxeko konponketa  
Antenak, satellite bidezko instalazioak

**LABE ZAR**  
948 631 076 • BERA

Astelehenetik  
ortziralera:  
07:15etik  
aitzinerara

Larunbata  
eta igandea:  
08:00etatik  
aitzinerara

**ERRANDONEA. S.L.**  
BILTEGIA: 948 630 102  
SAKELAKOIA: 633 480 563

Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

**Alberto RETEGI**  
abokatua  
abokatua  
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

**Zalain**  
JATETXEA RESTAURANTE

**Eramateko janaria**  
astelehenetik ortziralera

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

# EGUNEKO EGONALDIA

## SAN JOSE ZAHAR ETXEA

Kanttonberri, 14 - BERA - 948 63 01 04



 **Lares**  
navarra

Asociación navarra de residencias y servicios de atención a los mayores -sector solidario-

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



Berako **San Jose Zahar Etxean** 65 urtetik goitiko pertsonak zaintzen ditugu. **Eguneko egonaldian** adinekoek egunez arreta jasotzeko aukera dute.

10 plaza ditugu, eta erabiltzaileek (autonomoek zein mendekotasuna dutenek) arreta profesionala eta espezializatua jasoko dute.

- Garraio egokitua.
- Elikadura.
- Zaintza profesionala eta erizaintza.
- Fisioterapia, terapia okupazionala, suspertze soziokulturala, psikologia, podologia, ile-apaindegi zerbitzua, erlijio zerbitzua.
- Sukaldea bertan.
- Ordutegi malgua (bakoitzaren beharretara egokitua)



Gaizka Sarasola eta bertze egileak, liburuaren aurkezpenean. ARMIARMA

## Gaizka Sarasolaren 'Zerrakurak' liburua argitaratu dute

Susa argitaletxeak eta EHAZE elkarteak sustatutako Ganbila liburu bilduman 'Txoriak eta zauriak' eta 'Iluntzan' biltzen ditu

### TTIPI-TTAPA

Susa argitaletxeak eta EHAZE Euskal Herriko antzerkizaleen elkarteak 2019an jarri zuten abian euskal antzerkiari eskainitako Ganbila liburu bilduma, eta hirugarren edizio honetan ere hiru liburu argitaratu dituzte. Horietako bat da Gaizka Sarasolak Mairu Antzerki Tailerrarekin elkarlanean egin duen *Zerrakuretan*.

*Zerrakuretan* antzerki liburuarekin batera, Jon Gerediaga-ren *Dama* eta Agus Perezen *Aititaren betaurrekoak* dira aurten argitaratu dituztenak. Gaizka Sarasolaren bi antzer-

ki obra bildu dituzte *Zerrakuretan* liburuan, *Txoriak eta zauriak* eta *Iluntzen*. Mairu Antzerki Tailerrarekin batera idazlearen ibilbideko azken bigeltokiak dira. 2016ko *Erleak*, *satorrak*, *beleak* liburu gogoangarri hartan bezala, oraingoan ere egilea partaide den komunitatea topatuko du irakurleak: gaurko jendartearen galderak, gogoetak eta zalantzak, gozamenerako eta hausnarketarako, surrealismoz eta absurdoz jantziak.

Maidar Arrietak egin du azala eta Manex Fuchs aktoreak idatzi du hitzaurrea.

## Bortzirietako mutxikoen topaketa maiatzaren 15ean Lesakan

### TTIPI-TTAPA

*Bortziriak dantzan* ekimenari segida emanez, hilabeteko hirugarren larunbatean mutxikoak dantzatzeko biltzen hasi dira hainbat herritar. Apirileko hitzordua Etxalarren egin zuten eta maiatzekoa, hilaren 15ean, Lesakan egingen

dute. 18:00etan plazan bilduko dira eta Bortzirietako herritarrei parte hartzeko deia egin diete. Eguraldi txarra baldin bada, hurrengo astera gibelatuko dute hitzordua. Hala, txandaka Bortzirietan herriz herri mutxikoak dantzatzen ibili nahi dute.

## I. Señora bertso sariketaren finala larunbatean Arranon

I. Señora bertso sariketako finala maiatzaren 8an, larunbatean 17:00etan jokatu dute Arrano ostatuko terrazan. Haizea Arana eta Miren Arretxe izan dira Aramaioko lehenengo kanporaketan irabazleak eta Saioa Alkaiza eta Paula Amilburu Mutrikuko bigarren kanporaketako sailkatuak. Larunbatean lau finalistak egunean berean ezagutuko diren bertze bi bertsolarirekin ibiliko dira kantatzen Lesakan txapela lortzearren. Online sarrerak agortuak daude da-goeneko.

## Liburu aurkezpena eta antzeki saioa datoz maiatzean

Carlos Aurensanz idazlearen *La puerta pintada* liburuaren aurkezpena eta eztabaida egingen dute maiatzaren 14an, ortziralean 18:30ean Harriondo kultur etxean.


Maiatzaren 22an eta 23an, berriz, Xavi Morató kataluniarrak idatzi eta zuzendutako *El hombre de hojalata* antzerki-komedia ikusgai izanen da Harriondoan. Larunbateko emanaldia 19:00etan hasiko da eta igandekoa 18:30ean. Sarrera 5 euro kobratuko dute eta emankizuna gaztelaniaz izanen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Erakusleihoa Maixus Zubietarentzat

Zerbitzuen Elkarteak herrian erostea sustatzeko antolatutako *Asmazan prezio zehatza* kanpainako saria Maixus Zubietak eskuratu du. Erakusleihoko produktuen prezio zehatza 1.151,46 euro zen eta hamasei lagunek 1.150 euro paratu zuten. Zozketa egin eta Zubieta izan da saridun.



## F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailea jartzea  
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679



# Bortzirietako eskola publikoak

Ricardo Baroja IP (Bera)  
Landagain IP (Etxalar)  
Irain IP (Lesaka)  
Toki Ona BHI (Bera)  
Arantza IP  
Igantzi IP

**EUSKALDUNA  
DOAKOA  
KALITATEZKOA**

**Adi!**  
Matrikulazioa  
maiatz erdialdean  
izanen da

Arantzako Herri Eskola

Berako Ricardo Baroja Eskola

Toki Ona BHI

Igantzikoko Herri Eskola

Lesakako Irain Eskola

Etxalarko Landagain Eskola

Inklusiboa,  
orientazio  
psikopedagogikoa

Jantoki eta garraio zerbitzua,  
bertan egindako janaria

Beka jasotzeko aukera

Irteera eta jarduera  
osagarriak

Ikasle bat chromebook bat

Ingelesa eta frantsesa

BIDEOA >>>>



KALITATEZKO IKASTETXEA  
CENTRO DE CALIDAD

Nafarroako Gobernua Hezkuntza Departamentua  
Gobierno de Navarra Departamento de Educación



2 urtetik 20 urtera arteko hezkuntza jarraian eta elkarlanean

Igantzi, Etxalar eta Arantzako herri eskolak

## «Bertze haurrekin egotea da inklusioaren gakoa»

**BELEN COMPAINS ETA NAGORE ARRETXEA** PEDIATRA ETA 'GUZTIOK'EN ADMINISTRATZAILEA

Behar bereziak dituzten haurren familien Bortzirietako elkarte da Guztioak. Aurten, haurtzaroaren garapenerako 14. jardunaldia egingen dute Lesakan, haur berezi hauen elikadurari buruz

**R. OSKARIZ** | LESAKA

1993an ailegatu zen Belen Compains pediatra Lesakako Osasun Zentrora. Geroztik, desgaitasunak dituzten haurren eskubideen alde borrokan aritu da. Hainbat jardunaldi antolatu ditu, eta 2013an egindakoan hainbat familia elkartu ziren, Nagore Arretxearena barne, Guztioak taldea osatzeko. Eskualdean ez zituzten baliabideak ekartzeko asmoa zuten.

**Nola hasi zen dena?**

**Belen Compains:** Honat ailegatzean *Eskola porrota* programa zegoen. Osasun, hezkuntza eta gizarte zerbitzuen artean desgaitasun programa batean bihurtu genuen eta 2003an ELAIA (haur eta nerabeen arretarako lekuko taldea) elkarte sortu genuen. Gure helburu nagusia arreta berezia deszentralizatzea izan zen, Iruñetik atera eta bertze eskualdetara eramateko. 2005ean lortu genuen Nafarroa osoan deszentralizatzea, eta posible zela ikusita, desgaitasunaren lehenbiziko jardunaldiak antolatzen hasi nintzen. Hagitz ekimen konpletoa zen, baina bertan behera gelditu zen; hezkuntza sailekoek ez zituztelako desgaitasunak dituzten haurrak aintzatesten eta gizarte zerbitzukoek hain haur guttirezako gehiegi zela erran zuten. Lanean segitu genuen eta duela 15 urte lehenengo jardunaldia egin genuen, AN-FAS eta ASPACE elkarteekin batera. Bertan, Bortzirietan,

desgaitasunak dituzten 42 haur zeudela ondorioztatzen zuen txostena aurkeztu nuen. Ezustekoa handia izan zen. Hala ere, ez ziren denak desgaitasuneko haurtzat onartuak izan, ez zitzaion ikusgaitasunik eman nahi. Urtero jardunaldiak antolatzen segitu genuen eta zerbitzu gehiago lortzen; arreta goiztiarra, musika-terapia, hidroterapia... 7. jardunaldian, 2013an, bertzelako desgaitasunengatik behar bereziak dituzten haurrak badirela konturatu ginen; bihotzeko arazoak dituztenak, digestio-arazoak dituztenak, sorrak... Orduan sortu zen Guztioak taldea, familia hauen beharrak identifikatzeko. Ez da lan erraza, estigmak hor daude, eta ez bada ezagutarazten, baliabideak eskasak izanen dira.

**Zein da elkartearen helburua?**

**Nagore Arretxea:** Eskualdean ez ditugun baliabideak ekarri nahi ditugu, hemen ez baitugu arreta berezia emateko zerbitzu aunitzik. Jendea ez da konturatzen haurren terapiak zein garestiak diren, dirulaguntzak beharrezkoak dira. Badira lan egiteari utzi behar izan dioten gurasoak, seme-alabaren arreta bereziak denbora gehiegi eskatzen duelako. Hezkuntza berezia garestia eta nekagarria da aunitzetan. Gainera, elkartearen pentsatzean, jendeak desgaitasunak dituzten pertsonekin lotzen gaitu beti eta beldurra ematen die sartzeari. Argi utzi nahi dugu ez garelako desgaitasunak dituzten haurren elkarre bat bakarrik, edozein behar berezi dituen haurrena baizik.

### Bortzirietako Haurtzaroaren Garapenerako 14. Jardunaldia

Lesakako Kultur Etxean egingen dute aurtengo jardunaldia, maiatzaren 15ean, 09:30etik 12:30era. Behar bereziak dituzten haurren elikadura eta nutrizio arloko erronkak izanen dira solasgaia, Belen Compains pediatraren eskutik. Guztioak elkarteak, Lesakako Udalak, Lesakako Osasun Etxeak eta Obra Social LaCaixa antolatu dute ekimena.

**«HEZKUNTZA BEREZIA GARESTIA DA»**  
NAGORE ARRETXEA, GUZTIOK

**«EREKURTSO ETA ONARPEN FALTA DIRA ARAZOAK»**  
BELEN COMPAINS, PEDIATRA

**B.C.:** 'Desgaitasuneko' jardunaldiak 'garapenerako' jardunaldiak izatera pasatu ziren. Familia gehiago sartu ziren eta Bortzirietan haurren garapenerako zentro bat sortzea pentsatzen hasi ginen. Hiru behar betetzeko asmoa genuen ideia honekin; lehenengoa, lokal propioa edukitzea, bertze elkarteengandik bereizi eta argi uzteko edozein behar duen haurrentzako dela; etorkin familietakoak, obesitatea daukatenak... Mankomunitateak ez zuten hau posible ikusten, garestiagia zela eta guttiegi ginelakoan. Elkarteak orduan independizatzea erabaki zuten, bere egoitza eta estatutu propioekin. Bigarren beharra psikologia zerbitzua zen; psikologo bat lortu genuen, baina haur eta helduentzako zenez, hagitz erabilera mugatua zuen. Bizpahiru urte iraun zituen zerbitzu horrek. Gure hirugarren beharra eskualdean haurren garapenerako dauden baliabideen gida bat egitea zen; musika eskolak, kirolak, terapiak... Baliabiden gida egin zuten, baina desgaitasunak dituzten haurrentzako bakarrik, hagitz mugatua zena.

**Gaur egun, zein egoeratan dago haur haurrentzako arreta?**

**N. A.:** Elkartearekin hainbat terapia ekartzea lortu dugu; fisioterapia, hidroterapia, psikologia zerbitzua, zakurrekin egindako terapia, birgaitze neuronal, *Hermanos Txikis* tailerra... Baina batzuk hagitz mugatuak dira. Fisioterapia zerbitzua, adibidez, ikastetxean ematen dutenez, udan eta oporetan zerbitzurik gabe gelditzen gara, eta Enaitzek, nire semeak, egunero behar duenez, gure kontu bilatu behar dugu eta gure sakelatik ordaindu.

**B.C.:** Hagitz bide gorabeheratsua da arreta berezia, zaila baita mantentzeko. Bilakaera ona izan du, lehen etxean gelditzen zen kontua zen eta orain agerikotasuna ematen zaio. Hainbat baliabide lortu ditugu. Hala ere, oraindik aunitz dago egiteko eta ikasteko, hau nire-



Belen Compains Lesakako Osasun Zentroko pediatra eta Nagore Arretxea Guztiok elkarteko guraso eta administratzailea.

tzako ikasketa prozesu bat ere izan delako; ez da berdina liburuetan garun paralisia ikas-tea edo Enaitz ezagutu eta hezten ikustea eta bere ama ezagutu eta oztopo hauek gainditzeko laguntzea. Hezkuntza berezi eta egokitua konplexua da; niretzat Enaitz paziente bat da, eskolakoentzat ikasle bat, etxekoentzat seme bat eta gizarte zerbitzukoentzat erabil-tzaile bat. Garrantzitsua da denon artean ulertzea eta koordinazio sare bat egitea.

**Hautzaroaren garapenerako 14. jardunaldia eginen duzue aurten. Haurren elikadura eta nutrizioaren arloko erronkei bideratuta, ez?**

**B. C.:** Bai, oinarrizko zerbait badirudi ere, behar bereziak dituzten haurrak elikatzea erronka bat izan daiteke familiarrentzako. Haurra eduki eta hazterako prozesuan hainbat arazo sor daitezke: haurdunaldiko elikaduran, ume goiztiarren arazoak, zunda bidezko elikadura behar dutenak, bi-beroi erabiltzera ohitzea,

intolerantziak, aho bidez elikatu ezin direnak, diabetesa... Gainera, badira arrazoi organikorik gabe elikagai mota bat ukatzen duten haurrak. Zentro eta ikastetxe gehienek ez daukate hau dena maneiatzen dakiten espezialistarik, eta familia nahiz jangeletan formakuntza minimo bat edukitzea behar-beharrezkoa da.

**Nola hobetu daiteke haur hauen inklusioa gizartean?**

**N. A.:** Gaia oraindik estigmatizatua dago eta aitzinera egin dugun arren, bada lana. Pixkanaka, ikastetxeetan sartzea lortzen ari gara; Berako Ricardo Baroja ikastetxean ireki genuen eskualdeko lehenbizi-ko hezkuntza bereziko gela, eta Toki Ona institutuan beranduago. Hala ere, honek bertze galdera bat planteatu zigun; haurrak gela berezietan sartzea inklusiboa edo esklusiboa da? Ikastetxeetan sartzen dira, baina gela batean baztertuak segitzen dute. Behar bereziak dituzten haurrek ez dute

bertzeengandik ikasten eta bertze hurrek ez dute haiengandik ikasten. Nire semea txikitatik ezagutu izan dute bertzeek eta badakite zer egin dezakeen eta zer ez. Bertze hurrekin egotea da inklusioaren gakoa.

**B. C.:** Errekurtso eta onarpen falta dira arazo guztien oinarria. Alde batetik, gobernuak osasunean eta hezkuntzan egingo dako murrizketek kalte handia egin dute dirulaguntzetan batez ere. Arreta berezia eskaintzen duen laguntzaile bakarra dauka zentro edo ikastetxe bakoitzak, eta horrek arreta pertsonalizatua aunitz mugatzen du. Arreta horren beharra daukaten haur aunitz baldin badira, laguntzaileak txandaka ibili behar du, denbora tarte batez haurrak zaintzarik gabe utziz. Ondorioz, desgaitasunak dagoeneko sortzen dituen portaera eta egokitze arazoak areagotu egingen dira. Bertze aldetik, onarpen falta familietatik dator. Auni-

tzetan ez dute haien seme-alabaren egoera onartu nahi eta ez dute elbarritasun balorazioa eskatzen, haurrak diagnostikatzea markatzea dela uste dutelako. Baina diagnostikoak ez dira haurrak markatzeko, errekurtsoak lortzeko baizik.

**Zer nolako ondorioak utzi ditu koronabirusak?**

**N. A.:** Pandemiarekin berriz ere gibelera egin dugu. Terapiarik gabe gelditu ziren haur guztiak konfinamenduan, eta etxean egin behar izan zituzten gurasoen laguntzaz. Orain, adibidez, igerilekuan ibiltzen ahal dira, baina ezin dute hidroterapiarik egin. Segurtasun neurriak errespetatzeko aitzakiarekin beharrezkoak diren terapiak geldiarazi dizkigute, nahiz eta jendeak aisialdiko jardueran aunitz normaltasun osoz egin. Zerbitzu hauek beti dira kaltetuena murrizketak edo bertzelako neurriak hartu behar direnean, eta beti bezala, borrokatzea tokatzen zaigu aitzinera egiteko.



Muxikoen eguna hagitz arrakastatsua izan zen.

# 'Musikoterapia zahartze aktiboan' hitzaldia ortziraletan

Larraburuan egingen dute eta Haizea Loira izanen da saioaren gidari

## IRUNE ELIZAGOIEN

Musikoterapia zahartze aktiboan gaitzat hartuta, hitzaldia emanen du Haizea Loira musikoterapeuta eta GIM psikoterapeutak Larraburuan, ortziraletan, maiatzaren 7an, 19:00etan. Ez da musikari lotutako ekitaldi bakarra. Izan

ere, apirilaren 17an muxikoen eguna ospatu zen Etxalarren eta Jeiki Hadi plaza taldearen doinuekin Bortzirietako hainbat dantzari elkartu ziren frontoian muxikoak dantzatzeko. Gaur egun indarrean dauden segurtasun neurriak bermatuz, giro polita sortu zen.

## MARI TX

- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK

- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) **636 617 450**

Legia, 23 - BERA

## XAGU

### LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232  
Koskontako bidea, 7  
(osasun-zentroaren parean)  
31770 LESAKA

- PAKETEA JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK



J. IRIGOIEN

## Errepidea moztu dute herritarrek

«Segurtasun handiagoa» eta «nazioarteko trafiko astuna A-15era desbideratzea» eskatuz, apirilaren 16an, N-121A errepidea mozteko deialdia egin zuten. Horri erantzunez, Etxalarko bentako biribilgunean hainbat herritarrek elkarretaratzea egin zuten, musuko eta txalekoekin, eta segurtasuna mantenduz.



IRUNE ELIZAGOIEN / AIMAR IPARRAGIRRE

## Aurkezpen arrakastatsuak

Apirilaren 17an *Sugarren Mendeko* liburua aurkeztu zuten Asisko Urmenetak eta Helena Xuriok. Apirilaren 18an *Langile mugimenduen historia eta gaur egungo egoera* hitzaldia izan zen eta apirilaren 24an, Altxataren XXX. urteurreneko ospakizunen barruan, *Miñan* liburua aurkeztu zuen Amets Artzallusek.



# Toki Ona Institutua

## HEZKUNTZA BEREZIA

DOH2-EBO2.  
LHZB-CFPE B modalitatea.

## DBH1, DBH2, DBH3 eta DBH4

A,B eta D ereduetan.

## Batxilergoko 1. eta 2. mailak

Zientziak eta Ingeniaritza eta  
Teknologia, Osasun zientziak,  
Humanitateak eta Gizarte Zientziak  
modalitateetan D ereduan.

## Erdi Mailako Lanbide Heziketa.

Mantentze Elektromekanikoa  
D ereduan.

*Izen-ematea: maiatzaren 17tik 27ra*

## Goi Mailako Lanbide Heziketa.

Mekatronika industrialia D ereduan.

*Izen-ematea: maiatzaren 17tik 27ra*

*Hazi, hezi, lagun egin.  
Aukera bertan, bertan Bortzirietan.  
Hemen dugu ikasteko aukera.  
Bortzirietako eragilea.  
Bortziritarren aukera.*


**Zatoz Toki Onara!**



## AURREMATRIKULA ONLINE



Gure web orrialdean bertan aurkituko duzue  
ere aurrematrikula online egiteko galdetegia



Eztegara Pasealekua, 34 – 31780 BERA  
T. 848 431 710 / Faxe: 948 625 032  
Posta Elektronikoa: iesbera@educacion.navarra.es  
web orria: iestokiona.educacion.navarra.es

Bideoa >>



## Biltoki Ttiki zaharberitu dute auzolanean

Fatxada garbitu, barruko aldea margotu, lurra aldatu... dute. Aitzinera begira, mural bat egin nahiko lukete

### MAITE, ANA ETA ITZIAR

Aspaldian abian zuten proiektuari hasi eta bukatu dute herriko gazteek. Gogotik lan egin ondotik, udaletxeak lagunduta eta bertze hainbat boluntario-aren laguntzarekin, Biltoki Ttikiko proiektua egin dute. Lehendakaria den Unaxek xehetasunak eman dizkigu.

#### Zer lan egin dituzue?

Nahiz eta obraren helburu nagusia bigarren pisuan leiho bat irekitzea izan, bertze garbiketa eta berrikuntza batzuk (fatxada garbitu, margotu, lurra aldatu eta altzarien distribuzio kokapena aldatzeko) egin ditugu.

#### Nork egin ditu lan horiek?

Obra hau egiteko Biltoki Ttikiko bazkide guztiek parte hartu dugu. Izan ere, obrako denbora gehienez gu geu izan gara lanean aritu garenak, leihoaren zuloa egiterakoan ezik, hori igeltseroaren esku utzi baitugu.

#### Nola antolatu zarete lana egiteko?

Aitzinero obretan ikusi genuenez, bazkide batzuk bertzeak baino gutxiago agertzen ziren laguntzera eta talde bat geratzen zen lan guztia egiten. Hori saihesteko, lagun bakoitzak



Hainbat egokitzapen egin dituzte.

ordu kopuru minimo batez lan egitea adostu genuen. Gainera, aurten Aste Santuak erdiz-erdi harrapatu gintuen, egunero hiruko taldetan banatu eta lan egitea pentsatu genuen, nahiz eta gehienetan haien txanda ez bazen ere, bazkide gehiagoren laguntza izan dugu. Horrela, pertsona bakoitzak gutxienez lau ordu egin ditu.

#### Zer laguntza izan duzue?

Udalak 2.045 euro eman dizkigu materiala ordaintzeko eta horrez gain altzariak gordetzeko biltegia utzi digu.

#### Zer proiektu duzue?

Biltoki Ttiki 14-18urteko gazteak biltzeko elkartearen denez, gazte kutsua eman nahi diogu. Emakume taldearekin, eraikinean mural bat egiteko proiektua lantzen ari gara.

## Afrikako doinuen erritmora dantzan aritu dira

Emakume taldeak antolatuta, afrikar dantzez gozatzeko aukera izan zuten apirilaren 18an. Afrik & Dance taldeko Olatz Amalurrek eman zuen saioa. Musika zuzenekoan izan zen eta horretarako lau perkusionista ere etorri ziren, Senegalgo doinu ederrak jotzera.

## Herriko hiru neska-mutikok eginen dute jaunartzea

Joan den urtean, bertze gauza aunitz bezala, jaunartzeak ospatzeko oztopoak izan ziren eta betiko dataz haratago ospatu ziren. Aurtengoan, berriz, maiatzaren 23an izanen dira. Herriko hiru neska-mutikok izanen dute beraien lehen jaunartzea.



MAITE, ANA ETA ITZIAR

## Errepide seguruaren alde

Apirilaren 16an N-121-A errepidearen inguruko herrietako alkateek hamaika etenaldi deitu zituzten. Protesta horrekin nazioarteko trafiko astuna ateratzeko eta bertze ibilbide batzuetatik desbideratzeko eskatu zuten. Zirkulazioa eten zen Berrizaunen eta Igantzi eta Arantzako herritarrak elkartu ginen.



MAITE, ANA ETA ITZIAR

## Eskolako ttikienek ateraldia eginen dute

Haur Hezkuntzako lehenbiziko mailakoak ereiarioaren 5ean Irri-sarrilandera joatekoak dira; eta 2. eta 3. mailakoak Ilundaingo Haritz Berri baserri eskolara maiatzaren 13an eta 14an. Horrez gain, apiril bukaeran Liburuaren Eguna ospatu zuten eta baratzean aritu dira Hiribehereko Lurdesekin. Eskerrik asko Lurdes!



[www.caserresidencial.es](http://www.caserresidencial.es)

### Egonaldi motak

- Egonaldi iraunkorrak
- Aldi baterako egonaldiak familiaren atsedenerako
- Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondoak
- Alzheimer eta bestelako demenziak dituzten gaixoentzako egonaldiak
- Eguneko zentroak:
  - 365 egunetan irekiak
  - Garraio zerbitzua Irun, Hondarribia eta Hendaiara
  - Iparraldearekin hitzartuak APA diru-laguntzak

**ANAKA** | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780  
**BETHARRAM** | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

## Zapla! bertso bazkaria izanen da maiatzaren 15ean

Aitzinetik sarrerak bertsozale elkartearen atarian erosi beharko dira

### NEREA ALZURI

Nafarroako Bertsozale Elkar-teak joan den apirilaren 23an paratu zuen martxan Zapla! egitasmoa. Bertsolarietako plazak eskaintzea du helburu, bide-nabar bertsozaleek ere gozatu dezaten. Hainbat formatutako zazpi saio dira herri horietako

udalen laguntzaz antolatua eta bertso zirkuituari akabaila emateko, maiatzaren 15ean Aterpean bertso bazkaria izanen da Julen Zelaieta eta Eneko Lazkoz bertsolariekin. Bertso bazkarirako txartelak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian eskura ditzakete 30 eurotan.

### Bertakoaren garrantzia azpimarratuz

Apirilaren 24an, bertze aldi batez, Lesakan, Bortzirietako artisau eta ekoizleen azoka egin zuten eta Mikel Leiza herriko ekoizleak ere parte hartu zuen berak ekoiztiriko produktuez osaturiko salmenta postuarekin.



### 'Luze edo motz' bakarrizketa larunbatean

Larunbat honetan, hilaren 8an, *Luze edo Motz* bakarrizketa izanen da 19:00etan eskolako patioan. Irri egiteko aukera ederra inondik ere, umorea erabiltzen baitute genero gaiak naturaltasunez lantzeko.



Eskolako zaharrenak gazteenei ipuinak leitu zizkieten. ARANTZAKO HERRI ESKOLA

### Hainbat ekimen egin dituzte eskolan liburuaren egunean

#### N. ALZURI

Urtero bezala, apirilaren 23an, Liburuaren Nazioarteko Egunaren baitan, eskolako lagunek hainbat ekimen antolatu zituzten.

Alde batetik, aste horretan, irakasleek hainbat testuren irakurketak egin zituzten ikasleei. Baina bertzelako ekintzak ere egin zituzten.

Haur Hezkuntzan, erraterako, haur bakoitzak bere gogoko ipuinaren izena idatzi zuen hosto itxurako kartulina batean eta zuhaitz baten adarrean zintzilik paratu zituzten, *Gure gustuko liburuen zuhaitza* osatuz. Liburuaren egunean, berriz, Altxorraren bila ibili ziren.

Altxorra *kamishibai* formatuan kontatuko ipuin baten irakurketa izan zen (*kamishibai* japonieraz paperezko antzerkia erran nahi du eta



*Kamishibai* ipuinak kontatzeko teknika.

Japonian, ipuinak kontatzeko erabiltzen duten teknika bat da).

Lehen Hezkuntzan ere, *kamishibai* teknika erabiliz irakurketa egin zuten hainbat taldetan eta urtero bezala, handi eta txikien arteko bikoteak eginez, elkarri ipuinak leitzen aritu ziren.

DBHkoek, bertzalde, beraien asmatutako ipuinak leitu zituzten eskolako talde guztiei, Haur Hezkuntzatik hasi eta Lehen Hezkuntzako 6. mailara bitarte.

EGUNeko MENUA  
SAGARDOTEgi MENUA  
KARTA  
OGITARTEKOAK  
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472  
Alasta karrika · BERA  
[zubiondojatetxea.com](http://zubiondojatetxea.com)

**Ainhoa Alzuguren Mitxelena**

Abokatutza orokorrean · Herentziak  
Alokairuak · Lan aferak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu eta solastatuko gara.

BERA - M. 630 97 21 89 - [ainhoaaltzuguren@gmail.com](mailto:ainhoaaltzuguren@gmail.com)

## PRIM, c.b.

### Fisioterapia Zentroa

Itzea 1, behea • T./F. 948 625 206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

Potentzia handiko laserra. Allynare metodoa

Centro Prim
 regina tolosaechepare

## Geuretik sortuak ekimena Beran, Lesakan eta Leitzan

Iban Garro lesakarrak Udalbiltzaren proiektu honetan parte hartuko du eta Nafarroa Beherera joanen da hiru astez

### TTIPI-TTAPA

Udalbiltza erakundeak Geuretik sortuak proiektuaren lehenbiziko edizioa martxan jarri du euskarazko sormen lanak sustatzeko helburuarekin. Euskal Herriko literatura, antzerkigintza eta zinemagintza 26 artistak parte hartuko dute ekimen honetan eta artistek hiru astez haien bizilekua ez den herri batean eginen dute egonaldia, eta sortuko dituzten 16 ipuinak, bortz antzezlanak eta bortz film laburrak izanen dira emaitza. Euskal kultura Euskal Herriko bazter guztietara zabaltzea du helburu ekimenak, egonaldietan sortzen diren obrek in hedapen-zirkuitu bat eginez.

Gure eskualdetik, Iban Garro lesakarrak parte hartuko du idazle gisa. Urepelera joanen da hiru astez ipuin bat idazteko. Haren orde, Eñaut Castagnet Iparraldeko zinemagilea Bera eta Lesakan ibiliko da bere film laburra sortzen. Horrez gain, Garazi Albizua Castelao Santurtzik idazleak Leitzan eginen du egonaldia ipuin labur bat idazteko.



Iban Garro Urepelera joanen da.

Joan den urtearen bigarren erdian hasi ziren proiektua prestatzen eta herriak finkatzen. Aurtengo urtarrean egin zen artistak aukeratzeko beka-deialdia, eta 73 hautagai aurkeztu ziren guztira; 21 literatura lan, 24 antzezlan eta 28 film labur. Epaimahaiak martxoaren 23an erabaki zuen zeinek parte hartuko duten eta biharamunean bakoitzaren helmuga iragarri zuten.

## Nazioarteko kamioiak A15etik bideratzeko eskaria

Dozenaka lagunek parte hartu zuten alkate eta hainbat herritarrek deituta egin ziren errepide mozketan


### TTIPI-TTAPA

N-121-A errepide inguruko alkateek eta herritarrek deituta, hamaika puntutan trafikoak moztu zuten apirilaren 16an: Baztanen Zozaiako bideturte inguruan, Doneztebe eta Sunbilla artean, Iganztziko bentetan, Etxalarko

Benta parean eta Lesaka-Bera artean tunelaren inguruan. «Nafarroako Gobernuaren zentzugabekeria» salatu zuten dozenaka lagunek, eta «jatorria edo helmuga gure lurraldean ez duten kamioiak A15era desbideratzea posible dela» argi utzi nahi izan zuten.



Beran, Sunbillan eta Baztanen egindako errepide mozketak.




**goxo** ■ GARBITEGIA - TINDATEGIA ■

- MANTAK, EDREDOIAK, MAINDIREAK, MANTELAK... GARBITZEN DITUGU.
- TINDATEGIKO ENKARGUAK; ALKANDORAK, EZKONTZAKO TRAJEAK ETA SOINEKOAK...
- ALFONBRAK GARBITU ETA KONPONDU.

TEL. 948 630 100 - ZALAIN 42, BERA - WWW.GOXO.BIZ





**JAKINARAZTEN DA: 2021eko lehen urte erdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, segidan seinatzen den bezalaxe**

## 2021eko TASAK

ERABILTZAILAILEEN eta TASEN MAILAK

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA
	€/urteko	
Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorrean bizi ala ez	81,40 €	
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden baserriak	69,36 €	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden baserriak	57,02 €	
<b>1. Merkataritza eta zerbitzuak.</b> Elikagaien eta etxeresna sektorekoak ez direnak: mertzeriak, drogeriak, burdindegia, okindegiak, ile-apaindegia, lan bulegoak. Eraikin publikoak	82,72 €	
<b>2. Merkataritza.</b> Elikagai dendak (harategiak, arraindegia, janari-dendak), elektrogailu dendak eta farmaziak	162,38 €	
<b>3. Merkataritza.</b> Autozerbitzuak	247,66 €	
		<b>Nafarroako Hiri Hondakinen Tratamendurako Patzuergoa.</b>
		<b>2020ko urtarrilaren 10eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua. 6 zk</b>
<b>1. Ostataua.</b> Noizbehinka irekitzen diren ostatu eta biltegiak eta jarraian irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m <sup>2</sup> ko edo gutxiago azalera dutenak	165,04 €	
<b>2. Ostataua.</b> 30 m <sup>2</sup> baino azalera handiagoa ostatuak eta janari-denda daukaten ostatuak	330,38 €	
<b>3. Ostataua.</b> Pub eta diskotekak	412,70 €	
<b>1. Jatetxea.</b> Modu iraunkorrean irekiak dauden elkarte gastronomikoak, eta bortz mahai edo gutxiago dituzten jatetxeak	412,70 €	
<b>2. Jatetxea.</b> Bortz mahai baino gehiago dituzten jatetxeak	743,18 €	

### Ordaintzeko era

**Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenek:**  
Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

**Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:**  
Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA
	€/urteko	
<b>1. Landetxea: 6 toki edo gutxiagoak.</b>	82,72 €	
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden landetxeak	70,38 €	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden landetxeak	57,94 €	
<b>2. Landetxea: 6 toki baino gehiagoak.</b>	165,54 €	
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden landetxeak	140,86 €	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden landetxeak	115,88 €	
		<b>Nafarroako Hiri Hondakinen Tratamendurako Patzuergoa.</b>
<b>1. Hostala.</b> Hamar logela edo guttiagoak.	577,62 €	
<b>2. Hostala.</b> Hamar logela baino gehiagoak	825,38 €	
<b>Merkataritzako saltokiak.</b> Opariak bakarrik saltzeko	412,18 €	
<b>Merkataritzako saltokiak.</b> Janari-dendak edo ostatudunak	825,38 €	
<b>Merkataritzako saltokiak.</b> Jatetxedunak	1.238,18 €	
		<b>2020ko urtarrilaren 10eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua. 6 zk.</b>
<b>Lantegiak,</b> 4 langile bitarte. Jarduerak: argiketariak, iturginak, pintoreak...	82,72 €	
<b>Lantegiak,</b> 5-10 langile bitarte	165,04 €	
<b>Lantegiak,</b> 11-30 langile bitarte	412,70 €	
<b>Lantegiak,</b> 31-60 langile bitarte	825,38 €	
<b>Lantegiak,</b> 61-150 langile bitarte	1.238,18 €	
<b>Lantegiak,</b> 151-300 langile bitarte	2.346,10 €	
<b>Lantegiak,</b> 300 langile baino gehiagorekin	3.458,00 €	
Norberaren erabilerarako edukiontzia	802,12 €	

### Ordaintzeko epea

- 2021eko maiatzaren 31n bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2021eko ekainaren 30era arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izango da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekaruarekin kobratuko da.

# DESKONTUAK BORTZIRIAK TTPII TXARTELA



Erakutsi  
eta aprobetxatu  
aukerak!

**ttipi-ttapa**

**%10** DESKONTUA  
eskeletan eta  
oroigarrietan

Koskontako bidea, 7-1 | LESAKA  
T. 948 63 54 58 | bagoaz@ttipi.eus

**Caser**  
RESIDENCIAL ANAKA

**%5** DESKONTUA  
egonaldietan

Anaka, 8 | IRUN  
T. 943 66 77 80

**TriSari**  
LAND

**%50**  
DESKONTUA  
Sarrerari

Irrisarri, 1 | IGANTZI  
T. 948 92 89 22

**Semper**  
AUTOSERBIZIOA

**%10** DESKONTUA  
matrikulan

BERA | T. 948 63 02 98  
LESACA | T. 948 63 82 99

**Arturo**

**%5** DESKONTUA  
arropetan

Altzate, 30 | BERA  
T. 948 63 01 36

**bixkiak**  
KIROL ETA MODAKO  
arropa denda

**%5** DESKONTUA

Arretxea, 11 | LESAKA  
T. 948 63 81 10

**KATEA BIKE**  
Bike

**%10** DESKONTUA  
komponentetan

Kanttonberri, 1 | BERA  
T. 948 63 12 18

**Xulufraia**

**%5** DESKONTUA  
30etik goiti

Altzate, 18 | BERA  
T. 948 63 12 66

**EDUR**  
MANUEL TABERNAS

**%5** DESKONTUA  
(esnean izan ezik)

Bidasoa, 76 | BERA  
T. 948 63 10 27

**GABLA**

**%10** DESKONTUA  
ongizate  
zerbitzuetan

Pio Baroja, 11 behe | BERA  
T. 666 42 61 96

**cenor**  
ALZURI ETXETRESNAN

**%5** DESKONTUA  
etxetresnetan

Bittiria, 33 | LESAKA  
T. 948 62 75 31

**KARLOS ALZUGARAY**  
DICTIONATA E.L. O.L.O.

**%5** DESKONTUA  
hortz salako botanetan

Itzea, 20 behe | BERA  
T. 607 85 32 08

**ASPACE**  
KARLOS ALZUGARAY  
Nafarroa - Nafarroa

**%5** DESKONTUA  
30etik goiti

Otsango, 13 | LESAKA  
T. 948 63 80 41

**Urdi Bera**  
BERRAZKARREN ETXETRESNA

**%20** DESKONTUA  
urteko abantuen  
matrikulan

Toki Ona Kirolegia | BERA  
T. 948 63 02 15

**AGARRA**  
KIROLAK

**%5** DESKONTUA  
kirol artikuluetan  
**%15** DESKONTUA  
ehiza arropetan

Altzate, 22 | BERA  
T. 948 63 09 99

**zela**  
KIROLAK

**%5** DESKONTUA  
erosketa guztietan

Altzate, 6 | BERA  
T. 948 63 05 98

**kattagorria**

**%5** DESKONTUA  
haru arropetan

Behoko Plaza, 10 | LESAKA  
T. 948 62 75 14

**IGONE**

**%5** DESKONTUA  
30etik goiti  
(pronksan izan ezik)

Kanttonberri, 4 behe | BERA  
T. 948 63 06 26

**ZU** lorendea  
dekorazioa  
osagarriak

**%5** DESKONTUA  
lore moztian  
30etik goitiko  
erosketetan

Altzate, 33 | BERA  
T. 948 62 57 86

**elika** Dietetika  
eta elikadura

**%5** DESKONTUA  
kontsultan

Itzea, 6 behe | BERA  
T. 948 63 12 83

**oreKa**  
nutrizioa eta dietetika

**%5** DESKONTUA  
kontsultan

Arretxea, 11 | LESAKA  
T. 948 63 75 73

**Intzuri**  
OPTIKA

**%5** DESKONTUA  
produktu guztietan

Bittiria, 28 | LESAKA  
T. 948 62 75 50

**Ostargi optika**

**%5** DESKONTUA  
produktu guztietan

Bidasoa, 8 | BERA  
T. 948 63 07 53

**IRACHE**  
tanatorioak

**%100eko DESKONTUA**  
Bela-gelaren erabileran  
\*Eskatzaileak edo hildakoaren bigarren  
gradu arteko senitariek txartela  
fisikoki aurkeztu beharjako dute.

Kanttonberri, 14 | BERA  
Zarandia, 18 | LESAKA  
T. 948 63 74 04 | T. 948 19 70 70

**HK podologia**  
NORA MAIZA

**10** €ko  
DESKONTUA  
linkearen arteko  
digitalan

Legia, 42 | BERA  
T. 688 878 177

**txinelka**

**%10** DESKONTUA  
erosketa guztietan

Plaza Zaharra, 25 | LESAKA  
T. 948 63 75 94

## Ikusi TTIPI TXARTELA izateagatik hainbat denda eta zerbitzutan **dituzun abantailak**



**«Frankiziatua izateak bere onurak eta eragozpenak ditu»**

**MIKEL LIZARRAGA LAZKANO**  
OGI BERRI LEITZA - LEITZA

Duela 10 urte ireki zuen Lizarragak Leitza Ogi Berri kafetegi/okindegia. Ogi Berri prestaturako produktuak saltzen dituzte batez ere, «mota askotariko ogiak ditugu, aurretik egosiak ekartzen dizkigute eta bertan azken labekada ematen diegu». Opilak ere lantegitik ekartzen dituzte freskoak eta bertan laberitzen dituzte. Hala ere, tarta batzuk, hostopil tartak, adibidez, bertan egiten dituzte, baita Eguberrietan errege-opila ere. Hostopil lazoak asko saltzen direla dio, «kalitate onekoak direla ikusten da, gurinezko hostopilez eginda baitaude». Frankizia baten parte izateak «lan egiteko lasaitasun handiagoa eta produktu gehiago edukitzeko aukera ematen dizu», hornikuntza ziurtatua daukalako. Hala ere, dena ez da ona; «oso lotuta zaude enpresari eta haren prezioei».



**«Jendeari etortzea errazteko ireki nuen bigarren zentroa»**

**KARLOS ALZUGARAY DE SANTIAGO**  
KARLOS ALZUGARAY - BERA-DONEZTEBE

1997tik 2002ra Espainiako boleibol selekzioarekin aritu zen Karlos fisioterapeuta gisa, «neska nahiz mutilekin, Europa guztian barrena bidaiatu nuen lau urtez. Esperientzia hagitza ona izan zen, bai profesionalki bai pertsonalki». 2002ko martxoan ireki zuen osteopatia eta fisioterapia zentroa Beran. Baztan, Malerreka eta inguruko jende aunitz joaten zenez, 2017ko maiatzean Donezteben bigarren zentro bat irekitzea erabaki zuen, «honat etortzea errazteko». Beran astelehen, asteazken eta ortziraletan egoten da eta Donezteben astearte eta ortzegunetan. Pandemiaren ondotik, «neurriak hartzen ditut beti, baina hala ere, kontaktua zuzena da eta beldurra hor dago, jendeari aunitz kostatu zitzaion hasieran». Gaur egun, «zorte onez, ongi» ari da lanean, «betiko martxan».



**«Jendeak gaur egun gehiago zaintzen du bista»**

**ANGEL ARRAZTOA GAMIO**  
ARGIBEL OPTIKA - ELIZONDO

Optometria zerbitzua eskaintzen dute batez ere Argibel Optikan; ikusmenaren graduazioa, froga optometrikoak, antiojo graduatu, lentilla eta eguzkitako antiojoen salmenta... Horrez gain, audifonoak saldu eta egokitzen dituzte, eta bertzelako gehigarriak ere badituzte; lupak, prismaoak, lenteak... 1998an optika ireki zutenetik, bezeroen bista zaintzeko modua aunitz aldatu duela dio Arraztoak, «jendeak orain duela 20 urte baino aise gehiago zaintzen du bista». 50 urte dituztenak «orain teknologia aferekin aunitz ibiltzen dira; tabletak, mugikorrak... orduan ez zirenak». Jendeak behar gehiago du hurbiletik ikusteko, eta hurbileko bista aunitz erabiltzen bada, «behar handiagoa sumatuko duzu antiojoak erabiltzeko».



**«Web orri eta sare sozialak beste erakusleho bat dira»**

**AMAYA PIKABEA MAIA**  
AMAYA PICABEA - DONEZTEBE

Duela 30 urte hasi zuen Pika-beak bere ibilbidea Donezteben. Bere amak ile-apaindegi bat zeukan bertan, eta ondoan ireki zuen apaindegia. Duela 13 urte erreforma egin zuten, eta gaur egun dena bat da; Amaya Picabea Estetika Zentroa. Honen ondorioz, «hagitza eskaintza zabaleko denda dugu; ile-apaindegia, depilazio eta makillaje eskaintza, masajeak, manikura, pedikura, solariuma, azala zaintzeko tratamenduak, arropa eta osagarriak... bezeroen irudia alderdi guztietatik zaintzeko». Sare sozialak garrantzi handikoak direla azaldu digu; «bertze erakusleho bat da, jendeak web orrian begiratzen du eta gero deitzen edo idazten digu, gauzak zenbat balio duten eta zein neurritakoak diren jakiteko».



## Seihileko honetako buletina gibelatu dute

Ekitaldi, irteera eta jende elkartzek aurreikusteko zailtasunak tarteko, buletina gibelatzea erabaki dute

### PABLO IRASTORTZA

Bistan dago nola nahasi ziren orain urtebete bazterrak pandemiagatik. Eta oraindik hala segitzen dute. Elkartean modu bertsuan eragin du birusak; hango eta hemengo egonaldia, eguneko txangoak, adinduen omenaldiak, jende elkartzek... ia dena zapuztu du.

### Buletina gibelatu dute

Covid-19aren aurkako txertoen laguntzarekin, epe laburrera egoerak hobera eginen duen esperantzaz, elkarteak afera gehien berrantolatuta du helburu. Udazken alderako zer edo zer pozgarria iragarri daitekeelakoan, urte erditsuan zabaltzen den buletina denbora bat gibelatzea erabaki dute. Dena den, lasai egoteko adierazi dute, bai

bazkideei baita ordezkarierei ere, prest dagoen bezain las-ter jakinaraziko zaie eta.

### Masaje eta podologia zerbitzua

Egoera honetan, elkarteak ilusioz zabaltzen du edozer afera berri. Kasu honetan Ezkurran emanen diren bi zerbitzuak aipatu nahi izan dituzte.

Alde batetik, Ezkurrra hurbiltzen denak masaje erlaxagarria hartzeko aukera izanen du. Jaione Irisarri da masajemailea eta astelehenero emanen du zerbitzua.

Bertzalde, ezkurrarrek podologia zerbitzua herrian jasotzeko aukera izanen dute. Kasu honetan Ainara izanen da gorputzeko minak arinduko dizkiena eta horretarako berarekin solastatu beharko da.



UTZITAKOA

## Xurianen, Saioan eta Eurtegin

Artesia gako kaskoan izan zuten hitzordua mendi taldekoek. Handik abiatu ziren 34 kideek Xuriain (1.410 m) izan zuten lehenbiziko helmuga. Erronka bota ondotik, Saioa (1.418 m) izan zen bigarrena eta, goiza aprobeztatze aldera, hirugarren bat ere (Eurtegi, 1.194 m) igo zuen talde erdiak edo. Hori da hori martxa!



UTZITAKOA

## Apirileko saria Leitzara

Kandida Mutuberria Huizi izan da apirileko lehiaketaren irabazlea, Enrike Zelaia zein-musika tresnagatik zen ezagun galderari 'esku-soinua' edo 'akordeoa' erantzuna eman zioten 32 kideren artean egindako zozketa berari egokitu baitzaio. Kontserba sorta jaso du batzordeko Fermin Azpirozen eskutik. Zorionak Kandida!

### Maiatzeko galdera

Nor izan zen Arkupeaken sorreratik, 25 urtez, elkartearen buru izandako lehenbiziko lehendakaria? Lehiaketan parte hartzeko izena eta bi abizenak 618 56 78 37 telefonora bidali behar dira.



Axun eta Juli (eskuinekoa) ahizpak.

## Elkarteko bertze kide bat hil da 101 urterekin

Arras samindua dago azken aldian elkarte. Joan den apirilean, Sunbillako Kandida Mitxelenak, 101 urterekin, utzi gintuen. Hori aski ez nonbait eta bertze berri txar batekin gatz maizatzean. Azkeneko TTPI-TTAPA irakurri duzuenok, memorian fresko

izanen duzue oraindik 103 eta 101 urteko bi ahizpa etxalartarrekin izandako solasaldia. Zoritarrez, Julik ezin izan du gainditu bizitzak bidean paratu dion azken eragozpena, eta apirilaren 20an adio erran zigun. Besarkada bat familiari.

## Mendaur ikastetxeko zuzendariaren eta ikasketa buruaren bisita izan dute

**M. PETRIRENA**

Bizi dugun egoera honek eskoletara egiten diren bisitak ezin egin utzi digunez, Sunbillako eskolan Lehen Hezkuntzako seigarren mailan dauden ikasleek Doneztebeko Mendaur eskolako zuzendariaren eta ikasketa buruaren bisita hartu zuten. Bertan ikastetxearen berri eman zieten eta 2021-2022 ikasturtean izanen dituzten gaiak eta aukeragaiak aurkeztu zituzten. Bertara joateko aurrematrikula eta matrikula egin beharko dute.

**Txertaketak**

Egoera hobetzeko asmoz, txertaketek aitzinera segitzen dute. 70 urtetik goitiko herri-tar guztiak bi dosiak (apirilaren 6 eta 27an) hartu dituzte. 60-65 urtekoei berriz lehen dosia apirilaren 22an jarri zieten eta hurrengo uztailaren 15ean izanen dute.

Lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkiegu txertoen antolaketa lanetan (osasun langileak, bolondresak, udalak) egon zareten guztiak. Izugarriko antolaketa izan da. Zorionak!



MAIDER PETRIRENA

## Pilotari gaztetxoak ederki ari dira

Errekako pilotariak ere Nafarroako Kirol Jokoen bikotekako txapelketan parte hartzen ari dira. Aimar Vertiz Babace eta Ibai Maritxalar Ibarra bikotea partidak irabazten ari da eta Nahia Vertiz Babace eta Iraide Iriarte Petrarena bikoteak ere aitzinera segitzen du gogotsu.

## EDERKI tailerra

**CITRÖEN  
ZERBITZU OFIZIALA**

‘Latigillo’ hidraulikoaren moldaketa  
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525

## Eneit Bertiz borzgarren izan da Tibin

Apirilaren 25ean Eneit Bertiz (kadeteetan) eta Koldo Herrera (juniorretan) txirrindulariak Tibin izan ziren. Bai Bertiz baita junior guztiak ere ederki aritu ziren eta Bertiz borzgarren izan zen. Zorionak bikote!



EKAITZ BERTIZ APEZETXEA

## Lekunberrin eta Deikaztelun

Apirilaren 17an, larunbatean, Lekunberrin eta biharamunean, hilaren 18an, Deikaztelun lasterketa izan zuten herriko haur, gazte eta heldu kuadrilla haundi batek. Adierazi dutenez, guztiak ederki pasatu zuten eta giro ederrean ibili ziren.



UTZITAKOIA

## Herritarrek Doneztebe Futbol Taldean

Doneztebe Futbol Taldeko kategoria guztiak entrenatzeko biltzeaz gain, koronabirusaren aitzinean segurtasun neurri guztiak betez, partidak ere jokatzeko ari dira. Taldeetan herritarren ordezkaritza haundia dugu. Animo eta segi orain artean bezala!



Dokumentalean Mikel Zabalzaren iloben testigantza biltzen da.

## 'Non dago Mikel?' dokumentala ikusgai zineman

Jende kopuruaren arabera bi emanaldi izateko aukera aztertuko dute

### MARGA ERDOZAIN

Maiatzaren 14an eta 15ean *Non dago Mikel?* dokumentala pantailaratuko dute zineman. Ortziralekoa, Nafarroako Gobernuak sustatutako memoria historikoari buruzko lanketaren barrenean, Mendaur institutuko ikasleentzat izanen da. Ikasleek aukera ezin hobea izanen dute garai hartako gertaeraz informazioa jasotzeko eta hausnarketa kritikoa egiteko.

### Sarrerak aitzinetik eskuratu beharko dira

Maiatzaren 15ean emanaldi publiko osoarentzat izanen da.

### Kontsumitzailearen bulegoa maiatzaren 7an eta 21ean irekita

Malerrekako Mankomunitateak Irache Kontsumitzailearen bulegoan eskaintzen duen doako zerbitzuak maiatzean honako egutegi hau izanen du: maiatzaren 7a eta 21a. Zerbitzua erabili nahi duenak 948 45 17 46 telefonora deitu beharko du.

Edukiera dela eta, 70 lagun sartzen ahal izanen dira eta sarre-rak aitzinetik eskuratu beharko dira (641 58 99 08 telefonora deituz edo mezua bidaliz). Jende kopuruaren arabera, bi emanaldi izateko aukera ere aztertuko dute (sare sozialen bidez emanen dute horren berri).

### Familiakoen testingatzak

Dokumentalak Mikel Zabalzaren desagerpena eta heriotza du ardatz eta, horrez gain, iloben testigantzak agertzen dira filmean, baita bertze batzue-nak ere: Ion Arretxe, Idoia Aierbe...

### Ipuin txokoak martxan segitzen du

Maiatzaren 11n, 18an eta 25ean, asteartean, 0-3 urte bitarteko txikiek ipuinez, musikaz eta dantzaz gozatzeko aukera izaten segituko dute. Haize Loirak, bere gitarra lagun duela, saio gustagarri hauek alaituko ditu. Animatu eta gozatu!

## Askin eskolako matrikulazioa maiatzaren 24tik 28ra

### M. ERDOZAIN

Maiatzaren 10ean, heldu den astelehenean, Askin haur eskolan eta udaletxean onartutako haurren behin behineko zerrendak argitaratuko dituzte. Ondotik, maiatzaren 10etik 14ra bitarteko epean, erreklamazioak aurkeztu ahal

izateko tartea zabalduko dute (udaletxean), eta maiatzaren 24an, hondarreko astelehenean, behin-betiko zerrendak kaleratuko dituzte. Akitzeko, maiatzaren 24tik 28ra hurrengo ikasturterako matrikula egiteko epea izanen dute (udaletxeko bulegoetan).



ARTXIBOKOA

## Udaberriko feriarik ez

Maiatzean antolatzen den udaberriko feriak, bigarren urtez, bertan behera gelditu behar izan du. Hala ere, herritarrek eta bisitariak postuz postu ibiltzeko aukera izan zuten maiatzaren 2an izan zen bertako artisauen azokan. Ea hurrengo urtean behar bezala ospatzerik dagoen!



UTZITAKOA

## Mendaurko ikasleak irabazle

Nafarroako zortzi ikastetxetan DBHko laugarren maila eta Batxilergoko lehen maila ikasten duten 80 ikasle bildu ziren apirilaren 14an Iruñeko Ezkaba mendian, scape room joko baten bidez historia klasetan ikasitakoa praktikan jartzeko helburuarekin eta Mendaurkoak izan ziren garaile jokoan.

## Maiatz hondarrera arte luzatuko dira Kultur Egunak

Kirol hitzorduak, ipuin-kontaketa eta tailerra eta ikuskizunak izanen dituzte maiatzaren 29ra arte

### NATALIA REKARTE

Apirilaren 24an abiatu ziren Donamariako Kultur Egunak. Asisko Urmeneta idazlearen eskutik, herritarrek *Sugarren mende* lanaren nondik nora-koak ezagutu zituzten. Ondotik, maiatzaren 1ean *Bideak* dokumentala pantailaratu zuten.

### Ipuin-kontaketa, tailerra eta herri-kirolak

Hurrengo hitzordua maiatzaren 8an dute eta, Dani Martirena kazetari eta idazleak bideratuta, ipuin-kontaketa

eta eskulan tailerra izanen dute. Erabilera Anitzeko Aretoan bilduko dira 17:00etan. Biharamunean herritarren arteko herri-kirolak izanen dira ikusgai 11:30etik goiti.

### Mendi martxa eta magia

Maiatzaren 16an, goizean, herritarrek mendira joko dute. 09:00etan herriko plazatik abiatuta, inguruko parajeetan barrena hiru orduko ibilbidea egingen dute eta, ondotik, bermuta hartzera joanen dira. Arratsaldean, berriz, herriko

frontoian Hodei magoaren ikuskizuna izanen dute. Azken hori 18:30ean hasiko da.

### Karnalita kosmokoak ikuskizuna eta herri-kirolak

Ondoko asteburuan, hilaren 22an, 19:00etatik goiti 'Karnalita kosmokoak' ikuskizunaz gozatuko dute herritarrek.

Igandean, berriz, herri-kirol saioa izanen dute. Migeltxo Saralegiren eskutik, 16:00etan plazan elkartuko dira.

### Txistuman

Kultur Egunak maiatzaren 29an, azken larunbatean borobilduko dituzte, 'Txomin eta Txistuman deskontzertuan' ikuskizunarekin. 18:00etan herriko plazan izanen da emaldia.

Udalak jakitera eman duenez, ekitaldi guztietan koronabirusaz babesteko indarrean dauden neurriak zorrotz beteko dira eta edukiera mugatua izanen da.

## Udaletxeko telefono zenbakia aldatu dute

Donamariako Udalak udaletxekoekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia aldatu duela jakinarazi du. Hortaz, hemendik aitzinera udalean edozein kontsulta egin nahi duenak honako telefonora deitu beharko du: 948 45 01 27.

## Artisau azoka herrian maiatzaren 9an

Baztan-Bidasoko artisauen elkarteak, Argitsuk, antolatuta, maiatzaren 9an, heldu den igandean, azoka izanen dute Donamarian. Goiz osoz, 10:00etatik 14:00etara, produktuak ikusi eta erosteko aukera izanen du bertaritzen den orok.



**Bizikleten salmenta eta konponketa.**

**GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK**  
bizikleta estatikoak, lasterketako zintak...

**2. eskuko bizikletak**

**Kanttonberri, 1 | BERA**  
**T. 948 631 218**  
**joxemi@kateabike.com**  
**www.kateabike.com**













## «Ahal dudan guztietan frontenisaz gozatzen segitu nahi dut»

ALAZNE AIZPURI IRIARTE NARBARTEKO PILOTARI GAZTEA

Izaskun Iriarte lehengusina bikote duela, bigarren txapelketa jokatu du Alazne Aizpuru Iriartek (Narbarte, 2000). Bigarren honetan ere, txapeldunordearen garaikurrarekin bueltatu dira

### TTIPI-TTAPA

Aunitzek egin duten moduan, besta kirolarekin ordezkatu du pandemia garaian Alazne Aizpuru Iriartek (Narbarte, 2000): «ezin denez bestarik egin, lagunekin mendira joanez eta frontenisean ariz gozatzeko modua harrapatu dut». Lehendik ere bazuen frontenisarekiko zaletasuna indartu egin da, eta, berriki, Latasako txapelketan parte hartzeko aukera izan du Izaskun Iriarte lehengusinarekin batera. Frontenisak «lagunekin arratsalde politak pasatzeko, jendea ezagutzeko eta txapelketen esperientzia bizitzeko» aukera eman dio eta, orain, mundu horretan sartu delarik, bide horretan segitu nahiko luke.

### Noiz hasi zinen frontenisean jokatzen?

Ttikitan aitarekin eta amarekin ikasi nuen jolasten. Ondotik, 9-10 urte inguru nituenetik udan lagunekin herriko plazan jolasten nuen. Urte pare batez aritu gabe egon ondotik, 2018an lehengusinekin berriz hasi nintzen.

### Nondik heldu zaizu zaletasun hori?

Betidanik gustatu izan zait. Narbarten aunitz aritzen gara frontenisean edo palan eta betidanik ikusi izan dut jendea plazan jolasten. Herriko batzuk udan gozietan jokatzeke gelditzen hasi ziren... Horrela hasi ginen gure adintsuko gehienak. Horretaz gain, lehen-



Alazne Aizpuru narbartearra.

gusinak palan eta frontenisean betidanik jolastu izan dira.

### Zenbatero aritzen zara?

Astean bizpahiru aldiz eta udan ia egunero aritzen ginen. Baina ikasturtean zehar normalean Donostian nagoenez, astean behin edo... batzuetan hori ere ez, ordutegiaren arabera.

**2018an Aunitz Eskuetan frontenis txapelketa irabazi zenuen Esther Iriarterekin batera...**

«**HERRIAN FRONTENISEAN ETA PALAN ARITZEKO OHITURA DAGO**»

Lehengusu afaria izan genuen eta txapelketari buruz hitz egiten hasi ginen Maite lehengusina herriko batekin apuntatua baitzegoen. Azkenean, Esther lehengusinak eta nik apuntatzea erabaki genuen. Lehengusu afariak eta lehengusuek animatu gintuzten (irri artean). Apuntatu ondotik, entrenatzen hasi, eta txapelketa irabaztea lortu genuen. **Hala ere, azken aldian Izaskun Iriarterekin ikusi zaitugu...**

Aunitz Eskuetan frontenis txapelketa eta gero ez nintzen gehiago frontenisean aritu. Maite lehengusinak Baztango frontenis txapelketa egin behar zela erran zidanean, kuadrillako taldera bidali, eta Izaskun

eta nik parte hartzea erabaki genuen. Orduan hasi ginen frontenisean gehiago ibiltzen eta Baztangoaren ondotik Latasakoa jokatu genuen.

**Baztango binakako txapelketan txapeldunorde izan zineten.**

Baztango txapelketan emakumezkoen bi maila zeuden, eta bigarren mailan apuntatu ginen. Finalera ailegatzea lortu genuen, eta txapeldunorde izan ginen.

**Berriki Latasako txapelketan aritu zarete...**

Herriko batek Izaskuni txapelketa egin behar zela erran zion. Frontenisean aritzeko ohitura daukagunez eta egungo egoerarekin zerbait egiteagatik apuntatu ginen.

**Hor ere txapeldunorde, beti punta-puntan.**

Partida batzuk pixka bat kostatu arren, finalera ailegatzea lortu genuen, baina azkenean, ez genuen irabazi. Hala ere, txapeldunorde koparekin bueltatu ginen etxera.

**Zenbat emakumezkoak parte hartu duzue?**

Zazpi bikote ginen, hau da, 14 emakume guztira. Bikote bakoitzaren aurka partiduak egin genituen, lau irabazi eta bi galdu genituen, eta finalerdietara pasatzea lortu genuen. Finalerdia gogorra izan arren –finala hauen aurka galdu baikenuen– irabaztea lortu genuen, eta finalera pasatu ginen. Finala ere ongi hasi genuen baina gero ez genuen irabaztea lortu.

**Nola animatuko zenituzke emakumezkoak fronteniserara?**

Lagun artean denbora pasatzeko modu polita da. Era berean, txapelketek jendea ezagutzeko aukera ematen dute.

**Nola ikusten duzu frontenisaren etorkizuna?**

Jende gehiago aritzen hasi dela iruditzen zait. Herriko tiki eta gaztetxoak ere maiz ikusten ditut herriko plazan eta horrek poztasuna sortzen du. Nire ustez horrela segituz gero, herrian eta inguruan afizio polita sortuko da.



## 60-65 urte bitartekoek uztailaren 15ean hartuko dute bigarren dosia

**M. ERDOZAIN**

Txertaketek aitzinera segitzen dute. Apirilaren 22an 60-65 urte bitartekoek Astrazeneca markaren lehendabiziko txertoa jaso zuten (400 lagun inguruk) eta bigarren dosia heldu den uztailaren 15ean jasoko dute.

Apirilaren 27an, berriz, 70 urtetik gorakoek Pfizer izenekoaren bigarren txertoa jaso zuten (750 lagun inguruk). Bi txertaketetan ez zen inolako eragozpenik sortu eta txertoa jaso zutenak poz-pozik gelditu ziren.



Rosario txertaketan.

Argazkian ikusten denez, Doneztebeko kiroldegiko Rosariok ere berari zegokion txertoa jaso zuen. Aitzinetik, gainera, auzolan erraldoian parte hartu zuen.

## Herriko lanetarako bi langile kontratatuak Zubietan

Zubietako Udalak bi langile kontratatu ditu. Sei hilabetez Karmele Martin eta Orkatz Garatea izanen dira herria txukuntzen ariko direnak.

## Mattin Leiza Jostxo Ezkurra memorialeko finalean

Aurtizko Mattin Leiza Jostxo Ezkurra pilota memorialaren finalean izan zen eta Barañaingo Antimaberesen aurka galdu zuen 18-5. Errekako pilotarien artean egindako txapelketa, berriz, irabazi egin zuen.



Mattin Leiza.

## Liburuaren Eguna ospatu dute Pulunpa eskolan

Apirilean Liburuaren Eguna ospatu zuten Pulunpan. Ttikienek orri markatzaileak eta kokorrek aurkezpen grabatuak egin ez zioten keinu.



UTZITAKOAK

## Ikasgelako «presioa» karrikan salatuz

Eskualdeko hainbat ikaslek 'Nazkatuta gaudelako ikasleria martxan' goiburupean Iruñean egin manifestazioarekin bat egin zuten. Hezkuntza sistemaren arazoak ageriko egin, ikasgelak ixtearen zama nabarmendu eta bizi duten egoera salatzearekin batera, ikasleen hitza aditzeko eta protokolo eraginkorrek martxan jartzeko eskatu zuten.

**CTL**  
formación  
imagen • sonido  
Tel. 948291756

**IRUDIA ETA SOINUA LH  
ERDI MAILA  
ETA GOI MAILAK  
IRUÑEAN**




**ERRESERBATU  
ZURE PLAZA**

**Trebatu gustuko  
duzun horretan!**  
Bisitatu gure webgunea  
[www.ctl-online.com](http://www.ctl-online.com)

# DEMOGRAFIA

## UDALERRIAK ETA DESPOPULAZIO MAILA 2021



1	ARANO
2	ARANTZA
3	ARESO
4	BAZTAN
5	BEINTZA-LABAIEN
6	BERA
7	BERTIZARANA
8	DONAMARIA
9	DONEZTEBE
10	ELGORRIAGA
11	ERATSUN
12	ETXALAR
13	EZKURRA
14	GOIZUETA
15	IGANTZI
16	ITUREN
17	LEITZA
18	LESAKA
19	OIZ
20	SALDIAS
21	SUNBILLA
22	URDAZUBI
23	URROZ
24	ZUBIETA
25	ZUGARRAMURDI

## Eskualdeko lau udalerrri despopulatzeko muturreko arriskuan

Nafarroako Gobernuak despopulazioari buruz egin duen azken ikerketan agerienez, Goizueta, Ezkurra, Eratsun eta Beintza-Labaien despopulatzeko muturreko arriskuan daude. Aranok, aldiz, despopulatzeko arrisku nabarmena du eta bertze bederatzi udalerririk arrisku handia dute

### TTIPI-TTAPA

Berriki Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesioeko Departamentuak jakitera eman duenaren arabera, toki-erakundeentzat 1,7 milioi euroko bilaguntza-deialdi egingen dituzte, «arriskuan dauden herri horietan despopulazioa arintzeko ekintzak eta inbertsioak bultzatzeko». Zehazki, «udal zerbitzu publikoak hobetzen edota handitzen lagunduko duten dirulaguntzak» iragarri ditu. Despopulatzeko arriskua duten Nafarroako 132 udalerririk izanen dute dirulaguntza eskatzeko aukera eta, jarduera eta egitasmo horiek 2021eko azaroaren 15erako eginak egon beharko dute.

### Azpiegitura lanak egiteko 1,2 milioi euro

Lehenengo laguntza-lerroa 1,2 milioi eurokoa da eta demografiaren erronkari aurre egiteko eta herrietako azpiegiturak hobetzeko izanen da. Zehazki, finantzarriak izanen dira administrazio-, gizarte-, kultura-, kirol- eta turismo-erabilerarako azpiegiturak eraikitzeko, handitzeko edo berritzeko lanak, bai eta alo-

**«LAGUNDUKO DIREN  
LANAK AZAROAREN  
15ERAKO EGINAK  
EGON BEHAR DUTE»**

kairurako etxebizitzak berrietzeko eta/edo erosteko lanak ere.

### 500.000 euro zerbitzuak indartzeko

Bigarren deialdia 500.000 eurokoa da, eta despopulazioa arintzeko gastu arrunteko jarduerak eta proiektuak finantzatzea du helburu. Finantzarriak izanen dira Nafarroako despopulazioaren aurkako estrategiaren inguruan planteatutako eskaerei eta premiei erantzuna ematen laguntzen dieten jarduerak, honako arlo hauetan: berrikuntza eta ekintzailtza; pertsona eta kolektiboentzako zerbitzuak (adinekoak, men-

dekotasuna dutenak, gazteak, emakumeak, familiak, baztertuta gelditzeko arriskuan dauden kolektiboak, egoera ahulean daudenak...); elkarlanean zerbitzuak eta jarduerak; mugikortasuna errazteko zerbitzuak; landa- turismoa eta merkataritza; herriko ondarearekin eta naturako ondarearekin lotutako zerbitzuak eta, oro har, herrietako balioekin jarrera positiboak sortzeko laguntzen duten jarduerak.

### Herriak eta despopulazio-maila

Despopulazio-maila zehazteko, bi parametro hartu dituzte kontuan: biztanleriaren dentsitatea eta azken 30 urteotako (1989-2019) biztanle-galera.

Azterketa horren bitartez, despopulazio-eremuak zehaztu ahal izanen dira, lurralde- eta biztanleria egiturari dagokionez antzeko ezaugarriak dituzten udalerririk bilduz, eta, sailkapen hori, despopulazioaren eta erronka demografikoaren aurkako politikak ezartzeko erabiliko da.

Nafarroan, lau udalerririk bat despopulatzeko arrisku larrian dago, hau da, Foru Komunitateko 272 udalerririk 77 daude egoera horretan.

# ARNASA GARA

## EGUNEROKOAN ZER?



**Arnasa Gara** kanpainak, zortzi bideo laburren bidez, euskararen arnaguneetan ohikoak diren egoerak erakusten ditu, horien inguruan hausnartzeko.

Euskarari bizi-bizirik eusten dioten udalerriak dira **arnasguneak**. Euskararen biziberritzean berebiziko garrantzia dute, eta benetako arnasa dira gure hizkuntzarentzat.

[www.arnasagara.eus](http://www.arnasagara.eus)

martxoaren 22tik maiatzaren 14ra

astero bideo bat eta  
elkarrizketa bat



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGUISTICA



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernuak



**UDALERRI**  
**EUSKALDUNEN**  
**MANKOMUNITATEA**

## 'Bideak' dokumentala ikusgai maiatzaren 30ean

Dokumentala ikusteaz gain, Aritz Ganboa Goizuetara etorriko da dokumentalaren inguruko azalpenak ematera

### TTIPI-TTAPA

Apirilaren 17an eman zuten *Non dago Mikel?* dokumentalaren ondotik, *Bideak* dokumentalak osatuko du Udalak, Kultur Taldeak eta Euskara Zerbitzuak elkarlanean antolatutako maiatzeko kultur agenda.

Aritz Ganboa de Miguel Arruazuko artzainaren erronkari buruzko dokumentala da *Bideak*. Joan den urtean, gazta eskuetan hartuta, Ganboak lasterka egin zuen Arruazutik Izabarako bidea, landa eremua eta artzaintza balioan jartzeko helburuarekin. Joan den abenduan estreinatu zuten Iruñean eta geroztik, han eta hemen pantailarazten ari dira. Hain zuzen, hilabeteko azken igandean, maiatzaren 30ean, Ganbaran ikusteko aukera izanen da, 18:00etan. Gainera,



Ganboa Goizuetara etorriko da.

Ganboa bera ere hor izanen da.

Antolatzaileek helduentzako dokumentala dela aurreratu dute.



UTZITAKOA

## Iruñera desadostasuna adieraztera

Nafarroako Hezkuntza Departamentuak Leitzako Amazabal institutuan egin dituen murrizketak salatzeako elkarretaratzea egin zuten apirilaren 24an Iruñean, eta herritarrek ere ez zuten hutsik egin hitzorduan. Haur, gazte eta gurasoen artean 40 goizuetar joan ziren Iruñera.



Udal hautetsiek taldeko argazkia atera zuten apirilaren 22ko bilera. ELENA IRIGOIEN

## Mimukairen parte-hartze prozesuko bilera egin dute udal hautetsiek

### TTIPI-TTAPA

Mimukai proiektuaren baitan egiten ari diren parte-hartze prozesuko zazpigarren saioa apirilaren 22an Goizuetan egin zuten. Kasu horretan eskualdeko hautetsiek eta Cederna Garalur elkarteko eskualdeko teknikariaren arabera, «ez zen erabakiak hartzeko bilera izan baina eztabaida sortu zen eta ekarpen interesgarriak bildu genituen». Aurrera begira eman beharreko pausoez ere mintzatu ziren.

### Hainbat gai eztabaidagai

Bileran orain arteko prozesuaren nondik norakoak azaltzeaz gain, lehenengo, bigarren eta hirugarren sektoreetan ari

diren eskualdeko enpresen datuak mahai gainean jarri zituzten eta Mimukai juridikoki egituratzeko aukerez ere aritu ziren. Elena Irigoien Cederna Garalur elkarteko eskualdeko teknikariaren arabera, «ez zen erabakiak hartzeko bilera izan baina eztabaida sortu zen eta ekarpen interesgarriak bildu genituen». Aurrera begira eman beharreko pausoez ere mintzatu ziren.


Aste honetan bukatuko da Mimukairen parte-hartze prozesua, ostegunean, maiatzaren 6an, Leitzako Herri Aretoan egingen den saioarekin.



GOIZUTRAIL

## Aurtengo Goizutrail ere bertan behera

Osasun egoera izan zen joan den urtean Goizutrail mendi lasterketa bertan behera uzteko arrazoia, eta hala izan da aurtun ere. Maiatzaren 15ean egitekoa zen lasterketaren zazpigarren edizioa, baina antolatzaileek, «penaz», aurtengo edizioa ere ez egitea erabaki dute.



Araztegiaren planoak.

## Urte bukaerarako martxan izanen da araztegi berria

Maiatzean edo ekainean hasiko dira Lorentxoren bordako bide ondoan araztegia eraikitzen

### TTIPI-TTAPA

Proiektua bukatuta, maiatzean edo ekainean hasiko dira Lorentxoren bordako bide ondoan araztegi berria eraikitzen eta Joxan Ruiz alkateak TTIPI-TTAPARI kontatu dionez, «bospasei hilabeteko obra izanen da. Urri edo azaro alderako egingen dute eta urte bukaerarako martxan izatea espero dugu». Udan egitea erabaki dute «maldaren egonkortasuna bermatzeko eguraldi lehorrerako egokiagoa delako». Gisa honetara, «aspalditik ezinbestekoa zen azpiegitura» egia bilakatuko da alkatearen hitzetan.

Izan ere araztegi zaharra aspalditik egoera kaskarrean egon da: «Duela bederatzi urte Herri Aiherriz taldea udalean sartu ginenean araztegia ez zegoela egoera onean ikusi genuen, baina 25 bat urte izanen zituen horrela. Hodiak mugituak eta txikituak zituela konturatu ginen eta berrikuntza behar zuela». Hori horrela, NILSA erakunde publikora jo zuten eta «bederatzi urte beranduago etorri zaigu

orduko eskaera haren erantzuna».

Araztegi berria «herriak behar duen azpiegitura» izanen delakoan dago Ruiz. Alde batetik, «herriaren biziraupena bermatzeko ezinbestekotzat» jo du eta bestetik, «Arano herri jasangarri izateko bidean» lagunduko duela azpimarratu du: «uraren osasuna oso garrantzitsua da eta horretarako ezinbestekoa da errekek ahalik eta garbien mantentzea eta zaintzea».

Bestalde, araztegiaren ezauzgarri buruz ere aritu da al-

**«ARAZTEGIA ASPALDITIK EZINBESTEKOA ZEN»**

**«HERRI BATEK BIZIRAUTEKO AZPIEGITURAK BEHAR DITU»**

JOXAN RUIZ, ALKATEA

katea. «Argindarrak gabekoa izanen da, dekantazio bidez funtzionatuko du».

### Obra NILSaren gain

Nilsak bere gain hartuko du obra: lanen aurrekontua 470.000 bat eurokoa da, eta saneamendu-kanonaren bidez finantzatuko dute. Horri udalak joan den urtean, dirulaguntzak erabiliz, herriko saneamenduko hoditeriak berritzeko egindako obra gehitu behar zaio: «Guztira 600.000 euro baino gehiago izanen dira», aipatu du alkateak. Egindako obren harira, «lanak lurra altxatu gabe egin zituztela» gaineratu du.

Araztegiaren gain, NILSAk «Goiko Herriaren eta Beheko Herriaren arteko lotura eta Beheko Herriaren araztegiara doan hustubidea» egingen ditu eta hori baino lehen araztegi-ko sarbidea ere bai.

### «Ez hori bakarrik»

Alkateak nabarmendu duenez, hori izanen da «udalaren aurtengo proiektu nagusia». Baina argi utzi nahi izan du «herri batek bizirauteko azpiegiturak eta zerbitzuak behar-beharrezkoak dituela. Araztegia ezinbestekoa da, baina ez hori bakarrik. Denetarik behar dugu». Eta Aranoko lehentasunei begira jasota, «leku estalia edo frontoiari estalpea ematea» eskatu du, sinetsita dagoelako halakoak «herri baten iraunkortasuna berraztertze gakoak» direla.



lazko azoka ibiltarian hartuko irudia.

## Igandean Araitzen hasiko da azoka ibiltarien denboraldia

### TTIPI-TTAPA

Apirilaren 25ean Leitza jarria zuten Mendialdeko azoka ibiltarien denboraldiari hasiera emateko hitzordua, baina koronabirusa tarteko aurreko egunetan Leitza atzemandako kasu positiboaren gorakada kontuan hartuta, ekainera atzeratzea erabaki zuten. Hori horrela, igande honetan, maiatzaren 9an, Araitzen egingen dute mendialdeko azoka ibiltariaren lehenbiziko feria. Hurrengo maiatzaren 23an Aldatzen (Larraun) izanen da eta ekaineko bi hitzorduak eskualdean egingen dituzte: ekainaren 6an Leitza eta 20an Goizuetan. Uztailaren 4an Latasan (Imotz) egin nahi dute azoka eta uztailaren 25ean Basaburuan. Abuztuaren 14an Aresok hartuko du lekukoa, irailaren 18an Atetzek eta azaroaren 7an, azkenik, Lekunberrik.

### Habelarteren aurkezpena ekainean

Apirilaren 25ean Leitza egitekoa zuten azokaren barne, Habelarte mendialdeko base-rritar agroekologikoen elkar-teen aurkezpen ofiziala iragarria zuten, baina azokarekin batera, Habelarte jendaurrean aurkezteko zita ekainaren 6an egingen dute.

# Jangelarik gabe eta ordutegi bateratua institutuan

Gurasoek eta Ikasle Abertzaleek konponbidea eskatu diete Nafarroako Gobernuari eta udalei

## TTIPI-TTAPA

DBHko ikasleak jangela zerbitzurik gabe eta DBHkoak eta Batxilergokoak ordutegi bateratuarekin. Horixe da gaur-gaurkoz Amazabal institutuan datorren ikasturterako aurreikusitua; batetik, Nafarroako Gobernuak jangela zerbitzurik gabe dirulaguntza kendu duelako, eta bestetik, eskola kontseiluak ordutegiak bateratzearen alde egin duelako. Garraio zerbitzuari dagokionez, autobusa elkarrekin hartzeko aukera izanen dute, baina guraso elkartearen hitzetan, «horrekin du Batxilergoko ikasleen garraioa bermatzen. Tokia baldin badago DBHkoekin autobusean sartuko dira. Zuzendaritzak egindako kalkuluen arabera, hurrengo ikasturtean autobusean denentzako tokia izanen da baina...».

Erabakien ondorioekin ez daude ados eta hala adierazi zuten apirilaren 24an Iruñean egindako elkarretaratzean: «Gure seme-alabek derrigorrezko eta goi-mailako ikasketak egiteko dituzten zailtasunak ikaragarriak dira!».

Maria Txibite Nafarroako presidenteari eta Carlos Gimeno Hezkuntza kontseilariri ere zuzendu zieten mezua: «Non daude despopulazioaren aurkako laguntzak? Ez al gara gu ere nafarrak?». Hala, «herri hauen errealitatea aintzat hartzea» eskatu zuten eta aldi berean, «institutuko orain arteko ordutegiak (ez bateratua) eta DBHkoen jangela zerbitzua mantentzea» exijitu zuten, baita «garraio publikoa edo batxilergoko ikasleen garraioa bermatzea» ere.

Guraso elkartek «egin ahal genuen guztia egin dugula» ere adierazi du; «hemendik aurrera gobernu eta udalak dirulanean jarraitu behar dutenak».

## Ikasle Abertzaleak konponbidea eske

Ikasle Abertzaleek ere konponbidea eskatu dute. «Heziketa-prozesua modu duin batean egiteko geroz eta oztopo gehiago» daudela kritikatu dute, eta horren adibide, «hezkuntza publikoan egindako murrizketak» aipatu dituzte. Beraien kasuan, «jangela kenduz gero, Batxilergoko garraioa zintzilik geratuko litzateke. 14:20ean aterako litzateke autobusa DBHkoentzat eta horiek bazkaldu gabe eta Batxilergokoak garraiorik gabe geratuko ginateke». Hala, «Amazabal BHIn Batxilergo ikasketak desagertzeko» arriskuan ikusten dituzte. «Hezkuntza Departamentuak emandako beste aukera bat ikasle guztiak ordutegi bateratua izatea da. Honek, ordea, klase orduak goizago hasteaz gain, DBHkoak eskolan ordu gehiago egotea suposatuko luke eta Batxilergokoak garraioa ziurtatua ez izatea».

«Ikasleok kaltetuko ez gaituen konponbide bat» exijitu dute. «Gobernuak manten dezala jantokia eta beharrezko garraioa. Jantokia kenduz gero, jar ditzala autobus gehiago». Ez hori bakarrik: «gobernuak arduragabe jokatzeko erabakitzen badu, udalei eskatzen diegu aipatutako soluzioetako bat gauzatu dezaten; izan ere, zertarako erabili diru publikoa, ikasleon ikas baldintzak hobetzeko ez bada?».

## Film laburren IX. txapelketa abian jarri du gaztetxeak

Iazko pausaren ondotik, Ate-kabeltz Gaztetxeak martxan jarri du Film Labur Txapelketaren bederatzigarrena edizioa. Ekainaren 12a da lanak aurkezteko azken eguna eta adierazi dutenez, gehienez hamar minutuko film laburrak aurkeztu ahal izanen dira.

## Dokumentalak eta antzerkiak ondoko asteburuetan

Larunbatean, hilaren 8an, *Non dago Mikel?* dokumentala ikusgai izanen da Herri Aretoan, 17:30ean eta 19:30ean. Maiatzaren 15ean *Antzerki solidario espaziala* egingen dute (17:00etan eta 19:00etan) eta 16an Dardara dokumentala ikusgai izanen da, 17:00etan eta 19:30ean.



LEITZAKO LIBURUTEGIA

## Poesia egiteko gonbidapena liburutegian

Leitzako liburutegiak egunkari edo aldizkari zatiekin poesia sortzeko deia egin die herritarrei. Olerkiak asmatuta argazkia atera eta liburutegiko Whatsapp zenbakira bidaltzeko gonbidapena ere egin dute (617 38 58 82). Hala ere, liburutegian bertan ere bada horretarako aukera, poesiaren txokoan.



ATEKABELTZ HERRIGUNEA

## Aroztegiko proiektua gelditzeko eskaria

Lekarozko Aroztegi proiektua geldiarazteko Lekarozen egiten ari diren kanpaleku mugagabeari «elkartasun osoa» adierazi nahi izan diote Ate-kabeltz Herriguneko kideek. Ez hori bakarrik. Apirilaren 26an Aroztegi joateko bi deialdi egin zituzten.



Haur eskolan ere gaia lantzen aritu dira.

## Diru ekarpenak egiteko bidea ireki du LHL erronkak

Horrez gain, herri lan-sarea hedatzen ari den seinale «lanaren fruituak» biltzen ari direla adierazi dute bultzatzaileek

### TTIPI-TTAPA

Otsail erdialdean aurkeztu zuten LHL erronka eta geroztik gelditu gabe lanean ari dira. Berriki, adibidez, webgunea estreinatu dute: [www.lhl.eus](http://www.lhl.eus).

Askotariko informazioa bildu dute Interneteko atarian, tartean *Erosi zure metroa* atala. Diru ekarpena eginez proiektuarekin bat egiteko zabaldu dute eta Iraitz Uriartek eta Iker Gomezek korrika eginen dituzten adina metro osatu nahi dituzte. Hiru bide izanen dira dohaintza egiteko: Bizum bidez GKE edo kanpainen atalean *LHL inklusio erronka* aurkituta; transferentzia bidez Laboral Kutxan; edo kalean jarriko dituzten mahaietan. Ostiraleko, 19:00etatik 20:00etara plazan izanen dira, baita beste emanaldi eta azoka egunetan ere.

### Bi emanaldi Herri Aretoan

Hortik harago, bi emanaldi ere antolatu dituzte Herri Aretoan. Maiatzaren 15ean, 17:00etan eta 19:00etan, «LHL erronka aurkezteaz gain, *Luzek* eta haren lagunek *Antzerki solidario espaziala* eskainiko dute, eta,

ondoren, film labur batzuk ikusiko ditugu». Maiatzaren 21ean, berriz, goi mailako kirola izanen dute hizpide hiru kirolarik aniztasun funtzionalaren begiradatik.

### Herri lan-sarea lanean

Kontatu dutenez, «herriko eragile askok egin dute bat gure proiektuarekin, eta dagoeneko baditugu haien lanaren fruituak. Sekulako lana eta ahalegina egin dute Erleta eskolako ikasle zein irakasleek LHL erronkaren irudi bilakatuko den logoa egiten. Proposamen zoragarri asko jaso ditugu; Amazabal institutuko ikasleak LHL erronkaren kamiseta diseinatu dute eta Atekabeltz Herrigunekoek kamisetak serigrafiatuko dizkigute; Aingeru Zabaleta leitzarrak, zurgintzako ikasleekin, errotondan jartzeko egurrezko egitura bat prestatu digu». Proposamen horiek guztiak udaltxean eginen duten erakusketak jarriko dituzte.

Bestalde, «txikienak sensibilizatzea ezinbestekoa» dela iritzita, «gaiari lotutako *Lauki-txoaren istorioa* ipuina» landu dute Itziare haur eskolan.

## Mimukai proiektuaren parte-hartze prozesua ostegunean bukatuko da

Ostegun honetan, hilaren 6an egingen dute Mimukai proiektuaren parte-hartze prozesuko azken saioa. Saio irekia izanen da eta Herri Aretoan bilduko dira, 17:00etatik 19:00etara. Mikel Zabaleta alkateak TTIPI-TTAPARI esan dionez, proiektua zertan den azaltzeaz gain, pro-

zesuaren berri eman eta azken ekarpenak bilduko dituzte. Mikel Irujo Nafarroako Gobernuako industria kontseilaria ere bertan izanen dela aurreratu du alkateak, eta pozik azaldu da «orain arte egin diren zazpi saioetan 160 parte-hartzaile baino gehiago izan direlako».

## Doneztebeko memorialean txapeldun Zabaleta

XXX. Josetxo Ezkurra Memorialeko finalak jokatu zituzten apirilaren 24an Donezteben eta kimuen mailan txapeldun izan zen Goiuri Zabaleta herritarra. Oberenako Leire Oskozi 18 - 14 irabazi zion.



Orain arte egin dituztenen saioen inguruan «oso balorazio positiboa» egin dute.

## Emakume indigenei osasuna hobetzen laguntzeko tailerra maiatzaren 31ra arte

### TTIPI-TTAPA

«Leitzan bizi diren emakume indigenek askotan adierazi dute kirola eta gorputz lanekta gustura eginen luketela, baina ariketa fisikoa egiteko zailtasunak dituzte eta horrek askotan haien osasunean eragina izaten duela ikusi dugu». Horri erantzuteko, Gizarte

Zerbitzuen Mankomunitateko gizarteratze eta berdintasun programak *Zure gorputza maitatu* tailerra jarri du martxan, «emakume indigenek beren osasuna hobetzeko aukera izan dezaten». Martxoaren 22an hasi ziren eta maiatzaren 31ra arte astelehenero Atekabeltzen bilduko dira, 17:30etik 18:30era.

# «Torturen errudunak zigorrik gabe goxogoxo joaten ari dira»

JUAN ARANGOIA SATRUSTEGI ANPARO ARANGOIA ZENAREN ANAIA

1976ko apirilaren 21ean atxilotu zuten Anparo Arangoia eta jasandako kolpeen ondoren egin zizkioten argazkiek oihartzun zabala izan zuten. 45 urte beranduago, orduko kontuez aritu da Juan anaia

G. PIKABEA LEITZA

«Irudi hura betiko geldituko zaigu, familiarentzat ikaragarriko kolpea izan zen, baina Anparori atera zizkioten argazki haiek torturatzen zela baieztatzeko balio izan zuten, aurretik bagenekiena agerian jarri zuten». Halaxe mintzo da Juan Arangoia Satrustegi, Anparo zenaren anaia. Duela 45 urteko kontuez ari da, hunkituta, etageroztik «denbora asko» pasatu den arren, ez ditu ahaztuak. Gaiar aritzea «gogorra» egiten zaiola ere adierazi du, baina garbi zuen kontatu nahi zuela, «jendeak zer gertatu zen jakitea nahi dugulako».

## Nolakoa zen Anparo gaztetan?

Bost senide ginen, bi neska eta hiru mutil, ni hirugarrena eta Anparo bigarrena, eta neska alaia zen. Lagun asko zituen, txistua jotzen zuen eta mundu guziari bezala, juerga gustatzen zitzaion. Baina aldi berean bere eginbeharretan oso diziplinatua zen. Langile mugimenduarrekin oso inplikaturik zegoen.

## Duela 45 urte, 1976ko apirilaren 21ean atxilotu eta torturatu zuten Anparo. Nola oroitzen duzue gertakari hori familian?

Denbora asko pasatu da, baina gertatu zena hor dago eta beti hor egonen da. Denoi markatu zigun, baina ez dugu askorik hitz egiten horri buruz...

## Lantegi atarian atxilotu zuten...

Bai, guardia zibilak Sarrio atarira joan ziren bere bila. Aurreko egunean Pako anaia atxilotua zuten Tolosan, eta



Juan Arangoiak torturen errudunak «inpunitate osoa» dutela salatu du.

bagenekien hurrengoa Anparo izanen zela, langile mugimenduan gehien inplikaturikoa bera zelako. Ni ere atxilotu ninduten, baina nire kasuan, Leitzako kuartelera eraman ninduten, ez Tolosara. Galdera pila egin zizkidaten, eta goizaldean han nintzela ikaragarriko soinukaditu nituen. Gerora jakin nuen Anparo Tolosatik Leitzako kuartelera ekarri zutela, eta guardia zibilen emazteak bere egoera ikusita aztoratu zirela. Mugimendu handia sortu zen. Bat-batean, guardia zibil bat niregana etorri eta 'igual zu etxera bidaliko zaitugu' esan zidan. Harritu nintzen. Leitzako beste talde bat ere atxilotua zuten eta haiek han geldiarazi zituz-

ten eta ni, berriz, galdeketa egin eta presio pixka bat sartu ondoren, libre utzi ninduten. Zer gertatu zen?

Anparo Tolosako kuarteletik bueltan Leitzara ekarri zuten, baina oso-oso larri. Hain gaizki zegoela ikusita, Leitzako medikuak berak Iruñeko ospitalera eraman zuen, eta medikuaren bitartez jakin genuen ospitalean oso larri zegoela. Arreba zaharrena eta biok joan ginen Iruñera. Inguru guztia guardia zibilez bete topatu genuen eta ez ziguten sartzen utzi. Baina erizain batzuen bitartez nolabait bere gelara sartzea lortu genuen. Txikitu-ta ikusi genuen, ikustekoa zen... Han geundela Jabier Yaben eta Patxi Zabaleta sartu ziren eta

gelan zegoen guardia zibila gelatik aterarazi zuten. Anparori egin ziotena onartezina zela esan zuten eta Yabenek argazkiak ateratzeko baimena eskatu zion. Anparok baietz erantzun zion. Aurretik arreba zaharrena argazkiak ateratzeko txukuntzen aritu zen. Izan ere, ikustekoa zen nola zegoen, ileak nonahi zintzilik zituen... Yabenek argazkiak egin eta berehala martxa egin zuen, argazki-kamera kentzeko beldurrez.

## Argazki haiek publikatu egin zituzten eta mundu osoan ezagun egin ziren...

Bai, oso irudi gogorak dira eta guretzat ikaragarriko kolpea izan zen, baina aldi berean, torturatzen zela baieztatzeko balio izan zuten. Lehendik ere bagenekien, baina ukatu egiten zuten, eta argazki haiei esker agerian gelditu zen. Argazkiek Anparori egin ziotena ezagun egin zuten, baina egun hartan Leitzako talde oso bat torturatu zuten. Pako anaia eta herriko beste hainbat hiru egunez eduki zituzten eta tortura gogorak aguantatu behar izan zituzten. Anparoren kasuan, ordea, bera hartzeko hainbesteko gogoia zuten, sei-zortzi orduz txikitu baitzuten, esku-tatik alde egin zien.

## 2019 urtarrilean sei lagunek, tartean Anparoren izenean zuk, 1975 eta 1976 urteen artean guardia zibilaren Tolosako kuartelean Jesus Muñecas Aguilar kapitainaren aldetik torturatuak izan zirela salatu zenuten Tolosako epaitegian. Zein bide egin du salaketak geroztik?

Kasua Maria Servini Argentinako epailearen esku dago. Argi genuen gauza handirik ez genuela lortuko, baina jendeak zer gertatu zen jakitea nahi dugu eta horregatik erabaki genuen salatzea. Bidea oso zaila izaten ari da, oztupoak han eta oztupoak hemen. Agerian gelditu da tortura horien errudunak oso babestuak daudela, inpunitate osoa dutela, eta ohean goxo-goxo joaten ari dira inolako zigorrik jaso gabe.



## Mendian eroritako arbolei aterabidea eman die udalak

Herritarrek 43 eskaera egin dituzte eroritako arbolak eskuratzeko

### TTIPI-TTAPA

Neguan izandako haizeteen ondorioz Aresoko mendi komunalean eroritako arbolak eskuratzeko aukera eman zien herritarrei udalak. 85 euroren truke eskura zezaketen lotea eta handia izan zen piztutako interesa, 43 eskatzaile izan baitziren.

Apirilaren 26an egin zuten Hirumugarrieta, Ulizar, Zozono eta Peñan osatutako loteen banaketa, aurreko urteetako loteen banaketarako erabilitako sistema berdina erabiliz.

### Interesatu guztientzako loteak

Zerrendan izena emandako herritar bakoitzak udaletxera joan, zenbakia atera eta momentuan ordaindu behar izan zuen. Banatzeko 50 lote zaudenez izena emandako guztiek jaso zuten berea.



ENERITZ IRAOLA

## Noiz ikusiko ote dugu berriz plaza beteta?

1899ko argazkia duzue, plazan ahari jokoak egiten zirenekoa. Blusa beltzak eta txapelak beheko aldean, gona luze eta mandarrak goian... berezia da irudia. Are bereziagoa bizi dugun egoeran, aspaldian ez da eta halako jendeketarik izan plazan. Animo, geroz eta gutxiago falta da plaza berriro jendez beteta ikusteko.

## Liburutegi ibiltaria maiatzera atzeratua

Apirileko azkeneko astean egitekoa zuen bisita liburutegi

ibiltariak baina atzeratu beharra izan dute. Gauzak

ongi bidean, maiatz hasieran etorriko dira. Liburuzainak liburuak lasai eskatzeko deia egin du, banaketa egunera arte gordeko dizkiete eta.



ENERGIA BERRIZTAGARRIEN FORMAKUNTZAK

Energia Berriztagarrien  
Goi Mailako Zentro  
Integratua EBGZI

Gobierno de Navarra



Nafarroako Gobernua

## Ate irekien jardunaldia

### ZENTROAREN AURKEZPENA GURE WEBGUNEAN:

Bisita lezaguzu modu birtualean [www.cenifer.com](http://www.cenifer.com)



**Informazio gehiago** [www.cenifer.com](http://www.cenifer.com)

### ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Sarbidetuzena DBHrekin

- > Uren tratamenduak sare eta araztegiak
- > Mantentze elektromekanikoa

### ENERGIA BERRIZTAGARRIEN GOI MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK

- > Energia berriztagarriak
- > Instalazio-eraginkortasuna eta eguzki-energia termikoa
- > Instalazio termikoak eta fluidodunen mantentzea
- > Zentral elektrikoak (klaseak online)

Aduana kalea z/g - Imarkoain - **Tel. 848 43 13 80**



Aintzane Ariztegi Barrenetxe lekaroztarra Aroztak herri ekimeneko kidea da.

## «Obra irregularraren kontra ez dira deus egiten ari»

**AINTZANE ARIZTEGI BARRENETXE AROZTAK HERRI EKIMENeko KIDEA**

Lekarozko Aroztegiko obrak geldiarazteko helburu argiarekin mugimendu handia sortu da Lekarozen eta Baztandik eta kanpotik elkartasun keinu ugari hartzen ari dira

**G. PIKABEA** LEKAROZ

Apiril hasieran hasi zituzten Lekarozko Aroztegian obrak eta geroztik obraren aurkako mugimendu handia sortu da Baztanen eta Baztandik kanpo. Baztango alkateak eta herrietako bertze zortzi alkatek bat egin dute Lekarozko Herriarekin eta Aroztak herri ekimenaren bueltan ere mugimendu handia sortu da, oraingoz obrak geldiarazi baitituzte. Ekimene-

neko kidea da Aintzane Ariztegi Barrenetxe lekaroztarra eta helburua argi dutela dio: «Aroztegiko proiektua geldiarazi nahi dugu». Bide horretan borrokarako prest agertu dira eta herritarrei «borrokara batzeko» deia egin die. Kanpaldi mugagabeari eutsi diote eta apirilaren 17ko elkarretaratze jendetsuaren ondotik, maiatzaren 15ean manifestazioa deitu dute Elizondon, 17:30ean.

**Nolako borroka izaten ari da?**

Hasieratik argi izan dugu borroka baketsua egingen genuela, eta hortaz, makinak zeuden tokira joan, han jarri eta handik ez mugitzea izan da erabili dugun bidea. Egia erran, hurbildu orduko gelditu dira makinak. Tarte horretan polizia behin baino gehiagotan etorri da jendea identifikatzera, baina hori ez da momentu honetan gehien kezkatzen

gaituena. Obrak geldiarazteaz gain, kanpaldia mantendu nahi dugu, gure presentziak obrarekin aitzinera segitzeko motelatzen dielako.

**Obrak ustekabean hasi zituzten edo espero zenuten?**

Obren hasierako akta sinatu zuten, baina herri mugimendua zenbaterainoko erantzuna emateko prest zegoen neurtzeko itxurakeria izan zela uste genuen. Gainera, baimenen bat falta zuten, eta bagenekien ezin zituztela obrak momentuan hasi. Baina, gure harri-durarako, hortik aste bat eskasera makinak agertu ziren eta segidan arbolak botatzen hasi ziren.

**Baimenak falta dituztela aipatu duzu. Azalduko zeniguke?**

Jauregiko obran, adibidez, Vianako Printzea Erakundearen txosten baten arabera, proiektuak ez ditu baldintza guztiak betetzen. Horrekin batera, obra egin behar duen Texenpresak baldintza guztiak betetzen ez zituela ikusita, horren kontra salaketa aurkeztu zen eta Texek helegitea aurkeztu bazuen ere, obren esleipenaren prozedura bere horretan gelditua zen. Geroztik ez Baztango Udalak ez herri mugimenduko kideek ez genuen jakinarazpenik hartu.

**Baina hasi ziren...**

Bai. Polizien aldetik gure erresistentziaren kontra jazarri nahian ari dira, baina obra irregularren kontra ez dute deus egin. Deigarria da holako obrak zaintzeko segurtasun pribatua paratzen dutela, baina kasu honetan Guardia Zibila da kasik eguneko 24 orduetan obra hauen zaintza-lana egiten ari dena. Hor ikusten da Aroztegia SL promotorearen eragiteko gaitasuna eta boterea. Polizia erakunde publikoa izanda ere, interes pribatuen arabera mugiaraztea lortu dute. **Nafarroako Gobernuaren jarrera ere salatu izan duzue...**

Bai. Proiektu hau lekaroztarren eta baztandarren hitzaren gaitetik eraman dute aitzinera. Udalez gaindiko plan sektorial

izendatuta, UGPS delako trikimailuarekin, proiektu honi Iruñetik eman diote baimena, baztandarren hitza errespetatu gabe. Eta gainera, nekazari ttikien lurrak eta herri lurrak desjabetu dituzte, dena interes pribatuaren mesedetan.

### Zer da bereziki kezkatzen zaituztena?

Bai Lekarozendako, baita Baztan guzirik ere, bomba bat izanen da. Aroztegiko makroproiektu horrek, bere 228 exekutibizita, luxuzko hotela eta golf-zelaiarekin, Baztanen azken urteetan abiatua den prozesua bizkortuko luke. Ekonomia turismora bideratu nahi da, eta bitarte horretan, herriak bizia galtzen ari dira, gazteok etxebizitzekin kristoren arazoak ditugu, lan prekarioak, nekazaritza galtzen ari da... Aroztegiko makroproiektua bezalako handinahikeria honek ez du ez hankarik eta ez bururik, Baztan suntsitzeko bertzerik ez da.

### Berehala antolatu eta Arozta herri ekimena sortu duzue. Nolako mugimendua duzue?

Aroztegiko makroproiektuaren gaia zuzenean, modu zabalean eta iraunkorrean lantzen duen herri ekimena da Arozta. Orain arte, Aroztegia eta gero zer? plataforma bide juridikoa lantzen saiatu da, Baztango Gazte Asanbladako kideak ere hor gaude... Baina Arozta, kanpaldiaren bitartez bertan kokatua dagoen, eta batzarren bidez modu irekian funtzionatzen duen herri ekimena da. Epe luzeko kontua izanen da.

### Kanpaldiaren inguruan, nolako balorazioa egingen zenuke?

Uste baino balorazio positiboagoa. Hasieran, kanpin-dendak muntatu gabe segidan botako gintuztela pentsatu genuen. Baina jazarpen poliziala izan den arren, buelta ematen jakin dugu. Jendearen aldetik ere babes handia hartu dugu eta gainera, hor egotea eskertu du. Lekarozko herri giro triste sumatzen da, eza-gutu dugun herria ez dugulako berriz ikusiko eta urte lu-



Arozta herri ekimenaren bueltan, hainbatetan geldiarazi dituzte obrak.



Jendetza bildu zen apirilaren 17an Lekarozen egindako elkarretaratzean.



Apirilaren 23an Tex enpresak makinak eraman zituen.

zetan Aroztegiko mitoa izan dena gorpuzten ari dela ikusita. Alde horretatik, Aroztegiko suntsipen hau geldiarazteko prest dagoen jendea badela ikustea jendeak aunitz eskertu du.

### Apirilaren 17ko elkarretaratzea jendetsua izan zen...

Arras positiboa, espero baino jende gehiago bildu zen. Nik uste kanpaldian egoteak gaiak behar duen indarra hartzen eta erresistentzia badela era-

kusten lagundu duela. Kanpaldian parte hartu ez duen jendeak bere ekarpena edo borroka elkarretaratzean adierazi nahi izan zuen eta Lekarozko herritarren, baztandarren eta Baztandik kanpoko herritarren babes sumatu genuen. **Herria mobilizatzearen garrantzia azpimarratu duzue. Hori da proiektua geldiarazteko bide bakarra?** Bai. UGPS eta horrelako trikimailuen bidez, gure agintariek salduak utzi gaituzte, eta horren

aitzinean gelditzen zaigun bide bakarra herri bezala geure burua defendatzea da. Ez litza-teke herritarrek sortutako olatu baten ondorioz geldiarazitako lehendabiziko proiektua izanen. Indarra hor dago, eta batzuek uste dutenaren kontra, ez gara lau katu. Udal hauteskundeetan edo herri galdeketan ikusi da Baztanen gehiengo Aroztegiko proiektuaren kontra dagoela, eta gehiengo hori karrikara atera eta mobilizatzea nahi dugu, Aroztegiko proiektuaren kontra zenbateko kontraktasuna dagoen ikus dezaten.

### Urteak daramatzazue proiektua geldiarazi nahian...

2008tik ari gara bueltaka eta tarte horretan kolpeak ez dira gutti izan, gehienbat Aroztegia eta gero zer? plataformakoen kontra, eta Baztango alkateen kontra. Baina hainbertze urteren ondotik hor segitzen dugu, proiektuaren kontrako borrokak indarrean segitzen du eta horrek Baztanen zenbateko garrantzia duen erakusten du. Gainera, borroka hori inoiz baino indartsuagoa da orain.

### Guardia Zibilaren eta Foruzaingoaren bisita izan duzue... Mobilizazioek ondorioz ekarriko dizkizuela uste duzue?

Segur aski bai. Hor sartu ginen momentutik bagenekien poliziaz jarrera hori hartuko zuela eta promotoreek, orain arte bezala, herri mugimenduaren indarra ahalik eta gehien murrizteko bide hori hartuko zutela. Espero genuen baina prest gaude horri aurre egiteko. Argi dugu kolektiboki aurre egingen diogula.

### Zein mezu luzatuko zenuke?

Baztanen eta Baztandik kanpo zenbateko suntsiketaren egiten ari diren ikusita –Aroztegiko inguru guziko prozesuaren erakusgarri baita–, borrokara batzeko mezua luzatuko nuke. Borrokan parte hartzeko mila modu daude eta guztiak ongi etorriak izanen dira. Gainera aitzinera egiteko beharrezkoa dugu.

# Eskutitzen arazoa konpontzea eskatu du Geroa Baik

Geroa Bairen arabera, 2012an aldatu ziren karrika izen eta zenbaki batzuek «arazoak» sortzen dituzte ez direlako eguneratu

## TTIPI-TTAPA

Baztango Geroa Baik Nafarroako Gobernuaren eskutitzak jasotzen ez dituzten elizondoarren arazoa konpontzeko mozioa aurkeztu du udalbatzan.

2012an karrika batzuen izenak eta zenbait atariren zenbakiak aldatu ondotik, udalak Nafarroako Gobernuari aldaketan berri eman zion. Hala ere, «gaur egun helbide zaharretara bidaltzen dituzte eskutitzak». Hori horrela, Geroa Baik Gobernuak datu basea eguneratzea proposatu du.

Era berean, herritarrek aldatetako jakinarazteko Iruñera joan beharrik ez izatea eskatu du. Horretarako, udala bitartekari lanaz arduratzea nahi dute «jabeei helbideak eguneratzeko beharra gogoraraziz eta horren jarraipena eginez».

Bertzalde, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikotik Covid-19 helbidera eskutitzak bidaltzen ari direla jakinik eta Baztanen halakorik ez dagoela kontuan hartuz, baztandarrei posta helbideetara bidaltzeko eskatzea nahi du.

## Artisauen azoka maiatzeko asteburuetan Elizondon

### TTIPI-TTAPA

Baztango Artisauak eta Baztango Zaporeak elkarrekin antolatuta, artisau azokak izanen dituzte maiatzeko Elizondon. Larunbatero, hau da, hilaren 8an, 15ean, 22an eta 29an, herriko plazan bilduko dira goiz osoz. Bertaratzen diren herri-

tar eta bisitariak 10:00etatik 14:00etara, lau orduz, postuz postuko buelta egin eta bertako artisauak mimo handiz egindako produktuak erosteko aukera paregabea izanen dute. Maiatzeko ezin duenak ondoko hilabeteetan ere izanen du aukerarik.



Horrelako irudirik ez dugu ikusiko aurtengo Arizkun Rock jaialdian. ARTXIBOKOA

## Jon Maia, Olaia Inziarte, Skabidean eta Tirri&Tery Arizkun Rocken

### TTIPI-TTAPA

Ezohiko moduan, baina izan izanen da Arizkun Rock jaialdia aurten. Ekainaren 19an, hirugarren larunbatean, ospatuko da Arizkongo frontoian. 18:00etan hasita (ateak 17:00etan irekiko dituzte), lau kontzertuz gozatuko dute ikusleek. Hasteko, Jon Maia

bertsolari eta abeslaria ohol-tzaratuko da; ondotik, Olaia Inziarte oronoz-mugairiarra; segidan, Skabidean taldearen txanda izanen da; eta akitzeko Tirri&Tery disc-jockeya. Apirilaren 18an paratu zituzten sarrerak salgai eta aste-buru horretan bertan guztiak saldu zituztela adierazi zuten.

## Isabel Coixeten tailerrean parte hartzeko castinga eginen dute maiatzaren 8an

### TTIPI-TTAPA

Isabel Coixet Castillo publizista eta zinema zuzendari katalanaren tailerrean parte hartzeko castinga eginen dute maiatzaren 8an, larunbatean, Elizondon. Zinemaren munduan interesa duten pertsonak eta lanbide tradizionalak dituztenak

eta ekainaren 3tik 12ra libre daudenak bilatzen dituzte. Izena ematen dutenak ondoko produkzioetarako kontaktuen zerrendan gordeko dituzte. Izena emateko [info@estudios-meliton.com](mailto:info@estudios-meliton.com) helbidera edo 663 30 30 60 telefonora WhatsAppa idatzi behar da.

**BRIKO**  
**LIMPIEZA, SL**

MOTA GUZTIETAKO  
GARBIKETAK:  
• etxeak  
• landetxeak  
• lokalak  
• komertzioak  
• enpresak

...  
**konfidantzazko zerbitzua**

T. 608 016 052  
San Andres, 66 · NARBARTE  
(Sarrera Legasatik)

**asegi asesorías**

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

[www.zergalan.es](http://www.zergalan.es) | [zergalan@asegi.es](mailto:zergalan@asegi.es)  
[www.asegi.com](http://www.asegi.com)

Baztanberri plaza, 6  
31700 ELIZONDO  
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1  
31780 BERA  
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22  
31740 DONEZTEBE  
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

# Udalak ez du onartu N-121-A autobia bihurtzeko eskaera

Navarra Sumaren proposamenaren aurka bozkatu zuten EH Bilduk, Ezkerrak eta Geroa Baik

## TTIPI-TTAPA

Navarra Sumak N-121-A errepedea autobia bihurtzeko idatzia aurkeztu zuen eta apirilaren 22ko bilkuran gaia mahai gainean paratu zuten. EH Bilduren, Ezkerraren eta Geroa Bairen hamar ordezkariak mozioaren aurka eman zuten botoa eta, Navarra Sumako hirurek alde.

## Nazioarteko garraioa «arazo»

EH Bilduk, bere botoa azaltzerakoan, N-121-A errepedea «Oronoztik Iruñerat, puntu beltzak kenduta ona» dela eta «arazoa gehiegizko trafikoa» dela nabarmendu zuen, baita «gehiiegizko trafiko hori nazioarteko zamaren garraioa» dela ere. Horregatik, bertze behin, nazioarteko zama garraioa desbideratzearen beharra aipatu zuen.

EH Bilduren arabera, «muga batetik aitzinerat errepede edo komunikazio azpiegitura berrien egiteak ez dakar inongo aitzinamendu ekonomikorik, gaurgero frogatu ahal izan den bezala». Alderdiaren ustez, «dinamismo ekonomikoan eragiten duen alderdiak aunitz dira; eta «autobia eta dinamismo ekonomikoa ez datoz beti bat». Horren adibide gisa Nafarroa Behereko egoera aipatu zuen: «horko errepedeen azpiegiturak gurearekin ez du deus ikustekorik, baina ekonomikoki ingurune bizia da, bertzeren artean jendeen laneko formazioan egiten duten eginahalagatik».

2021ean autobia nahi izatea «garaiairen kontra joatea» da EH Bilduren erranetan. Izan

ere, «Europako Batasunak karbono neutraltasuna 2050 urterako legez paratu berri du eta 2030erako berotegi gasen isurketen %55 murriztu nahi du».

Horrekin batera, batzarrean Nafarroako klima aldaketaren ibilbide orrian bildutako datuak ere ekarri nahi izan zituzten gogora: «2016an garraioen sektorea izan zen energiaren kontsumo handiena egin zuena herrialdean, errepede bidezko garraioak energia fosilen %52 kontsumitu zuen eta petrolio eratorrien %82».

Navarra Sumaren proposamena gaitzetsi zuen EH Bilduk: «azken aldian 40 agintari beroketa klimatikoaz mintzatuko dira eta, berotegi gasen isurketa murrizteaz arituko dira eta Navarra Sumak autobide gehiago, erregai fosil gehiago planteatzen du».

## Ekonomia birtokiratzearen alde EH Bildu

Arazoaren muina nazioarteko garraioan dagoela sinetsita dago: «Europar salgaien %18 gutxi goiti-beheiti trenez garraiatzen da, Austrian %42, Suedian %28 edo Alemanian %23. Nafarroan %1,6. Eta Navarra Sumak autobietan eta erregai fosiletan du burua» dio.

Konponbidea autobideak egin beharrean «ekonomia birtokiratzean» ikusten du: «salgaien mugimendua ttitu, energia-ardatz elektrikorik bidea egin... eta aurrekontuak horretara bideratu; ez autobideetarat».



Kariakaburu gol bat ospatzen. UTZITAKOIA

## Jon Kariakaburu elbetarra estatu mailako golegile nagusia da

### TTIPI-TTAPA

Espainiar estatuan 541 futbol talde daude lehen maila, bigarren maila, bigarren B maila eta hirugarren mailaren artean. 10.000 futbolari baino gehiago, profesionalak eta erdi profesionalak. Horien guztien artean golegile nagusia da Jon Kariakaburu Jaimerena, 18 urteko elbetarra. 25 gol eginak ditu Donostiako Real Sociedad klubeko hirugarren eta bigarren taldearen artean.

Kariakaburuk 23 partida jokatu ditu denboraldi honetan, gehienak hirugarren mailan, baina Xabi Alonsok gidatzen

duen bigarren B mailako Sanse taldean ere aritu da. Bi taldeetan sartu ditu golak, apirilaren 19ko asteburuan sartu zuenarekin 25. Partida bakoitzeko gol bat baino gehiago egin du. Gisa guztietakoak ditu gainera, eskuin eta ezker hankarekin, buruz, urrunetik eta hurbiletik, falta jaurtiketaz edo penaltiz.

Adituek diotenez, FC Barcelona taldeak begiz joa dauka, baina 2023 urtera arte Realarekin kontratua dauka, 35 milioi euroko etete-klausularekin eta kontratua berritzeko asmotan omen dabilta.

## CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE abokatua



Dibortzioak, herentziak, alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818  
Santiago, 59 2C ELIZONDO



## ANZABAL

inmoiliaria

- Inmoiliaria  
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak  
Autoa, etxebizitza, istrypu eta bititza aseguruak
- Lan aholkularitza  
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala  
Errenta Deklarazioa, BEZa...



Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

## Hondakin organikoendako kontainer marroiak paratu dituzte

### TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak, 'Ba al dakizu organikorik gabe birziklapena ez dela nahikoa?' lelopean, birziklapen datuak hobetzen segitzeko bertze pauso bat eman du, hondakin organikoak kontainer marroi bidez kudeatzeko aukera paratuz.

Euren arabera, «etxeetako hondakin poltsaren erdia gai organikoa da eta, ondorioz, sortutakoaren erdia birziklatzen dugu gehienez».

### Organikoa bereiztearen garrantzia

Gai organikoa, ongi bereiziz gero, aukera eta onura aunitz eskaintzen dituen hondakina dela nabarmendu dute: «lurrera itzultzen ahal dugun kalitatezko emendakin organikoa eta energia lortzeko aukera ematen digu, ekonomia zirkularerako aukera eskaintzen digu eta ingurumenaren zainketan eta aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan aunitz suposatzen du, bertzeak bertze».

Hori ez bereizteak, aldiz, «arazo larriak» sortzen dituela adierazi dute, hala nola: «negutegi efektuko gasen areagotzea, ur, lur eta airearen kutsaduraren haunditzea, ongari kimikoen erabileraren areagotzea, espazioaren okupazioa, etab. Azken finean

gure ondorengoen bizitza baldintzatuko duten efektu negatiboen zerrenda luze bat».

### Edukiontzi marroiak

Horrela bada, hondakinen birziklapen portzentajeak hobetu eta «Europatik markatzen zaizkigun helburuak eta baita Nafarroako Hondakinen 2017-2027 urte bitarteko Planak zehazten dituen helburuak betetzeko bidean» kontainer marroiak paratu dituzte. Hala, auzo edo etxe-ko konposta egiten ez duten herritarren hondakin organikoak poltsa hetsian edukiontzi bidez biltzeko.

Edukiontzi marroi horietan hondakin organikoak bakarrik botatzen ahal izanen dira, janari hondakinak eta lorezaintzako hondakin ttikiak. Dena beti poltsa hetsian bota beharko da.

### Auzo konposta

Udalak, gai organikoaren kudeaketarako etxe eta auzo konpostaren aldeko apustua egiten segitzen badu ere, arrazoi batengatik edo bertzearengatik konpostean parte hartu nahi ez duten herritarrak gai organikoa edukiontzi bidez bereiztera animatu ditu.

Azken batean, gai organikoa birziklatzearekin batera, kontainer berdeen erabilera murriztu nahi dute.



UTZITAKOIA

## Liburuaren Eguna ospatu dute Anizen

Apirilaren 23an Liburuaren Eguna ospatu zuten Anizen. Eguna ailegatu baino astebete lehenago alkatea Anizko haurrekin bildu zen Anizko haurren artean istorio bat osatuko zutela azaltzeko. Haur bakoitzak hasita zegoen ipuinari segida eman zion eta egunean bertan, frontoian, ipuina osorik irakurri zuten.



UTZITAKOIA

## Almandoz kantuz girotu dute

Apirilaren 18an Baztan Kantuz egitasmoak Almandozen izan zuen hitzordua. Eguraldi paregabera lagun, karriz karriz ibili ziren kantari. Hurrengoa Azpilkuetan izanen da. Maiatzaren 16an, 12:00etan plazatik abiatuta, karrizak musika doinu eta kantuz girotuko dituzte.

# MARMOLES SOULE

LAPIDAK  
PANTEONAK  
KANPOSANTUAK  
HARRI LANAK  
ESKULTURAK

www.marmolessoule.com

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

# OTEIZA

ARKITEKTOAK

Apote Karrika 8 (Maskonea)  
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE  
20004 - Donostia

665 71 56 96 - 943 42 52 43  
www.oteizaarquitectos.com

@oteizaarquitectos

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ  
T. 948 452 143 · 948 452 449  
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN S.L.  
ARIZKUN - GAZTAN

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN  
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

# Landa herrien bizi-iraunkortasunaz ikastaroa urrian

Landa ingurua biziberritzeko aukerak eta erronkak aztertuko dituzte EHUrekin elkarlanean

## TTIPI-TTAPA

Landa eremuaren bizi-iraunkortasunaz eta ondareaz, etxebizitzaz eta komunitateaz ikastaroa antolatu du urrirako udalak, Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean, Urriaren 1ean izanen da ikastaroa eta Arizkunenean aurrez aurre edo online parte hartze-ko aukera izanen da.

Ikastaroaren helburua landa inguruetako herrien erresiliencia gaitasuna sendotzea izanen da. Parte-hartzaileek herrietako ondarea kudeaketa eredu eta giza harreman moduan aztertuko dute eta landa ingurua biziberritzeko aukerak eta erronkak aztertuko dituzte.

## Mahai-inguruak eta tailerra

Profesionalei zein publiko orokorrari bideratutako ikastaroa izanen da eta oinarri praktikoetatik gai teorikoak landu, praktika berriak ezagutu eta ondorioak aterako dituzte. Horretarako, bi mahai-inguru eta lan tailerra egingen dituzte. Lehenbiziko mahai-inguruan praktika oinarri

hartuz landa lurrerako hiri-gintza, ondarea etxebizitza bilakatzeko moduak eta ondarea kudeaketa eredu izateaz arituko dira. Bigarren mahai-inguruan, iparraldean gertatzen ari den gentrifikazioari helduko diote etxebizitza kooperatiben bi kasu zehatz aurkeztuz, Kataluniako eta Bizkaiko kasu bana. Azkenik, parte-hartzaileek, taldeka, euren herrietako errealitateak plazaratu eta etorkizunerako lanildoak finkatu eta ondorioak aterako dituzte.

## Hizlariak eta izen-ematea

Ikastaroan, bertzeak bertze, Joseba Otondo, Baztango alkatea, Koldo Telleria, EHUko irakaslea, Dunak taldeko Amaia Albeniz, Lierni Altube eta Ainhoa Negeruela Izagirre, Ibon Telleria eta Rosa Lago izanen dira hizlari.

Izena eman nahi dutenek [www.uik.eus](http://www.uik.eus) atariaren bidez egin dezakete eta bertan ikastaroaren programa zehatza, matrikularen prezioa eta bertzelako xehetasunak ere ikusi ahal izanen dituzte.



40 baztandartik goiti bildu ziren Arizkunenean. UTZITAKOA

## Haur parkeak zaharberritzeko proiektuak garatuko dituzte auzolanean

### TTIPI-TTAPA

Apirilaren 17an Euskal Herriko Oinherri egitasmoaren barrenean dagoen Kerizu Beretike eta Baztango Udalak herrietako parkeen inguruan birpentsatzeko jardunaldia izan zuten.

2020an sinatu zuen Baztanek Oinherriekin hitzarmena herri hezitzaileen filosofia eta printzipioak bertan sustatzeko: haurren kultura, euskara, aisia, feminismoa, naturarekiko harreman osasungarriak, zaintza edo espazioen bizigarritasuna. Hainbat ikastetxek eta herrik haur parkeak zaharberritzeko eskaerak agertu dituztenez, honi buruz hausnartzeko bildu ziren atzokoan.

Nora Salbotxek, Amaiurko herri eskolako zuzendariak, Kerizu Beretiken orain arteko ibilbidea azaldu zuen. Ondotik, Maite Azpiazu azpeitiarrak eta Oinherriko langileak Oinherri

zer den eta haurren kulturaren eta herri hezitzaileen baloreak izan zituen hizpide. Eta akitzeko, Txusma Azkona, Lizarran plisti-plasta familiaren gunearen arduradun zena, parke hezitzaileen nolakotasunaz aritu zen. Arizkunenea kultur etxean 40 baztandartik goiti bildu ziren eta gogo handia erakutsi zuten, aitzinera begira lan taldeak osatuko dituzte tokian tokiko proiektuak garatzeko. Baztango ikastetxe guztiak herri hezitzaileen ekimenean elkarlanean ari dira eta auzolana ardatz duten proiektuak abiatuko dituzte etorkizunean.

Kerizu Beretik ekimena 2015ean sortu zen Baztanen, Joxe Mari Agirretxe eta Joxe Mari Auzmendiren gonbidapena jarraikiz. Kantu jira, baratze hezitzailea eta bertze ekimen txiki zenbait egin ondotik, indarberrituta dator.



**JASOTZAILEAK**  
Proiektuak, zaharberritzeak,  
instalazioak eta mantentze-lanak

**ASCENSORES ARGA**  
**IGOGAILUAK**

- Bizilagun komunitateetan igogailuak.
- Baserri barneko jasogailuak.
- Menpekotasuna dutenendako baliabideak.
- Elbarritasun fisikoa dutenendako baliabideak.




**znorte@ascensoresarga.com**  
**www.argaascensores.com**

**T. 643 93 79 22**  
**Parrokia 15 behea**  
**DONEZTEBE**



**Eraikuntza**  
**Taldea**

**Informazioa:**  
638 68 63 82  
843 99 05 43

- Arlo teknikoa
- Zaharberritze arkitektonikoak
- Eraikin jasangarriak
- Finantziazio pertsonalizatua
- Partekatutako proiektuak



**IRUÑEA**  
Mutiloa-Behetiko ind.  
D kalea, 13. nabea



**DONEZTEBE**  
Parrokia karrika,  
15 behea 2



**DONOSTIA**  
Askatasunaren Hiribidea, 17,  
2.solairua

# Magnaren bileretan «ez parte hartzeko» eskatu dute

Erdiz Bizirik plataformak eta hainbat nekazarik prentsaurrekoa eman dute eta proiektuaren kontra daudela berretsi dute

## TTIPI-TTAPA

Magnak Erdizko eremuatan egin nahi duen harrobi-proiektuarekin berriz hasteko asmoa duela jakinarazi zuen duela guti eta, Baztango Batzar Nagusiko ordezkariekin bilera egin ondok, informazio-erronda bat egiteko asmoaren berri eman zuen, bere proiektua Erdizko larreetara euren aziendak bazkatzera eramaten dituzten abeltzainei aurkezteko. Denetara lau bilera antolatu ditu, bana Baztango kuartel bakoitzeko: Baztango eta Erbereakoekin apiril hondarrean egitekoa zuten, Elizondoko kuartelekoekin maiatzaren 5ean eta maiatzaren 7an Basaburukoekin Berroetako batzar gelan egingen dute, 19:00etan. Bilera horietan baserritarrei Erdizen abeltzaintza estentsiboa sustatzeko proposamena aurkeztu nahi die.

Baina Magnak iragarritako bilerak ez ditu begi onez ikusi Erdiz Bizirik plataformak eta, Baztango hainbat nekazariarekin batera, Magnaren egitasmoaz duen ikuspegia azaldu du.

Baztango nekazariak adierazi dutenez, «badakigu zer egin behar den Erdizen abeltzaintza estentsiboa sustatzeko: 100 hektareako zuloa larre hobereetan ez egin, lur azpiko iturriak eta errekek ez hil eta inguruak errautsez, pistaz eta makinaz ez bete».

Baztango Batzar Nagusiak Erdizi buruzko herri-konsulta egiteko hartutako erabakiaren aitzinean, Magnari galde-tu diote ea errespetatuko duen baztandarren erabakia, eta ea solas ematen duen desjabetze edo UGPS prozesurik ez has-

teko. «Aitzineko galde-moduak erantzuten ez dituzuen bitartean ez dizuegu zilegitasunik onartzen inolako parte-hartze prozesurik egiteko, zeren badakigu zertarako erabili nahi dituzuen solasaldi ireki hauek: zuen proiektua nekazarion eta Baztandarron hitza errespetatu gabe inposatzeko». Hala adierazi zuen plataformak apirilaren 26an egindako prentsaurrekoan.

Gainera zuten, «Erdizko larreetan bi aukera baino ez daude: Abeltzaintza edo meategia, bizitza edo heriotza, tokiko ekonomia edo multinazionalak». Erdiz Bizirik eta abeltzainek garbi utzi nahi izan dute meategiaren kontra daudela, eta «Magnaren hitzaldietan ez parte hartzeko» deia egin diete baztandarrei. Izan ere, «badakigu Magnak bilera hauek parte-hartzea justifikatzeko, nekazariak proiektuarekin ados gaudela eta herri-galdeketa ez dela beharrezkoa errateko erabiliko dituela. Hortaz eskaera hau egin nahi dizuegu nekazari eta baztandar guztiei: ez parte hartu jardunaldi hauetan!»



Erdiz Bizirik-eko kideak eta Baztango hainbat nekazari prentsaurrekoan. ONDIKOL

## Herri-galdeketa egiteko lanean

Magnak Erdizen egin nahi duen harrobiari buruzko herri galdeketa egiteko batzordea sortu dute eta Joseba Otondo, Xabier Torres, Joseba Moreno, Iñigo Iturralde, Pello Iriartek, Pello Orbegoza, Miguel Etxandi eta Iban Larretxea batzordekideak lanean ari dira. Batzordeko kideak herri galdeketa bideratu ahal izateko eman beharreko pauso guztiak ibilbide-orrian finkatzen hasiak dira.

### Txosten juridikoa

Baztango alkateak, Joseba Otondok, adierazi duenez, ibilbide-orri horretan lehenbiziko pausoa herri-galdeketa egiteko legezko babes eskuratzea izanen da, txosten juridikoa egitea alegia: «2017an Aroztegiari buruzko herri galdeketa egin genuen eta hori hor dugu. Hori oinarri hartuz oraingo baliagarria zaigun beste txosten juridiko bat egin beharko dugu».

### Eztabaida soziala

Ondotik, Magnak egin nahi duen proiektua eskuratzeari begira jarriko dira: «ingumen azterketa txostena Nafarroako Gobernuan erregistratzen dutelarik horren gainean eztabaida sozialerako egutegi bat sortu beharko dugu, aldeko eta kontrako iritzia plazaratzeko».

Ibilbide hori finkatzearekin batera herri-galdeketa bideratu nahi dute, herri-lurretan egin nahi denaren gaineko erabakia herritarren esku gelditzeko.



**Construcciones**  
**URBALLO, s.l.**

hargin lanak orokorrean

Luis Gaztelu, 6  
31730 IRURITA  
T. 610 367 000  
610 367 009  
c.urballo@hotmail.com

- 30 urteko esperientzia
- Eraikuntza berriak eta zaharberritzeak
- Teilatueta esperientzia handiko profesionalak
- Obra txikiak nahiz handiak:
- Etxebizitzak, nabeak, zangak, ur lanak, ukuiluak...

**Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!**





*Lanbide Heziketa*

**ETORKIZUNA  
ZURE ESKU**

Izena  
ematea

MAIATZAK 17-26



# Elizondo Lanbide Eskola IIP

## GOI MAILAKO ZIKLOAK

- Administrazioa eta Finantzak

## ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- Administrazio Kudeaketa
- Erizaintzako zaintza lagungarria
- Natura inguruneke eta aisialdirako gidaria
- Mekanizazio teknikaria

## OINARRIZKO LH

- Bulego Informatika
- Elementu metalikoen fabrikazioa

## LH BEREZIA

- Ostatu/garbiketa laguntzailea



Tel 848 431632





laz ez zen Mendi Maratoi Erdirik izan. Argazkian 2019ko bi parte-hartzaile.

## Berroetako Mendi Maratoi Erdia maiatzaren 30ean

1.274 metroko desnibela duen ibilbidea izanen da Berroeta inguruko mendietan barrena eginen dena

### TTIPI-TTAPA

Mendi Elkartek antolatuta, Berroetako Mendi Maratoi Erdiaren laugarren edizioa izanen dute maiatzaren 30ean, hondarreko ingandean.

Bai herrian baita inguruan ere «modalitate honek duen arrakasta» ikusita antolatzaileek aitzinera egitea eta, segurtasun neurri guztiak har-

tuz, edukiera eta distantzia zainduz, Berroeta-Saioa-Berroeta maratokia antolatzea erabaki dute. Proba hau, gainera, Nafarroako klubaren arteko mendi lasterketen txapelketa izanen da.

Parte-hartzaileek 08:00etatik aitzinera herriko plazan dortsalak hartu ahal izanen dituzte eta irteera 09:00etan izanen da plazatik bertatik.

Kirolariek guztira 21,6 kilometroko ibilbidea –1.274 metroko desnibela duena– osatuko dute, Berroeta inguratzen duten mendi guztietan barna.

### KIROLARIEK 21,6 KILOMETROKO IBILBIDEA OSATUKO DUTE

### Sendabelarrak egiteko ikastaroa martxan

Laura Gurbindoren eskutik, ekainaren 11ra bitarte, sendabelarrak egiteko ikastaroa martxan da Arizkunenea kultur etxean. Plaza guztiak bete dira eta parte-hartzaileak ortzirale arratsaldetan lau orduz (16:00etatik 20:00etara) biltzen hasiak dira.

### III. Izpegiko auto igoera maiatzaren 22an izanen da

Izpegiko auto igoeraren hirugarren edizioak badu data: antolatzaileek iragarri dutenez, maiatzaren 22an, larunbatarekin, eginen dute. Egun horretan 13:00etan bidea itxiko dute eta lehenbiziko partaidea 14:30ean aterako da.



Asteartero eta ortzegunero elkarretaratzeak eginen dituzte, 11:00etan atarian.

## Zahar etxeko langileek «hitzarmen duina» eskatzeko mobilizazioak eginen dituzte

### TTIPI-TTAPA

Zahar etxeko langileek mobilizazioak areagotuko dituzte, «hitzarmen duin» bat lortu arte. Prentsa-ohar bidez jakitera eman dutenez, «bi urte baino gehiago» daramatzate lan baldintzak hobetu gabe eta «behin eta berriz eskatu arren enpresak uko egin dio negoziatzeari, egoera ekonomikoa txarra dela argudiatuta».

Langileek IDEArentzat lan baldintzak hobetzeko momentua «inoiz» ez dela salatu nahi izan dute, eta egoera ekonomikoarena «gezurra» dela uste dute: «2014tik irabaziak izateko

eta Zizurko Bidealde bezalako egoitzak irekitzeko ez da oztoporik izan».

Langileek «hilabeteetan erakutsitako sakrifizioa egiteko gaitasuna» eta «lanalditik kanpo egindako orduak aitortuak izateko» eskatuko dute. Apirilaren 26an egin zuten elkarretaratzea eta asteartero eta ortzegunero 11:00etan biltzeko asmoa adierazi zuten. Modu berean, «enpresak uko egiten badio hitzarmen bat negoziatzeari, ondoko asteetan egoera zaila aurreikusten dugu ez baitugu inolako borroka molderik baztertu, ezta greba ere».



NEREA MORTALENA

## Laxoa denboraldia gogotsu hasi dute

Maiatzaren 1ean hasi zuten aurtengo laxoa denboraldia. Arraioztik talde bat ariko da eta honako hauek izanen dira parte-hartzaileak: sakean Mikel Mindegia, numeroan Xabier Mihura eta kuarto lanetan Migeltxo Maritorea eta Jon Gamio. Ea herrian bertan jokatu den finalerako txartela eskuratzerik duten!



Plazaren lehengo eta egungo itxura. UTZITAKOAK

## Plazak itxuraldaketa handia izan du azken urteetan

Gaur egun kotxez beteak ikusten den plaza ez zen horrela ikusten lehen

### MARIFA ETA KORO

Gaur egun kotxez beteak eza-gutuz dugun herriko plazak (irudian Aste Santuko egun batean nola zegoen ikus daiteke) arras bertze itxurak izan ditu antzinako denboretan. Argazki zahar batek erakusten digunez, plazan frontoi-pareta bat egon izan zen, XIX. mendean eraikia izan zena zena segur aski.

Bertze argazki bat ikusita, jakin dugu 1907. urtean plazaren zola harri zabalekin egin zuten.

Plazako bertze aldaketa haundi bat, alondegia jarri zenean izan zen: eraikin honen bi pisu zituen, elizargietan kontra zegoen eta herri-tarrek biltegi bezala erabiltzen zuten. 1922an eraiki zen eta 1970ean bota zuten.



Zugarramurdi eta Urdazubiko herritarren ikastetxea. ARTXIBOKOA

## Eskolako 26 ikasle konfinatuta egon dira apirilean

### MARIFA ETA KORO

Apirilaren erdi aldera susto ederra hartu genuen Covid-19aren kutsatzearen kontura, eskoletako bi gela hetsi behar izan baitziren, bata Zugarramurdi (3-5 urtekoe-na) eta bertzea Urdazubini (3. mailakoena), denetara 26 haur.

### Zazpi positibo egun bakarrean

Bat-batean zazpi herritar kutsaturik agertu ziren, eta horietako bi eskolan daude-nez, beraien gelakideak kon-

finatu zituzten. Zorionez, haur horiek guztiek negati-bo eman zuten, baina 10 egunez etxean isolaturik egon behar izan zuten.

### Berriz ere eskolan

Haur ttikien kasuan (hiru eta bortsu urte bitartekoetan) haurrak ez ezik familia osoa konfinatu zuten, halako adin ttikiko haur bat ez baita gela batean bakarrik uzten ahal. Joan den astean, apirilaren 26an, itzuli ziren eskolara, zoriontsu segur aski.

### Xaretako hiztegia

- **Gauinara:** saguzarra.
- **Ixtiki:** poliki, mantso.
- **Kokoa:** guardia zibila, eltzetzua, karabineroa.
- **Koko-atsoa:** guardia zibilaren emaztea.

**IBARDIN**  
31780 Bera

**BEHOBIA**  
20305 Irun

**LUZAIDE**  
31660 Luzaide

**DANTXARINEA**  
31712 Urdax

**EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE**  
\*Abenduaren 25<sup>a</sup> eta urtarrilaren 1<sup>a</sup> ezik

www.venta-peio.com / (Fr) 0820 562 267 / (Es) 0034 902 210 800

**TTIPI-TTAPA**  
SARE SOZIALETAN

**facebook**  
www.facebook.com/ttipi.ttapa

Jarrai gaitzazu!



Larrungo trenatik eta lezeetatik diru guttiago bildu da.

## 3,8 milioi euroko buxeta izanen du Sarako herriak

Horietatik 2,34 milioi funtzionamendurako eta 1,47 milioi inbestimenduetarako

### GANEX

Herriko Etxearen apirilaren 14ko bilkuran bozkatu zuten 2021eko buxeta eta hautetsi denak akort etorri ziren. Pandemiarengatik ez zen publikorik onartu Herriko Etxean eta, mahai gainean 25 deliberrazio izaki, franko luze joan zen bilkura.

Aurten funtzionamendurako 2.340.218 euro onartu dituzte eta inbestimenduetarako 1.476.247 euro; denetara 3.816.465 euro. Buxeta ia zkoa baino tikiagoa da. Erran behar da lezeetatik eta Larhongo trenetik diru gutiago bildu dela, urte osoan ez baita usaia-ko jenderik ibili.



GANEX

## 300 euroko txeketa Sarako Zahar Etxeari

Errugbi taldeak egin dituen maskak salgai ziren 6 eurotan. Pentsatu zuten behar zela zerbait egin gure zaharrentzat eta maska bakoitzetik euro bat atxiki dute. Taldeak 300 euroko txeketa eman dio zahar etxeari. Jestu eskuzabala eta ona egin du taldeak, eta zahar etxeko jende guztiaren partetik eskerrak eman dizkiete.

### Herriko tasak berdin, %8,21

Azken urteotan bezala atxiki-ko dituzte tasak, %8,21. Ikusi beharko da Euskal Elkargoak eta Departamenduak zenbat altxatzen duten.

### Elkarteendako laguntzak

Sarako eta kanpoko elkarteendako laguntzak 36.240 euro. Haurrendako: hiru eskolak, kantina eta haur tikiaren soziazaltasuna 109.868 euro. Aldaxka haurtzaindegiarentzat 3.600 euro. Dirulaguntza hauek denak buxetean sartuak dira.

### Uda sasoiko enpleguak

Apirilaren 1etik abuztuaren 31 arte enplegu bat astean 35 orenko dedikazioarekin, eta, uztailaren 1etik abuztuaren 31 arte lau enplegu (30 oren astean). Igerilekuan, uztailaren 1etik abuztuaren 31 arte bi enplegu mantentze-lanetan eta 2 sarreran. Lezeetan sei gidari, sasoi hasieratik itxi arte, uztailean eta abuztuaren bertze bi, eta ostaturako uztailean eta abuztuaren bortz.

Bideak eta bertze lan batzuk egiteko kontratuak lau urtetik berritzen dituzte. 2021etik 2024ra Kanboko Sobamat enpresak eta Peio Iribarren Sarakoak egiten dituzte.

## Batimenduak Lizarietan, terrazak eta kanpin karrak

Lizarietako lepoan batimenduak eginak ditu Euskal Herriko Elkargoak. Batimenduak egin ondok bazterrak beharko dira garbitu. Herriak eginen ditu garbitze-lan horiek eta elkargoak ordainduko herriari. Bertzetik, terrazen prezioak ttikituko dizkiote jatetxeei konfinamendurengatik ez baitute zerbitzatzen ahal. Azkenik, apirilaren lehenetik hasita kanpin-kar aparkamenduen prezioa fitxatu dute: egunero 10 euro beharko dute ibilgailu bakoitzarentzat, orain arte baino bi euro gehiago.

## Kuriertegia bereganatu nahi du Sarako herriak

Kuriertegia denboran zen jattetxea eta hotela, orai salgai da. Herriak nahi luke bereganatu, baina mementoan bera ez da on erosteko. Horretarako laguntza egiten du Euskal herriko EPFL erakundeari eta denek bozkatu dute galdera hori egiteko.

## Senpereko Herburuko bidegurutzeko obrak

### JEAN LOUS BESSONART

Jadanik aipagai izana dugu Herburuko bidegurutzeko bibril gune moduan ezarria izan dela. Aldi honetan, haatik, arduradunek halako ofizialtasun bat nahi izan dute eman. Hor aurkitu ditugu Philippe Etxeberria departamenduko kontseilaria, Dominique Durruy Sobamat enpresako zuzendaria eta Idiat Dominique auzapeza.

Departamenduaren gain ziren 175.000 euroko obrak uste baino lasterrago iragan dira; eguraldia lagun izan dute eta auzoko biztanleekin franko aise harrapatu dituzte konponbideak.

Jakin behar da, Ainhua, Dantxarinea, Sara eta Senpere lotzen dituen bidegurutze honetan egunero batez beste 8.000 auto eta kamioi pasatzen direla eta aitzineko modeloen kezka eta oztopo baizik ez zegoela, eta istripua izateko arriskua ere bai.

### Aparkalekua

Lan horren saihetsean aparkaleku bikaina antolatua izan da auzoko Zuzulu ostatuaren atseginetan. Orain gure herriaren gain geldituko da honen argitzea, baina naski 2022an izanen da.



Kantu eta mutxikoak lagun manifestaldi alegera egin zuten apirilaren 17an.

## Sustengua galdegin dute herriko kultur elkarteek

Udarako ikuskizunak eta kontzertuak programatzen hasiak dira herrian

### JEAN LOUS BESSONART

Apirilaren 17an, merkatua- rekin betan, manifestaldi xume bat antolatua izan zen kulturari ari diren aktore batzuen ekimenez. Xingola batean, *Antzoki Okupatua Sustengua* idatzia zelarik, sustengua eskatu zuten.

Manifestaldian egoera latzak hunkitzen dituen herriko elkarteek parte hartu zuten, bereziki Larrekon kokatuak diren Elirale eta Kiribil konpainiek, eta horiekin batera Lapurdi 1609 elkarte-ko kide batzuk ere ikusi genituen.

Urte bat bada jadanik aktibitate gehienak egonaldian direla, etsipen betean izanik ere, Pantxika Telleriak bere hitzaldian erakutsi nahi izan zuten beren ekimen eta borondate ona, eta gauzak

### EKITALDIAK LEHENBAILEHEN ANTOLATZEKO ESKATU DUTE

lehenbailehen antola diten galdegin zuten. Orain arte ikuskizunetako intermitenteak dirulaguntzei esker bizi dira. Haatik, langabezia asurantzaren erreformak uda hondarrean milaka kide eman ditzake prekariedade gordinera.

Halere umore ona nagusi izan zen apirilaren 17ko hitzorduan, kantu eta mutxikoak alegantzia sortzaile izan baitziren.

### Udari begira kultur hitzorduak programatuak

Esperantza izpi batzuk ere badira udari begira, neurriek uzten badute bederen. Jadanik dantza ikuskizun bat eta bi kontzertu programatuak dira Larrekon, elizan eta Inharrian.

Bertzetik, berri on bat azpimarragarri da, iduri baitu kultur gune, ostatu, komertzio eta kirol tokiak edeki daitezkeela maiatz erditsutan, bistan dena neurri zorrotzekin. Edozein moduz, denaren berri denak argiki baieztatu ondotik emanen dugu.

## Kontrabandisten Rallysprinta maiatzaren 8an

Errepidea 13:00etan itxiko dute eta lehenbiziko parte-hartzailea 15:00etan abiatuko da

### ARANTXA ETA IRAIA

Maiatzean izanen da zer ikusia Urdazubin, Kontrabandisten Rallysprintaren hirugarren edizioa jokatu bai. Horretarako, izena emateko epea apirilaren 30a arte irekita izan zen eta komisarioak ere bilatu ondotik, maiatzaren 8an, heldu den larunbatean, izanen da rallyaz gozatzeko parada.

Hirugarren urtez autoen erakustaldi hau ikusi ahal izanen da herrian eta seguru giro polita izanen dela. Jakinarazi dutenez, lehenbiziko



Rallya 15:00etan hasiko da.

parte-hartzailea 15:00etan abiatuko da baina, aitzinetik, 13:00etan, errepidea itxiko dute.



Joan den urtean ezkilak jo zituzten besten oroigarri. ARANTXA ETA IRAIA

## Aurtengo bestak ere alde batera utzi dituzte

### ARANTXA ETA IRAIA

Joan den urtean 2021ko besten esperantzarekin gelditu baginen ere, aurtengoan ere ezin izanen ditugu herriko bestak ospatu.

Maiatzaren 12an, heldu den asteazkenean, hastekoak ziren bestak egungo egoeratik bertan behera geldituko di-

rela jakinarazi du bestak antolatzen dituen gazteen komisioak.

Berriz ere pena handiz herriko bestetan etxean gelditu beharko gara baina esperantza ez denez nehoiz galtzen, heldu den urtekoetan paratu dugu jada begia. Heldu den urtean bai!



Beti Gazteko neskak txapeldun eta mutilak bigarren, apirilaren 24an Lesakan.



Txapeldun suertatatu ziren neskak, tiran. ARGAZKIAK: XAGU-LESAKA

## Launaka ere txapeldun izan dira Beti Gazteko neskak

Pisu astuneneko lehiaketan garaile izan ziren, baina mutilek bigarren postuarekin konformatu behar izan zuten

### TTIPI-TTAPA | LESAKA

Nafarroako 4x4 sokatira txapelketako bigarren jardunaldia jokatu zuten apirilaren 24an Lesakan eta bertan erabaki ziren emakumezkoen eta gizonezkoen pisu astunetako txapelak. Berriozarren tiraldi guztiak irabazita etorri ziren herriko tiralaririk.

Emakumezkoetan (255 kilo) bi jardunaldiak kontuan hartuta 10 puntu lortu zituen Beti Gaztek, eta 8 puntu zituen Txantrearen aurka finala aritu ondotik, txapela eraman zuten etxekoek. Irantzu Goienetxe, Ane Gurrutxaga, Ainhoa Ubiaria eta Maria Iantzi aritu ziren

tiran finalean, Joxe Angel Mitxelena entrenatzaile eta lehen jardunaldian tiran aritutako Ainhoa Etxegarai laguntzaile zutela. Berriozarrek 6 puntu lortu zituen, Antsoain Ak 4 eta Antsoain Bk 2 puntu. Gizonezkoetan (320 kilo), etorri zen ezustea. Beti Gaztek bi jardunaldien artean 9 puntu lortu bazituen ere, 8 puntu zituen Berriozarren aurka galdu zuen finalean, bigarren postua lortuz. Txantrea A izan zen hirugarrena (6,5 puntu), Txantrea B laugarren (4,5 puntu) eta Antsoain azkena (2 puntu).

Maiatzaren 1ean, Txantrean txapelketa mistoa (280 kilo) jokatzekoa zen. Beti Gazte, Txantrea, Berriozar eta Antsoainek bina taldea ateratze-

koak zituzten eta Araxes ere lehiatzekoa zen. Honez gain, 20 urtetik beheitikoek eta kadete mailakoek lehenengo jardunaldia jokatzekoa zuten.

Maiatzaren 8an, emakumezkoen eta gizonezkoen pisu arinetako (235 eta 300 kilo) lehen jardunaldia eta 20 urtez beheitiko eta kadete mailako txapelketaren bigarren jardunaldia jokatu dituzte. Maiatzaren 15ean jokatu dute hondarreko jardunaldia Antsoainen. Emakumezkoen 235 kiloko eta gizonezkoen 300 kiloko txapela bertan erabakiko da eta 20 urtez beheitikoek eta kadeteek hirugarren jardunaldia, eta ondotik, lehen bi sailkatuen arteko finalak izanen dituzte.

## Hugo Aznarrek irabazi du Beran Felix Errandonea Memorialaren 43. edizioa

### TTIPI-TTAPA | BERA

Joan den urteko geldialdiaren ondotik, Gure Txokoa elkarteak antolatuta, junior mailako txirrindulariei zuzendutako Felix Errandonea Memorialaren 43. edizioa egin zuten apirilaren 25ean Beran. Egoeragatik, bakarrik Nafarroako 39 txirrindularik parte hartu ahal izan zuten eta horietatik 27k osatu zuten 70 kilometroko ibilbidea. 70 bat lagun aritu ziren boluntario lanetan lehenbiziko aldiz Garaitarreta auzotik pasatu zen itzulian. Hain zuzen, Garaitarretako

gainean erabaki zen lasterketa, bigarren igoeran ihes egin baitzuen Quesos Albeniz taldeko Hugo Aznarrek eta ihes eginda bakarrik ailegatu zen helmugara (1:43:05). El Volante ostatu-jatetxeko Xabier Zabala izan zen bigarren (1:43:28). Podioko hirugarren koskara igotzeko bortz txirrindulariren arteko sprinta izan zen eta bertan Sakana Group taldeko Jon Erdozia izan zen bizkorrena (1:43:58). Bere ondotik, taldekidea duen Unai Garro Unsion beratarra izan zuten, denbora berean. Lesa-



Garaitarreta auzotik lehen aldiz ibili dira txirrindulariak proba honetan.

kako Jontxu Urrosolo taldeki-deak ere parte hartu zuen, baina ez zuen bukatzerik izan.

Emaizta honi esker, lau txirrindulari hauek eta ondotik sailkatu ziren bertze hiruak

(Ibai Azanza, Mikel Uncilla eta Aimar Berango) Nafarroako selekzioarekin aritzekoak ziren maiatzaren 1ean Gironako Olopt hirian jokatu behar zen Udaberriko 41. Sarian.



Txapeldun eta txapeldun ordeak, antolatzaile eta sari-emaileekin, Donezteben jokaturako finalen ondotik. UTZITAKOIA

## XXX. Josexo Ezkurra Memorialak banatu ditu txapelak

Apirilaren 24an jokatu zituzten buruz buruko txapelketaren finalak Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan.

### TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Erreka elkarteak hogeita hamargarren urtez antolatuta, Josexo Ezkurra zenaren omenez buruz buruko pilota txapelketako finalak apirilaren 24an jokatu zituzten Donez-

tebeko Ezkurra pilotalekuan. Ehun pilotari aritu dira, zazpi kategoriatan banatuak.

**Mutikoak, umeak, pilota goxoarekin:** Ibai Arrieta (Barañain) 18 - Aimar Orkin (Buzurgain) 11

**Mutikoak, kimuak:** Mattin Leiza (Erreka) 5 - A. Antimaberes (Barañain) 18

**Mutikoak, haurrak:** Oier Zabaleta (Lodosa) 16 - Arkaitz Goienetxe (Txaruta) 18

**Neska kimuak, pilota goxoarekin:** Goiuri Zabaleta (Aurreira) 18 - Leire Oskoz (Oberena) 14

**Mutikoak, gaztetxoak:** Beñat Apezetxea (Erreka) 18 - Daniel Sanchez (Oberena) 4

**Mutikoak, gazteak:** Mikel Mikelarena (Buzurgain) 18 - Javi Murillo (Esteribar) 13

**Mutilak, helduak:** Enaitz Anso oronoztarrak (Zugarralde) 18-2 irabazi zion Lekarozko Oier Ariztegi (Txaruta).



JOSE MARI IRAZOKI

## Hirugarren mailara igotzeko fasea jokatu du Beti Gaztek

Lehen fasean bere multzoan lehenbizikoa izan ondotik, bere historian lehen aldiz hirugarren mailara igotzeko kanporaketak jokatu ditu Lesakako Beti Gazte talde nagusiak. Bertze multzoan laugarren izan denaren kontra (hau idazterakoan oraindik ez zen erabakia) jokatu du final laurdenetako kanporaketa. Joaneko partida etxetik kanpo jokatu du asteburu honetan eta itzulerakoa denboraldi honetako partida guztiak irabaziak dituen Mastegin.

## Xabi Urrutia arraioztarra Binakako Euskal Pentatloian

### TTIPI-TTAPA

Gizonezkoen hamabi bikotek parte hartuko dute aurten bigarren aldiz egingen duten Binakako Euskal Pentatlo Txapelketan, eta tartean izanen da Xabi Urrutia arraioztarra, Julen Kañamaresekin bikotea osatuz. Maiatzaren 29an Tolosako zezen-plazan kanporaketa jokatu dute eta sei bikotek lortuko dute ekainaren 20an toki berean jokatu den finalerako txartela.

### Bikoteak

- Andoni Iruetagoiena *Izeta VI.a* - Jexuxmari Iruetagoiena *Izeta III.a*
  - Beñat Amade - Aritz Irazabal
  - Jagoba Otaegi - Luis Txapartegi
  - Iñaki Errazkin - Aratz Mugertza
  - Kepa Peñagarikano - Gorka Etxeberria
  - Oussman Drame - Mikel Agirre
  - Dani España - Julio Jimenez
  - Jon Unanue *Goenatxo III.a* - Mikel Larrañaga
  - Jon Gisasola *Zelai Va* - Ioritz Gisasola *Zelai IV.a*
  - Xabi Urrutia - Julen Kañamare
  - Aitzol Atutxa - Inhar Urruzuno
  - *Tubi* - Iñaki Azurmendi
- Emakumezkoetan, ordea, ez eskualdeko ordezkariirik izanen.

Kanporaketan, harriarekin 20 altxaldi egin beharko dituzte (bietako batek guttienez zortzi altxaldi); giza proban bi plaza egin beharko dituzte, bakoitzak bana; aizkoran bi kanaerdiko ebaki beharko dituzte; txingekin sei plaza egin beharko dituzte, bakoitzak hiruna eta lasterka bi kilometro egin beharko dituzte. Finalean, berriz, lana ia bikoitza izanen dute.

# AGENDA

## MAIATZAK 6 - 20

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ARTXIBOKOA

### BERROETA Mendi Maratoi Erdia

08:00etan dortsalak hartu eta 09:00etan abiatuko dira. Maiatzaren 30ean.

### IKUSKIZUNAK

#### LEITZA

##### 'Non dago Mikel?' aurkezpena eta dokumentala

Bi saio. Sarrerak Astiz eta Maimurren 5 eurotan. Herri Aretoan, maiatzaren 8an, 17:00etan eta 19:30ean.

##### 'Antzerki solidario espaziala'

Bi saio. Sarrerak Astiz eta Maimurren 5 eurotan. Herri Aretoan, maiatzaren 15ean, 17:00etan eta 19:00etan.

##### 'Dardara' aurkezpena eta dokumentala

Bi saio. Sarrerak Astiz eta Maimurren 5 eurotan. Herri Aretoan, maiatzaren 16an, 17:00etan eta 19:30ean.

##### 'Ezinezkoaren logika' magia ikuskizuna

Sarrerak Astiz eta Maimurren 9 eurotan (guraso elkarrekoentzat 7 eurotan). Herri Aretoan, maiatzaren 22an, 18:00etan.

#### ARANTZA

##### 'Luze edo motz' antzerkia

Eskolan, maiatzaren 8an, 19:00etan.

#### LESAKA

##### 'El hombre de hojalata' antzerkia

Harriondoan, maiatzaren 22an eta 23an, 19:00etan eta 18:30ean hurrenez hurren.

#### GOIZUETA

##### 'Bideak' dokumentala

Maiatzaren 30ean.

### BERTSOA

#### LESAKA

##### I. Señora Sariketa

Arranoko terrazan, maiatzaren 8an. Sarrerak: ohiko tokietan eta bertsoarrerak.eus atarian.

### AZOKAK

#### ELIZONDO

##### Artisau azoka

Plazan, maiatzaren 8an, 15ean,

22an eta 29an, 10:00etatik 14:00etara.

#### DONAMARIA

##### Argitsu elkartearen artisau azoka

Maiatzaren 9an, 10:00etatik 14:00etara.

#### SARA

##### Selauru hustea

Maiatzaren 13an.

#### LESAKA

##### Merkatu ttikia

Maiatzaren 29an, 10:00etatik 14:00etara.

### SOLASALDIAK

#### ETXALAR

##### 'Musikoterapia zahartze aktiboan'

Larraburuan, maiatzaren 7an, 19:00etan.

#### DONAMARIA

##### 'Amonarenean kea' liburuaz

Erabilera Anitzeko Gelan, maiatzaren 8an, 17:00etan.

#### LESAKA

##### 'La puerta pintada' liburuaren aurkezpena

Harriondoan, maiatzaren 14an, 18:30ean.

##### Bortzirietako Hautzaroaren Garapenerako jardunaldia

Kultur etxean, maiatzaren 15ean, 09:30ean.

#### LEITZA

##### Goi mailako kirola hizpide

Herri Aretoan, maiatzaren 21ean, 18:30ean. Sarrera: borondatea.

### KIROLA

#### URDAZUBI

##### Kontrabandisten Rallysprinta

Maiatzaren 8an, 15:00etan. Errepidea 13:00etan itxiko dute.

#### DONAMARIA

##### Herri kirolak

Herritarren arteko saioa. Plazan, maiatzaren 9an, 11:30ean.

#### Mendi martxa

Plazatik abiatuta, maiatzaren 16an, 09:00etan.

#### LESAKA

##### Bortzirietako Muxikuen Topaketa

Plaza zaharrean, maiatzaren 15ean, 18:00etan.

#### BERROETA

##### Mendi Maratoi Erdia

Plazatik abiatuta, maiatzaren 30ean, 09:00etan.

### IKASTAROAK

#### ZUBIETA

##### Helduentzako margo tailerra

Eskolan, maiatzaren 8an eta 15ean, 11:00etatik 13:00etara.



## «Lehen abeslari ezagun izatea nuen amets, orain, berriz, abestuz gozatzea»

OIHANA AMOROS ABREGO ARANTZAKO GAZTEA



Bertzeak bertze, animaliak eta natura gustuko dituen Arantzako gaztea da Oihana Amoros Abrego (Arantza, 2000). Ingurumen Hezkuntza eta Kontrola goi mailako zikloa ikasten ari da Donostian. Bi ildo nagusiren bueltan eraikitako ikasketak dira: batetik, ingurumenak dituen problemek gizartea kontzientziatzeko; eta bertetik, problema horiei aurre egiteko bete beharreko arauak –hondakinak, urak... kudeatzeko erraterako– ikasteko.

Argi dio ikasketa horiek ez direla berak begiz joak zituenak izan: «Iruñean Batxilergo artistikoa egin ondotik, Bartzelonara joan nintzen Komedia Musikal ikasketak egitera baina utzi egin nuen. Etxera bueltatu nintzenean gizarteratzea ikasi nahi nuen, baina ez ninduten hartu...». Ikaske-

tak zaletasunekin lotuak diren heinean, kontent dago Amoros. Hala ere, hauek akitu ondotik ikasten segitzeko asmoa du: «hau zubi bat izatea nahiko nuke».

### Langile klasearen kontzientzia indartzeko beharra

Gaztea da, eta bertze gazte aunitz bezala, lan-munduari begira ere hasia da. Horrek nolabaiteko kezka eragiten dionik ez du ukatu: «nahiz eta ikasketa aunitz izan lan duin bat lortzea zaila izaten da. Bertzelako lanak, baldintza kas-

**«MAIZ KEXATU ARREN EZ DUGU ARAZOAREN OINARRIRA JOTZEN»**

karragoak dituztenak, izaten dira...».

Ideia horri tiraka, langile klasearen kontzientzia indartzeko dinamika batean parte hartu du Amoros: «langile klasearen kontzientzia hagitz aspalditik existitzen den kontua izan arren, gaur egun ez dago indarrean eta gero eta beharrezkoagoa da. Orain bertan krisi egoera batean gaude, eta horrelako egoerak behin eta berriz izanen ditugu». Bizi dugun egoera honetan, erraterako, «langile klasearen egoeraz ez da solas egiten, edo ez behar adina behintzat».

Egoeraz kontzientzia hartzea da bere ustez hortik ateratzeko giltza. Horretarako, Bortzietako gazte batzuk elkartu eta Klase Kontzientzia Hedatu goiburuean hitzaldiak antolatu zituzten apirillean eta maiatzaren 1ean, langileen egunean, mobilizazioa egin zuten.

Horiek keinu batzuk izan dira, «maiz kexatu eta kexatu aritzen garen arren, arazoaren oinarri-jotzeko joerarik ez dugu eta. Klase baten barrenean gaude, gure egoera zein den eta den bezalakoa zergatik den ulertu behar dugu, ondotik esku hartu ahal izateko».

Hori ulertuta, «zure ideiekin bat egiten duten kideekin elkartu eta nahi dutena lortzeko borrokatzea» da bidea bere ustez.

### Nahiak lortu arte

Bere nahiak lortu arte borrokatzen duen horietakoa izan da beti Amoros.

Halaxe egin izan du bere zaletasun nagusiarekin, kantatzearekin, ere: «lau urterekin musika eskolan hasi nintzen eta, horrez gain, zazpi bat urtez

abesbatza batean parte hartu nuen...».

Maite du kantatzea eta horri tiraka, hainbatetan jendaurrean kantatu du: «aukera guztiak aprobetxatu ditut, musika eskolan aunitzetan egiten genituen kontzertuetan, Toki Onan San Juan Boscon...». Azken hori eta telebistan egindako saioa, Kantugiro, izan ziren parte gehiagok ikusteko aukera luzatu ziona. Ondotik, Batxilergo artistikoa egin zuen. Gehiago ere bada: «lagun batekin elkartu eta berak gitarra jo eta nik ahotsa jarrita euskal kanten bertsioak egin genituen. Zenbait herri ttikitan ere izan ginen...».

Tartean Youtube kanala ere sortu zuen: «nire ametsa abeslaria eta ezaguna izatea zen, arratsaldeak pasatzen ahal nituen Coverrak edo La Voz Kids ikusten». Hortaz, 15 urte zituela lehenbiziko bideoa goitu zuen: «egun bakarrean 5.000 bisita izan zituen eta hori niretzat izugarria izan zen. Hori kudeatzen ez nuen jakin eta urtebete pasatxora goitu nuen hurrengo». Ordutik gehiago ere goitu ditu baina horiek ez dute halako oihartzunik izan: «nik hiru kanta sortu ditut. Bat kolaborazioa da eta bertze biak bakarrik egin ditut. Niri gustatzen zaizkit, nire barrenetik atera direlako eta kontent nago hor daudelako». Momentu honetan «niri gustatzen zaidana egitea, gozatzea, da nire helburua eta hori norbaiti gustatzen bazaio horrekin kontent nago».

Orain arte ez bezalako ikuspegiarekin, baina bidea segitzeko asmotan da Amoros: «neure kabuz kantatzen segitzen dut, klaseetara joan gabe eta nire zaletasunaz gozatzen segitu nahiko nuke». Hala ere, proposamenetara irekita dago, probatzeko prest eta dakiena erakusteko gogoz: «berriz ere taldetxo bat eginen nuke edo talderen bateko kide izateko aukera izatea gustatuko litzaidake».

**«MUSIKA TALDE BATEKO KIDE IZATEA GUSTATUKO LITZAIDAKE»**

## MERKATU TTIKIA

### ETXEBIZITZAK

#### SALGAI



**LESACA.** Bi bizitzako etxebizitza salgai, 7.000 metro koadroko eremuarekin. ☎948 38 70 93 / 651 62 10 15.



**LESACA.** Primeran dagoen Etxe adosatua salgai, berri-berria. 5 logela (bat bulego izateko prestatuta), 3 komun, sukalde handia eta egurrezko tximinia. Garajea, txoko handia duena eta lorategia. ☎609 47 72 77.

**BERA.** Herriko Etxeko Plazan etxea salgai. ☎616 24 35 30.

**IGANTZI.** Pisua salgai, 3 logela, 2 komun eta terrazarekin. Garajea, trastelekua eta igogailua dauzka. ☎687 73 00 87 / 615 74 66 22.



**ARANTZA.** Zumarrendi baserria salgai. Bidea du etxe atariraino, baita ura eta argia ere. ☎606 96 02 37.

#### ERRENTAN EMATEKO

**IRUÑEA.** Arrosadia auzoan, unibertsitatetik hurbil hiru logela, saloi ederra eta komuna dituen pisua errentan emateko. Guztiz moblezta-tua. ☎644 46 69 15.

**DONEZTEBE.** Zazpigarutze inguruan pisua errentan emateko. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela eta trastelekua. ☎948 45 19 64 (deitu arratsaldetan).

**ELIZONDO.** Pisua errentan emateko. Bi logelakoa, komun bat, sukaldea, egongela eta trastelekuarekin. ☎686 96 48 03 / 661 93 17 27.

**LESACA.** Pertsona batentzako logela errentan emateko. Urte osora-

### IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

✉ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabean erantzukizunik

ko. Erretzailea ez dena eta animaliarik ez. ☎ 678 85 50 56.

#### ERRENTAN HARTZEKO

Eraikuntza enpresa batek bertako arduradunarentzat, **Bera, Lesaka edo Etxalar** inguruan etxebizitza bat behar du. Hilabetean 700 euro arte ordaintzeko prest. ☎ 648 85 13 93 (Lurdes).

#### EROSI

**BORTZIRIAK, MALERREKA, BAZ-TAN edo BERTIZARANAN** etxea, baserria, borda edo terrenoa erosiko nuke. ☎688 45 84 34.

#### GARAJEAK/LOKALAK

##### ERRENTAN EMATEKO

**LESACA.** Otsango industrialdean pabiloia errentan emateko. 225m<sup>2</sup> eta 50 m<sup>2</sup>ko solairuarekin. ☎670 04 11 61.

#### ERRENTAN HARTZEKO

**BERA.** Garaje itxi bat errentan hartu nahi dute Altzate plazatik hurbil. ☎660 01 82 32.

#### LANA

##### ESKARIAK

Familia langilea eta geriatrico laguntzailea eri edota ezinduei zaintzeko prest, ospitalean eta etxean, gauz eta egunez. Mendeko pertsonen arreta eta zaintza orokorra. Esperientzia kontrastatua. ☎609 47 72 77.

Adinduek, garbitasunean eta sukaldaritzan esperientzia duen emakumea lan bila. ☎642 95 07 08.

Emakume bat adinekoak (kanpoko zaintzaile moduan) eta haurrak zaintzen (Haur Hezkuntza ikasia), garbiketarako egiten edo sukaldaritzan (janari-erabiltzailearen txartela) lan egiteko prest. ☎747 42 53 91.

## BASERRIA

#### BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:  
Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,09
- 1.koa 3,97
- 2.koa 3,82

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,20
- 1.koa 4,06
- 2.koa 3,92

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

#### Aretze ttikiak

- (15 egun inguruak)

#### Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 150,00

#### Aretze nabarrak

- Urruxak 120,00
- Idixkoak 140,00

#### ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,15/4,25
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

#### ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 6,90/7,20
- 8-10 kilokoak: 6,10/6,60

#### ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 72 €

Zerri gizona 1,460€

Zerramak 0,760€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua apirilaren 16tik 23ra bitarteko prezioak)

### ESKAINTZAK

Inmobiliaria munduan lan egin nahi-ko zenuke? Higiezin aholkularia izan nahi baduzu, euskara dakien pertsona baten bila gabiltza Bortzi-riak inguruan lan egiteko, autonomo. Agentzia gaztea, lan egiteko gogoarekin. Proaktiboa bazara hitz egingo dugu. Bidali curriculumak: [info@moldatuhome.com](mailto:info@moldatuhome.com).

**ZUGARRAMURDI.** Bakarrik bizi den adineko bati laguntzeko pertsona bat behar dute; hasieran gauz aritzeko eta gerora, uda aldera, interna gisa aritzeko. ☎659 77 46 65.

### ANIMALIAK

#### SALGAI

**LEITZA.** Larre behi limusinak salgai. Adin guzietakoak. ☎610 37 85 43.

### DENETARIK

#### SALEROSKETAK



**Gurpil-aulki motorizatua** salgai. Egoera onean. ☎678 95 70 94.

#### GALDU-AURKITUAK



**LEITZA.** Mugikorra aurkitu dute Santa Krutetik herrirako bidean, Añaldetik. Jabeak Karrape Irratian galde dezala.

**BERA.** Suspelako bidean erlojua aurkitu dute. ☎948 62 52 12.

**SUNBILLA.** Trenbidean mugikorra aurkitu dute. ☎610 88 76 93 / 948 63 02 72.

**UREPELE.** Setter arrazako bi zakurkume bat galdu dira. Bat lemon eta bertzea xuri eta beltza. Lepokoak dituzte telefono zenbakiekin. ☎0033 677 51 48 27.

### MOTORRAK

#### SALGAI

Opel Omega salgai. 800e! 2001, 217.000 km, garajejan egona, diesel, ITV azaroa 2021. Oso egoera onean ☎666 11 23 49.



**Seat Ibiza** salgai. 2009koa, 1.4 TDI, 80 zaldi, Klimarekin, kolore beltza. 3.700 euro. Jabe bakarrekoa. Egoera ezin hobean. ☎637 77 48 36.



**Ducati Monster 695** motorra salgai. Egoera onean. Azterketa berriki pasatua, pneumatikoak aldatuak eta irailera bitarteko aseguruua. Erabilera ezagatik salgai. 3.600 euro. ☎653 01 95 99.

**BAZTANGOIZA**  
TAILERRAK

**Peugeot Extert 4x4**

**Toyota Land Cruiser VXL**

**Toyota Land Cruiser VX**

**Ordoki ind. - Arizkun - BAZTAN**  
T. Fax 948 453 493 - 617 969 847  
baztangoiza@yahoo.es  
www.baztangoizataillerrak.com

**INDAUTO**  
TAILERRAK *ELITE*

**Fiat Panda 4x4**

**Volkswagen Caddy 4x4**  
4 motion edizioa

**Citroen Berlingo itxia**

**Ordoki ind. - Arizkun - BAZTAN**  
T. 948 453 488 - M. 675 324 960  
info@indauto.es

**Sampi Aragón**

**FORD KUGA 1.5 ECOBOOST 150CV. TREND.**  
Finantza. prezioak - 2015 urtekoa - 16.900€

**SEAT LEON ST 1.5 ECOTSI 150CV FR.**  
Finantza. prezioak - 2019 urtekoa - 17.900€

**VOLKSWAGEN TOURAN 1.6TDI 115CV BUSINESS**  
Finan. prezioak - 2016 urtekoa - 14.500€

**DONEZTEBE | 948 450 354**

**ttipi-ttapa**  
sare sozialetan

**facebook**

www.facebook.com/ttipi.ttapa

**JARRAI GAITZAZU!**

URTEBETETZEAK



Berako **Nerea Ruiz Canok** 9 urte beteko ditu maiatzaren 8an. Zorionak Nerebux!! Muxu haundi bat Berako eta Lesakako familien partetik!! Ondo pasa monona!!



Elizondoko **Beñat Arteta Mikelperizenak** 2 urte bete ditu apirilaren 30ean. Muxu haundi bat pottoko!!



**Joseba Petrirenak** urteak bete ditu maiatzaren 2an. Zorionak Berako familieren partetik.



Zorionak **Etxahun!** Maiatzaren 2an 11 urte bete dituzulako, zorionak amatxi eta Lesakako, Berako eta Pasai Donibaneko familia guztiaren partetik. Muxu handi bat amatxi Mikeliren partetik.



Berrobiko **Naia Aranguren Mendiolak** 9 urte beteko ditu maiatzaren 11n. Aunitz urtez Lesakako familia guztiaren partetik. Muxu potolosa zuretzat!!! **Muaka!!!**



Goizuetako **Ilargi Indakoetxea Mendizurik** 7 urte bete ditu apirilaren 30ean. Zorionak gure etxeko txikiari Ireber, aita, ama, amona Pakita eta Hernani eta Usurbilgo familia osoaren partetik.



Lesakako **Aiert** eta **Elorri Arotzena Portu** lesakarrek 10 urte beteko dituzte maiatzaren 6an. Aunitz urtez eta hamar musu haundi familieren partetik.

**Club AVIA**

**AVIA**

**NAVARRA FUNDACION**  
BANCO DE ALIMENTOS

**Maiatzaren 10etik 16ra bitartean erositako erregaiaren % 2a, Nafarroako elikagaien bankuarentzat izanen da.**

**Aste honetan zure kilometroak solidarioak izango dira.**

Leitza errepidea, 49 / Doneztebe / Tel.: 948 45 16 79 / www.doneztebe.net

OROIGARRIA

**Juliana  
ELIZALDE DANBORIENA**

Etxalarren hil zen 2021eko apirilaren 20an,  
101 urte zituela



Irribarrea ahoan,  
distira begietan,  
oroimen hau gordeko dugu  
betirako bihotzean.

BERE AHIZPA, ASUN; ILOBAK, LEHENGUSUAK ETA GAINERAKO  
SENIDEAK

OROIGARRIA



Francisco Tellechea Arregi  
Patrikuz zu ezaguna  
Hitz batez deskribatzeko  
benetako euskalduna  
Denak espero baino lehen  
zure despedida eguna  
Inork ez digu beteko  
zuk utzitako hutsunea  
Inork ez digu kenduko  
emandako maitasuna  
Senar bezala zu zinen  
emazte batek nahi duna  
guraso bezala berriz  
zinen oso bihozaduna  
eta zure bilobentzako  
beti ataubi kuttuna.

URTEURRENA

**Euxebio  
IGOA MITXELENA**

Lesakan, 2020ko maiatzaren 1ean  
**I. urteurrena**



Bizitzan zehar gauza aunitz zuk  
zenizkigun irakatsi  
zuri hori guztia eskertez ezingo dugu  
inoiz ere utzi;  
zuk gure bideak argitzen  
a ze garrantzi  
denborak aintzinerara egin arren  
matte zattugu ataxi.

ZURE FAMILIA



**BEILATOKIAK**  
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN  
Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan,  
Bertizaranan eta Malerrekan  
**Durbiltasuna eta begirunea**  
T. 948 05 90 90 [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

**ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:**  
948 63 54 58, 744 48 43 61 edo [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

► **Eskelak, Esker Onak** eta **Urteurrenak**

Ttípi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 €  
Ttípi Txartela dutenek %10eko deskontua.

► **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalizuak, nahi den argazki eta  
testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan,  
(Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).



BAZTAN  
BIDASOA

Ehorzketa Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDON** Santiago kalea, 79  
BORTZIRIAK: **BERAN** San Jose Beilatokian  
MALERREKA: **DONEZTEBEN** Aparan ind. 1-3

web: [funerariabaztanbidasoa.com](http://funerariabaztanbidasoa.com)

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA  
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU  
365 EGUN

948 48 95 50  
[info@funerariabaztanbidasoa.com](mailto:info@funerariabaztanbidasoa.com)

*Betiko taldea zu laguntzeka*

**IRACHE**  
tanatorioak

24 948 63 74 04  
948 19 70 70

BERA  
(Kanttonberri, 14)



**Zuen ondoan, betidanik**

- Nafarroako hileta zerbitzuetan aitzindariak eta eskualdean zerbitzua ematen lehenak gara.
- Konfiantzako taldea osatzen dugu, errespetuz eta profesionaltasunez lan egiten dugu.
- Liderrak gara Nafarroan, zuen esanetara gaude.
- Zerbitzu integrala. Norberaren nahietara egokitutako agurrak.
- Aseguru etxe guztiak lan egiten dugu. Zuk aukeratu eta guk kudeatuko dugu.
- Etxez etxeko zerbitzuetan adituak.
- Hilerrietako lanetan espezializatuak (partikularrak eta instituzionalak)
- Prezio lehiakorak.

## SORTZEAK

- **Maren Maia Larralde**, Lesakakoa, apirilaren 11n.
- **Aiur Urkia Scheeper**, Arantzakoa, apirilaren 21ean.
- **Jagoba Villares Otondo**, Urdazubikoa, apirilaren 24an.

## EZKONTZAK

- **Aitor Muñoa Otxoteko** eta **Andrea Natalia Sanjuan Elorz**, Lesakakoa eta Iruñekoa, apirilaren 15ean Lesakan.

## HILBERRIAK

- **M. Bernadette Sanjurjo Retegi**, Berakoa, apirilaren 16an, 61 urte zituela.
- **Jose Francisco Zestau Zubitur**, Leitzakoa, apirilaren 19an, 86 urte zituela.
- **Juliana Elizalde Danboriena**, Etxalarkoa, apirilaren 20an, 101 urte zituela.
- **Mikaela Apeztexea Arribillaga**, Leitzakoa, apirilaren 21ean, 99 urte zituela.
- **Manuel Bergara Durruti**, Etxalarkoa, apirilaren 24an, 85 urte zituela.
- **Mª Josefa Gamio Garbisu**, Oronoz-Mugairikoa, apirilaren 24an, 79 urte zituela.
- **Felix Osas Ganuza**, Berakoa, apirilaren 25ean, 97 urte zituela.
- **Antonia Mendegia Maritxalar**, Lesakakoa, apirilaren 25ean, 85 urte zituela.
- **Esteban Agesta Larretxea**, Arantzakoa, apirilaren 25ean, 78 urte zituela.
- **Mª Josefa Oskoz Etxeberria**, Arantzakoa, apirilaren 26an, 79 urte zituela.
- **Joaquin Obregozo Gamio**, Iruritakoa, apirilaren 26an, 79 urte zituela.
- **Manuela Alberdi Mendiberri**, Legasakoa, apirilaren 26an, 64 urte zituela.
- **Isabel Olaetxea Mitxelena**, Iturengoa, apirilaren 26an, 78 urte zituela.
- **Josefa Gamio Garbisu** Zigakoa, apirilaren 26an, 88 urte zituela
- **Jose Mindegia Arregi**, Oieregikoa, apirilaren 27an, 89 urte zituela.

**ESKELAK eta  
HILBERRIAK**  
eguneratuak  
**erran.eus**  
webgunean



## KONTATU KONTUAK



'Bizi gira... kutxa bira!' Beran eta Lesakan. Bizi gira... kutxa bira! lelopean, Euskal Herria eta diaspora zeharkatzen ari da Iparra Hegoa elkartearen Kutxa Bira. Apirilaren 8an lur hartu zuen kutxak Baionan eta 72 egunez, 71 herritatik pasatu ondotik, maitzaren 30ean Segurara ailegatuko da. Apirilaren 19an Beran eta Lekarozen izan zen.



Miarritzeko eraso matxista salatu dute Beran. Apirilaren 15ean, 77 urteko gizonezko batek 75 urteko emaztea hil zuen Miarritzen, eta ondotik bere buruaz bertze egin zuen. Hori salatzeke Goldatz talde feministak deituta giza-katea egin zuten apirilaren 18ko eguerdian Mukixu zubian.

## Kontatu, kontatu!

Baduzu ospakizun edo ateraldiren baten berririk eta argazkia erakutsi nahi zenuke? Zerbait ikusgarria aurkitu duzu eta horren berri ematea gustatuko litzaizuke? Edozein argazki erakutsi nahi duzula ere, kontaguz eta bidalguz argazkia!!


**Posta elektronikoa edo Whatsapp:** Bidali mezua [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus) helbidera edo whatsapppez 744 48 43 61 zenbakira.

# PLAZAN BAZAN



## ESPEZIE FESTA

Ez dakigu zientzialari pitzatua den ala gezurti ikaragarria, baina zoro honek espezie berriak sortu omen ditu. Nola? Abereak abereekin nahasiz eta inork ulertu ez dituen formula matematiko genetiko labirintikoen bidez, aizue. Batere kolorerik gabeak atera zaizkio, ordea. Margotu itzazu zuk.



Ilustrazioak: Garbiñe Ubeda (Aiurri)

## HAMARREKOA

Aurkitu zientzialariaren eta bere ispiluko irudiaren artean dauden aldeak. Hamar dira guztira.

## ITZALAK



Lotu itzal bakoitzari bere izena.





KROKOILOA



TXORILA



AZERINARIOA



ARDIGREA



TXERRIKORRA



OSTRUKATUA

**INTERNETEN ERE BAI !**  
<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak  
[www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak)



**Ttapi Txartela** arekin  
beti irabazten da!

**780** aleko  
irabazleak >

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eu | erran.eus

[www.ttipitxartela.info](http://www.ttipitxartela.info)

**ttipi txartela**

Josune Sorondo Odriozola  
72673152-A  
Iparmuga 2023/04  
Zs. 372

ttipi-ttapa  
Fundazioa

**ZOZKETAK**

**Donostiako aquariuma - 2 sarrera**  
Lucia Iparragirre Taberna | ARANTZA  
**Buatxabal - Kamiseta bat**  
Miren Maritorea Oteiza | ARIZKUN  
**La Rhune - Sarrera bat**  
Inaki Iantzi Maritorea | ANIZ  
**Zugarramurdiko Lezeak - Sarrera bat**  
Mapi Canflanca Ezkurra | LEITZA  
**BKZ - Sarrera bat**  
Gaizka Baigorri Belaza | DONAMARIA  
**Okille Tailerra - Eguzkilore bat**  
Kontxi Landa Olaetxea | LESAKA  
**Ttartalo - Liburu bat**  
Nerea Mortalena Maskotena | ARRAIOZ  
**Ttartalo - Liburu bat**  
Ines Erneta Azanza | IRUÑEA

**DONOSTIAKO AQUARIUMA**  
[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)



2 sarrera

**ONDDO TA PUNTO**  
[www.onddotapunto.com](http://www.onddotapunto.com)



Kamiseta bat

**LA RHUNE**  
[www.rhune.com/eu](http://www.rhune.com/eu)



Sarrera bat

**TABERNA EDARIAK**  
[www.tabernaedariak.eus](http://www.tabernaedariak.eus)



Lote bat

**IRRISARRI LAND**  
[www.irrisarriland.com](http://www.irrisarriland.com)



Sarrera bat

**ARKUPE**  
[www.arkupegozotegia.com](http://www.arkupegozotegia.com)



Lote bat

**LI  
BU  
RU  
AK**



- Orratza eta kaltea  
- Katta - Udalekuak



- Nevermore  
- Katta - Ihesi



**elkar**

[www.elkar.eus](http://www.elkar.eus)

**LA  
GUN  
TZAI  
LEAK**



[www.ibaizabal.com](http://www.ibaizabal.com)



[www.arkupegozotegia.com](http://www.arkupegozotegia.com)